# Goienkaria

2008ko azaroaren 7a > Egubakoitza > VIII. urtea > 352. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"65 urtetik gorakoen artean %10-15 hasten da dementzia arazoekin"

**Goretti Gozalo**
Nibe elkartea
> 09

**G2a** Ganbara Txikiren bosgarren urteurrena > 43

**ARRASATE** Kontseiluaren urteurrenerako ekintzak prestatuko dituzte > 18

**BERGARA** Zabalik daude Domingo Irala kaleko komun publikoak > 24

**KIROLA** Behobia-Donostia proban 16.300 korrikalari izango dira etzi > 41

**EKONOMIA** > KRISIA

# Fagor baten uko egin diote Gabonetako paga bereziari

**ERRETIROAK** Fagor Etxetresnetako langileek erabaki zuten paga 128 erretiro finantzatzeko erabiltzea

**BI LANTEGI** Arrasate eta Basauriko lantegietako 2.604 bazkideri eragingo die asteon onartu duten neurriak > 05



**KAXA** Muniategiandikoetxea, Aroztegin ipini duen kaxa gorriarekin; esanahi berezia du. XABIER URTZELAI

**ARTEA** > MANU MUNIATEGIANDIKOETXEAREN ERAKUSKETA

## "Ikuslea astindu nahi dut; ez dut jendeak 'ze polita' esatea nahi" > 44

**EKONOMIA** > KRISIA

## Krisiaren aurpegiak ibarreko ekonomian

Krisiaren gaineko hainbat ikuspuntu batu ditu oraingo astean GOIENKARIAK: ibarreko auto-saltzaile, etxe-agentziako arduradun, dendari, sindikatuko ordezkari eta ostalari banaren hitzak, hain zuzen ere. Ondorioa da sektore gehienetan igartzen dela krisia, baina, euren esanetan, hasi besterik ez dela egin. Bestalde, Debagoieneko hainbat enpresak oraintsu hartu dituzten neurrien berri ematen du erreportajeak. > 02-03

**AUZITEGIAK** > EPAIA

## Apelazioa aurkeztuko dutela dio Villarrek

Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkate ohiari eta Javier Villar Elizateetako zinegotzi ohiari urte eta 9 hilabeteko kartzela zigorra ezarri die Gipuzkoako Audientzia Probintzialak. Biak errudun aitortu ditu dokumentu publikoak faltsutzearen delituaz. AP-1 autobidearekin lotutako dokumentu baten data faltsutu zutela frogatutzat jo du Audientzia Probintzialak. Villarrek adierazi du apelatu egingo dutela. > 06

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46-48
**Gazteak** > 50
**Telebista-Irratia** > 51
**Berri-zakua** > 52
**Eskelak** > 53
**Non-zer** > 54-55






**EKONOMIA** > KRISIA

# Sektore guztiek sumatu dute krisiaren eragina gurean



Jesus Markaide Deba Garaiako bulegoan.

**EGOERA** Krisia egunero makina bat aldiz entzuten dugun berba da. Hainbat sektoretako ordezkariekin izan gara nola eragin dien jakiteko

**EZBERDINTASUNAK** Sektore batzuetan beste batzuetan baino nabarmenagoa da eragina, eta neurriak araberakoak izan dira

### Andoni Erdabide
TOYOTA ETXEKO AUTO SALTZAILEA

### "Duela sei hilabete pentsaezinak ziren deskontuak egin ditugu autoetan"

Salmentak jaitsi direla sumatu dute Toyotakoek, ehunekotan zenbat izan den ez dakiten arren. "Orain dela lau edo bost urte hainbeste aipatzen zen eraikuntza globoa lehertu egin da. Bestalde, azken urtebetean egunero telebistan, irratian… esan eta esan ibili dira krisia zetorrela eta jendea beldurtu egin da. Nik ez dakit jendeak kobratzeari utzi dion, baina gastatzeari, bai", diote.

Krisiari aurre egiteko, euren marken salmentak mantentzeko neurriak hartu dituela dio. "Beharbada ez beste marka batzuetan bezala, beherapenen gaineko sekulako iragarkiekin, baina deskontuak egin ditugu; kasu batzuetan, 5.000 eurora artekoak. Duela sei hilabete horrelako zerbait pentsaezina zen". Bestalde, enpresa jabeek instalazioetan bestelako kontuei erreparatu beharko dietela ere esan digu: argindar eta publizitate gastuei, esaterako.

Euren sektorean ez daki egoerak txarrera egingo duen: "Jendeak uste zuen, krisiaren eraginez, bigarren eskuko auto gehiago salduko zela, baina ez da hala izan. Auto berrien salmenta jaitsi da, baina bigarren eskukoena ez da igo. Auto berri bat erostea ez da ezinbestekoa, baldin eta daukagun autoa badabil. Hondatuz gero, orduan erosiko dute berria, baina kapritxoz autoa erosten duenak beharbada orain itxoin egingo du egoera hobetu arte", dio Andoni Erdabidek.

**"Nik ez dakit jendeak, krisiaren eraginez, kobratzeari utzi dion, baina gastatzeari, bai"**

**"Baikorra naiz, baina egoerak kezkatzen nau; merkataritzan ez ezik, arazoa guztion ahotan dabil"**

### Mari Carmen Olivenza
TROKO JANTZI DENDAKOA

### "Neurri berezirik ez dugu hartu; gure ardatza bezeroekiko gertutasuna da "

Arrasaten jantzi denda duen emakume honek uste du krisiak eragina duela jendearen gogoan erosketak egiteko orduan. "Egunero komunikabideek ematen diguten informazio katastrofikoak ere eragina du kontsumoan. Gure dendan, oro har, merkataritzan bezala sumatzen dihardugu eragina, baina espero dugu iragankorra izatea".

Krisiaren aurrean oraingoz ez dute neurri berezirik hartu: "Orain arte bezala, merkataritzagune handiekin ezberdintzen saiatuko gara. Horretarako, bezeroarekiko gertutasuna da gure salmenten ardatza. Bestalde, Ibaiarte txartela neurri positiboa da Arrasateko merkataritzarako". Krisi egoera aldi baterako izatea espero du: "Baikorra naiz oraingoz, baina egoerak kezkatu egiten nau. Arazoa gure sektorean ez ezik jende guztiaren ahotan dabil". Krisiaren lehen zantzuak Ipar Amerikatik etorri zirenez, "espero dezagun Obamak politika ekonomikoa berrantolatzea eta jarrera baikorra bueltaraztea", dio.


Troko jantzi dendako Mari Carmen Olivenza. JASONE ZABALA


LABeko ibarreko ordezkaria, Juan

### Jesus Markaide
DEBA GARAIA INMOBILIARIAKOA

### "Badirudi jendeak pentsatzen duela egongo direla urte hobeak etxeak erosteko"

Etxebizitzak erosteko eskariak jaitsi egin dira nabarmen, Deba Garaia etxe-agentziako Jesus Markaideren esanetan: "Orain dela urte batzuk bazirudien etxea erosten ez zuena tontoa zela, baina orain erabat bestelakoa da. Prezioen igoera ikaragarria izan da. Banketxeendako hipotekakredituak produktu seguruak dira eta hasi ziren diru asko ematen, eta asko ematen denean asko ordaintzen da. Hori izan da prezioek gora egiteko arrazoi bat, eta iritsi dira bazterreko prezioetaraino. Kasu batzuetan zaila da sinistea etxebizitzek orain dela pare bat urte nolako prezio altua zuten", azaldu digu.

Alokairu kopurua ere igo egin dela esan digu: "Mugimendurik ez dagoenez, etxebizitzak salgai dituen jendea animatu dugu etxea errentan ematera. Errentan hartzeko eskariak ere igo egin dira apur bat, bai. Jendeak badirudi pentsatzen duela egongo direla urte hobeak etxeak erosteko".

Krisia sakona da eta aurrera begira ez daki zer gertatuko den. "Espainian daude 800.000 etxebizitza saldu barik, eta Frantzia, Alemania eta Italia elkartuz gero, kopuru horrekin bost urterako izango

## Langabeziak gora egin du urrian

211 pertsona gehiago langabezian. Irailean baino 211 pertsona gehiago joan da lan bila INEM-eko bulegora Debagoienean. Langabezia %0,68 puntu handitu da hilabete bakarrean, eta gora egin du hirugarren hilabetez jarraian.

Gipuzkoako eta Hego Euskal Herriko datuekin alderatuta azken hilabeteko igoera txikia izan da. Izan ere, Gipuzkoan %5,50 igo da langabezia eta Hego Euskal Herria osotasunean hartuta %6,70 handitu da tasa.

## Fagorrekoek Gabonetako pagari uko

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibako bazkideek Gabonetako aparteko pagari uko egitearen alde agertu ziren martitzen goizean egindako bozketan. Arrasaten, 3.500 kooperatibistatik 2.500 bazkidek eman zuten botoa eta gehiengoa aukera horren alde agertu zen. Bestalde, Fagorrek Basaurin duen lantegian eguaztenean bozkatu zuten. Neurri horrek 2.604 bazkideri eragingo die. Diru hori erretiroak finantzatzeko erabiliko dute.

## Gipuzkoa Aurrerako enpresa bilera

Gipuzkoa Aurrera egitasmoaren baitan enpresa topaketa egin zuten martitzenean Eibarren. Diputatu Nagusia, Kutxako presidentea eta Adegiko presidentea Debarroko enpresetako ordezkariekin batzartu ziren; guztira 50 inguru. Bileraren helburua izan zen Gipuzkoako enpresa eta ekonomiaren egoeraren gaineko diagnosiaren berri ematea eta egoerari aurre egiteko Gipuzkoa Aurreratik hartu diren neurriak azaltzea, eta enpresaburuen kezkak zuzenean jasotzea.



GOIATZ ARANA



Ramon Kortabarria, Bergarako egoitzan. I.A.



Andoni Erdabide, Toyota auto etxeko saltzailea, Bergaran. GOIENKARIA

KRISIA INDUSTRIAN

**> TTT ENPRESAN, TAILERREKO ZATI BAT GELDI**
Lan gutxiago dagoela sumatu dute, noski. "Automobilgintzarekin eta eraikuntzarekin du zerikusia batik bat krisiak, baina arlo guztietan ikusten da beherakada, batez ere urritik aurrera. Aeronautikan, esaterako, hegazkin batzuetan atzerapena dago", esan digu Bergarako TTT enpresako gerente Imanol Larrañagak. Krisi zantzu horien aurrean instalazio batzuk gelditu dituzte, tailerreko zati bat, hain zuzen ere. "Orain %20 baxuago ibiliko gara, gutxi gorabehera, baina oraindik langileak erregulatzeko neurririk ez dugu hartu. Ez dugu produktu propiorik egiten eta bezeroen araberakoa da dena. Esaterako, atzo entregatzekoak ziren piezen eskaera gaur bertan behera utzen dute eta hori da egoeraren isla", dio Larrañagak.

**> HIJOS DE GARAY LETOI FABRIKAN TXANDA MURRIZKETAK**
Lana jaitsi dela sumatu dute Oñatiko Hijos de Garay enpresan ere. "Gurean eskaerak jaitsi egin dira. Bi lan lerro dauzkagu, hodiena eta, bestetik, letoizko barrena eta perfilena. Automobilen kasuan, Europako multinazionalen mende egonik, oraindik jaitsiera nabarmena ez da egon. Baina eskaerak jaitsiz doazenez behin-behineko langileak mantentzeko aukera zaila da. Krisia hasi baino ez da egin, baina datorren urtean larriena iritsiko dela uste dugu", dio Garayko marketing zuzendari Jose Creixellek. Oraindik ez da langile murrizketarik egon kontratuak ez direlako amaitu, baina laneko txandaren bat murriztu dute letoi fabrikan metalgaldagintzako txanda bat kendu da, hiru izatetik bira jaitsiz . "Gure bezeroak sarrailagintza enpresak eta linea zuriko elektratresnak egiten dituzten enpresak dira hein handi batean. Eraikuntza geldi dagoen neurrian enpresa horietan eragina izan du eta ondorioz, gurean", dio Creixellek.

**> GAUEKO TXANDA KENDU DUTE METAGRAN**
"Krisia leku guztietan igartzen da eta industrian ere, dudarik gabe", esan digu Metagrako gerente Migel Moñuxek. Eurenean lana jaitsi dela eta datozen hilabeteetarako eskariak gutxitu egin direla ere esan digu. "Oraindik salmentetan ez da igarri, baina azaroan eta, batik bat, abenduan sumatuko dugu. Automobilgintza munduaren mende gaude eta eskaeretan %20-25eko jaitsiera izango dela uste dugu. Izan ere, jaso dugun informazioaren arabera bezero askok planta batzuk itxiko ditu, txandak kendu, Gabonetako oporrak luzatu...". Metagran ere krisiaren eraginez egon da murrizketarik: "Urte hasieran gauez lanean jardun dugu eta orain txanda kendu eta bi txandatan dihardugu, eta makina batzuetan, txanda bakarrean". Oraindik erabakitzeke daukate zein neurri hartu baina zerbait egin beharko dutela dio: "Aukera bat da oporrak aurreratzea edo aldaketak egitea jai egunetan. Urtarrilera arte itxoin beharko dugu. Bien bitartean jendea leku batetik bestera mugitzen dihardugu beharren arabera".

lukete; kontuan hartuta hemen biztanle gutxiago garela, arazoa larria da. Euskal Herrian etxebizitza asko dago baina ez da hainbesterako. Hala ere, merkatua bakarra da, eta prezioek gora egin dutenean, toki guztietan igo dira, eta behera ere, berdin. Etxebizitzak saltzea bada irtenbidea, bide bakarra prezioak erabat jaistea da. Ez dakit horretara iritsiko garen hemen".

## Jose Ramon Kortabarria

LAB SINDIKATUKO ORDEZKARIA

### "Krisiak ezustean hartu ditu enpresaburuak, baina ondorioak langileek pairatu dituzte"

Krisiaren eragina honela azaldu digu LAB sindikatuko ibarreko ordezkari Jose Ramon Kortabarriak: "Uda aurretik zarata ugari, baina ezer zehatzik ez eta orain, azken 15 egunetan, krisiak sekulako abiada hartu du".

Finantza krisiaren harira hasitako arazoak goia jo duela dio: "Sistemak berak erabili du sistema bat egoera ekonomikoa onera etortzeko. Sistema kapitalistak tarteka krisi baten beharra izaten duela diote, eta oraingoan hala izan da. Azken 15 urteak irabazi-urteak izan dira, eta goi mailan beharbada jakinaren gainean ziren, baina enpresariak krisi egoerak ezustean harrapatu dituela dirudi. Baina berriz ere ondorioak erabat pairatzen dihardutenak langileak direla".

Hori guztia salatzeko LABek kanpaina egingo du azaroaren 6tik abenduaren 5era bitartean. "Erakundeei kritika egingo diegu orain arte hartutako neurria izan delako bankuei dirua injektatzea, eta langileen gainean ez dutelako neurririk hartu. Bestalde, jakinarazi nahi dugu beste sistema baten bitartez egon daitekeela aukera lana eta aberastasuna banatzeko", azaldu digu.

Egoerak txarrera egingo duela uste du: "Orain arte enpresek neurri malguak hartu dituzte: oporretatik egun batzuk kendu, etxera joan eta berreskuratu... baina horrelako neurriekin denbora askoan ezin da jarraitu eta hemendik aurrera etorriko dira enplegu-erregulazioak eta horrelakoak".

## Inazio Gereta

SORALUZE ETXEKO OSTALARIA

### "Ezin ditut menuak merkatu; saiatuko naiz maila berean genero merkeagoa aurkitzen "

Sektorean gorabehera handiak dauden arren, beherakada nabarmenik ez dutela igarri dio Soraluze jatetxe eta hoteleko Inazio Geretak. "Obrak gelditu badira edo langileak bota badituzte, ez datoz gurera bazkaltzera. Martxoan gehiago igarriko dugula uste dut".

Neurri berezirik ez dutela hartu dio: "Ezin ditut menuak merkatu eta dilista berberak ematen jarraituko dut. Beharbada saiatuko naiz genero merkeagoa aurkitzen, maila mantenduz".

Euren sektorean zalantza da nagusi: "Enpresa eta eraikuntza munduko jendea dira gure bezeroak, batik bat, izan ere, hala nahi den arren, turismotik ez dugu askorik ateratzen".

Okerragoa izango zela zirudien arren, oraindik eragina ez dutela sumatu dio: "Zuloa denok daukagu poltsikoan, askotan gure aukeren gainetik bizi garelako, baina orain kontua da banketxeek ez dutela dirurik ematen. Hala ere, trago bat hartzeko denok daukagu diru apur bat, bestelako gastuak murrizten ditugu beharbada. Ezagutu ditut krisi garaietan lan asko egiten zuten tabernak", dio Geretak.

## Arcelor Mittalen produkzioa, jaitsi

Bergaran lantegia duen Arcelor Mittalek jakinarazi du krisiaren aurrean neurriak azkar hartu behar izan dituztela. Autoen produkzioa eta etxeen eraikuntza murriztuta altzairu eskaria ere jaitsi egin delako. Neurrietariko bat izan da produkzioa %35 murriztea irabaziei eusteko, azken hilabeteetan altzairuaren prezioa jaitsi egin baita. Urtea amaitu bitartean egingo dute murrizketa lantegi guztien artean banatuta eta ez dute itxierarik edo kaleratzerik aurreikusi.

## Lana bai, baina banketxeak, arazo

Lana gutxitu den arren, oraindik eurek badutela esan digu Utillajes Moldcam enpresako finantza zuzendari Iñaki Esnaolak. "Langile murrizketarik ez dugu egin; alderantziz, orain dela bi aste berri bat hartu genuen". Martxa onean doazen seinale. Banketxeekin eta tesoreria arloan arazo gehiago dutela esan digu: "Esaterako, bezeroek berandu ordaintzen dute. Hor sumatu dugu krisiaren eragina, baina oraingoz arazo larrietara iritsi gabe".

## Leku aldatzea Polmetasan

Industriak sumatu du lan jaitsiera eta enpresetan eragina askotarikoa da. Polmetasan, esaterako, une berezian harrapatu ditu, enpresaren leku aldaketan, hain zuzen ere. "Neurririk oraindik ez dugu hartu baina lekualdatzea egiteko langileak lanik gabe egin litezke. Krisiarengatik baino, neurria leku aldaketagatik litzateke", dio giza baliabideetako arduradun Anton Imazek. "Salmentak asko jaitsi dira eta material guztia ezin da stock-era bidali, hortaz neurriak hartu beharko dira".

# KIBUC GURE AMETSA ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK
# WWW.KIBUC.COM
# NIRE ETXEA ♥ DUT

**AZPEITIAN GAUDE, ALTZARIAREN SORLEKUAN, ETA ARLO HONETAN 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU.**

**4.000 METRO KOADROTIK GORAKO GUZTIZ ERABERRITUTAKO ERAKUSKETA DUGU.**

**ESKATU ORDUA ETA GURE DEKORATZAILE PROFESIONALEN AHOLKULARITZA.**

**ESKATU PARKING ZERBITZU PRIBATUA.**




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com

**EKONOMIA** > FAGORREN EGOERA

# Fagor Etxetresnetakoek ez dute jasoko Gabonetako pagarik

Aurrezten dutenarekin, epe aurretik erretiratu gura dituzten 128 langileen erretiroak finantzatuko dituzte

Bozketako datu zehatzak gaur jakinaraziko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Arrasateko Fagor Etxetresnak enpresako 3.500 langileek batzar garrantzitsua egin zuten martitzenean, eta bozketa bidez, erabaki inportanteak hartu zituzten. Besteak beste, Gabonetako pagari uko egitea erabaki zuten. Enpresak, hortik jasotako diruarekin, aldez aurretik erretiratu gura dituen 128 langileen erretiroak finantzatu gura ditu. Era berean, martitzenean egindako ezohiko batzarrean beste gai baten inguruan ere bozkatu zuten: lan faltaren aurrean galdutako orduak langile guztien artean banatzea. Gai horren inguruan hartutako erabakia gaur jakinaraziko dute.

Bestalde, Basauriko plantako 400 langileek eguaztenean egin zuten bozketa.

Bi lantegietako langileek egindako bozketaren emaitzak hartuko dituzte kontuan, bozkatutako proposamenak ontzat hartu edo ez erabakitzeko.

**NEURRI ZORROTZAK**

Fagor Etxetresnak enpresako arduradunek bilera egin zuten astelehenean Bilbon, eta enpresak bizi duen egoera "kezkagarria" dela esan zuten. Krisiari aurre egiteko gastuak murriztea proposatu zuten: beharrekoa den enpresetan soldatak apalduz; edolanpostuak merkatuaren beharretara moldatuz.

Fagor Etxetresnak, urteko lehen seihilekoan, 2007an baino %98 gutxiago irabazi zuela diote arduradunek. Urrian, 150 lanpostu kendu beharrean aurkitzen zirela esan zuten, eta bi irtenbide proposatu zituzten: alde batetik, 55 urtetik gorako langileak epearen aurretik erretiratzea; eta, beste alde batetik, Mondragon taldeko beste enpresa batzuetan kontratatzea.

Bestalde, krisiari aurre egiteko "zuhurtasunezko" neurriak hartzeko proposamena egin die Mondragon taldeko presidente Jose Maria Aldekoak, taldeko 270 enpresetako arduradunei.

DATUA

**3.500**

**LANGILE**

Fagor Etxetresnak enpresako 3.500 langilek zuten botoa emateko eskubidea martitzeneko bileran. Uarkapen egindako batzarrean, 2.500 langile inguru egon ziren erabaki inportateak hartzeko.

**IKERKETA**

## Gripea garaiz aurkitzeko sistema

Ikerlan-IK4, Bioef eta Gaiker Ik-4 dabiltza egitasmoa lantzen

**M.B.** > ARRASATE

Gizakion eta hegaztien gripea garaiz antzemateko sistema berria lantzen dihardute. Hain zuzen ere, Ikerlan-IK4, Bioef eta Gaiker-IK4 dabiltza proiektu berriarekin. Gripea antzemateko prozesuan, denbora murriztu gura dute sistema berriarekin: egun, 24 ordu behar dituzte gripea detektatzeko, eta sistema berriarekin 30 eta 60 minutu artean bakarrik. Sistema berriaren aurrekontua lau milioi eurokoa da.

**ANALISIAK EDOZEIN TOKITAN**

Portfastflu izeneko proiektuan teknologia aurreratuak dituen txartelarekin dihardute lanean. Gizakion edo hegaztien gripea garaiz antzemateko analisia egiten dute, eta positiboa bada, emaitzak GPS bidez bidaliko dituzte Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) dituen 112 laborategietako batera. Bestalde, analisiak egiteko, ez da derrigorrean osasun zentrora joan behar. Horren harira, analisiak egiteko sistema eramangarria denez, edozein tokitan egin dezakete; besteak beste, aireportuetan, ikastetxeetan, hirugarren adineko egoitzetan eta hegazti-granjetan.

Era berean, diagnostiko azkarrarekin, gripeari aurre egiteko txertoak egiteko prozesuan denbora aurreztu gura dute.

**BIRZIKLAPENA** > OLIOA

## Etxeko olioa birziklatzeko sistema, BEC-eko azokan

Garapen Iraunkorreko GEO2 azoka egin dute asteon Bilboko erakustazokan

**M.B.** > ARRASATE

Arrasaten, duela bi urtetik etxeko olioa birziklatzeko erabiltzen duten sistema, Garapen Iraunkorreko azokan aurkeztu dute asteon. Hain zuzen ere, MUko Goi Eskola Politeknikoko ikasleek diseinatutako sistema GEO2 ingurumenari eta birziklatzeari buruzko nazioarteko lehen azokan, MUk jarritako standean erakutsi dute.

**HAINBAT UDALEN INTERESA**

Etxeko olioa birziklatzeko sistemak sarrera eta irteera zirkuituak ditu; eta horri esker, erabiltzaileek, erabilitako olioa duen potea edukiontzian utzi eta garbi dagoen beste bat har dezakete.

Euskal Herriko hainbat Udalek sistema hori euren herrietan erabiltzeko eta ingurumena zaintzen laguntzeko interesa agertu dute.




Etxean erabilitako olioa birziklatzeko sistema Arrasaten erabiltzen dute. GOIENKARIA

**JARDUNALDIA:**
**KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIEN LEGE BERRIA**

Antolatzailea:

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babesleak:

Garapen
Valora
Gizarte funtsak zure ekorkizunean inbertitzen du
El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro

- **Nori zuzendua:** 2 bazkide edo gehiago dituzten Debagoieneko enpresa txikiak.
- **Eguna:** 2008ko azaroak 12.
- **Tokia:** Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa etorbidea 17, 2. solairua. Arrasate.
- **Ordutegia:** 17:30 - 19:30.
- **Aurkezlea:** Norberto Alboniga. Elkarlan S. Koop.
- **Egitaraua:**
  - 2 bazkide: Kooperatiba 1.
  - Gizarte Segurantzako erregimena hautatzeko aukera.
  - Kooperatiben abantaila fiskalak.
  - Kontratazioko mugen zabaltzea.
  - Eraketa eta eraldaketa prozesua.
  - Eraketa eta eraldaketarako laguntzak.
  - Galde-eskeak.

**Izena emateko edo informazioa eskatzeko:** Tel.: 943 79 30 90. e-posta: *enpresa@debagoiena.net*

(Jardunaldi hau Valora proiektuko egitasmo bat da. POPV 2007-2013. EGFk %50ean kofinantziatua)

**AUZIPETUAK** > KARTZELA ZIGORRA

# Eskoriatzako alkate ohiari, 21 hilabeteko kartzela zigorra

Eskoriatzako alkate ohiari eta Elizateetako zinegotziari, urte eta 9 hilabetetako zigorra

Dokumentu publikoak faltsutzearren, ezingo dute Udaleko lan edo kargurik izan epe horretan

**IKER BARANDIARAN/NEREA MENOR**
> ESKORIATZA

Gipuzkoako Audientzia Probintzialak urte bateko eta bederatzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri die Eskoriatzako alkate ohi Juan Carlos Bengoari eta Elizateetako zinegotzi ohi Javier Villarri, dokumentu publikoak faltsutzearren. Hala ere, bi urte baino gutxiagoko zigorra izanik, eta aurrekaririk ez dagoenez, ez dituzte kartzelaratuko; Baina, 21 hilabetetako epe horretan ezingo dute lan edo kargu publikorik hartu Udalean. Bengoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, EAko batzarkidea da gaur egun.

Auziak azaltzen duenaren arabera, 2005eko ekainaren 27an, Eibar-Gasteiz autobidearen Arlaban eta Eskoriatza arteko tramuaren erakusketa publikoa bukatu beharreko egunean, Eskoriatzako Udaleko Azpiegitura batzordeak erabaki zuen erakusketako epea luzatzeko eskatzea.

Udalaren eskaera hori Aldundira uztailaren 8an heldu zen, eta Audientzia Probintzialak jakinarazi du Udaleko Azpiegitura batzordeak erabaki hori hartu zuenetik dokumentu horri Udaletik irteera ofiziala eman zioten arte 10 egun pasa zirela. Hortaz, epaiak dio bi ordezkariek erabaki horren datak faltsutu egin zituztela.

**FISKALAREN AKUSAZIOA**

Hasiera baten, Bergarako epaitegian fiskalak eta epaileak ez zuten deliturik antzeman. Baina, Aldundiak berriro eraman zuen auzitara, Donostiara. Horren ostean, akusazio partikularra, Aldundia, kasutik erretiratu zen, baina fiskalak aurrera egin zuen. 2008ko apirilean deklaratzera deitu zituzten, baina zigorrak 6 urtera artekoak izan zitezkeenez, kasua Audientzia Probintziara pasatu zuten.


Juan Carlos Bengoa, Eskoriatzako udaletxe parean. GOIENKARIA.

**AUZIPETUEN ADIERAZPENAK**

Javier Villarrek oraindik sententzia irakurri ez duela azaldu digu, eta apelatu egin behar dutela, "epaileak delitua dagoela esan du. Ez gaude horrekin konforme eta apelatu egin behar dugu". Juan Carlos Bengoari dagokionez, adierazpenik egin nahi ez duela esan digu.

> ARANTZAZU

### Gaur Fundazioa, Arantzazuko santutegia bultzatzeko

Gaur Fundazioren aurkezpena astelehenean egin zen Donostian. Foru Aldundiak, Oñatiko udalak, Mondragon taldeak eta frantziskotarrek hartuko dute parte fundazioan. Gaurren jarduerak kulturan, naturan eta jendearentzako arreta zerbitzuetan oinarrituko dira. Gandiaga Topagunea eta fedea bezalako erreferenteak bultzatu nahi dituzte.

Datozen hamarkadetan Arantzazu ekonomia eta gizarte gune bideragarri batean bihurtu nahi dute.

> ATXILOTUAK

### Zuhaitz Errasti Espainaratu dute Frantziatik

Zuhaitz Errasti Goiti Frantziatik Espainiako kartzeletara ekarri zuten Espainiako poliziako agenteek eguaztenean. 2005eko uztailean Brive la Gaillarde (Frantzia) udalerriko merkataritza zentro batean atxilotu zuten gazte aretxabaletarra, Joseba Troitiñorekin batera.

Beste kargu batzuen artean, terrorismoa goraipatzea egotzita, lau urteko kartzela zigorra ezarri zion Pariseko Zentzategi Auzitegiak.

**ALDUNDIA** > 2009 AURREKONTUA

# Aldundiak 73 milioiko zorra izango du

Diru-sarreren jaitsieraren ondorioz, krisiari aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundia zorraz baliatu da 2009. urteko aurrekontuetan

**N.M .** > BERGARA

14 urtetan zor gabe egon ostean, Gipuzkoako Foru Aldundia 73 milioiko zorraz baliatuko da 2009an; Aurretik kalkulatutakoa baino 20 milioi euro gehiago, aurrekontu osoaren %2,4a. 2009rako 895 milioi euroko aurrekontua izango dute herrialdea gobernatzeko, aurten baino %13,9 gehiago. Hala ere, ez zaie erraza egingo, sarrera fiskalak etengabe jaisten dabiltza-eta. Aldundia, 2009ko aurrekontuen proiektua osatzeko, %4,3ko langabezia tasan oinarritu da eta %1,5eko hazkunde tasan. Krisiari aurre egiteko ondorengo formula abiarazi du Aldundiak: inbertsio handiagoa, ohiko gastuaren gutxiagotzea eta zergaren baliabidea.

Inbertsioen igoerak, hala nola obra publikoa, lanpostuen murrizketari aurre egiteko balioko du Foru Aldundiaren ustez. Enplegua ekonomiaren oinarrizko zutabe izanda, bilketa fiskalean igoera eragin dezake.

**GASTU PUBLIKOA**

Gizarte politiken alorrean %14,6 hasiko da gastu publikoa: 329.059.000 euro zuzenduko dituzte bertara; departamentu guztien artean gasturik altuena. 187.199.000 euro, Bide azpiegituren departamentura zuzenduko dituzte, bigarrenak izango dira zerrendan. Aipatutako kopuruari Bidegi –azpiegituren agentzia publikoak– ematen dituen 306 milioi euro batu behar dizkiogu.

2008an baino gutxiago jasoko duten departamentuak ere badaude. %56 gutxiago jasoko du departamentuen askotariko gastuak deituriko alorrak; eta %12 gutxiago Batzar Nagusiek.

**Gipuzkoako 2009ko aurrekontua**

| DEPARTAMENTUAK | 2008 AURREKONTUA | 2009 AURREKONTUA | ALDEA |
|---|---|---|---|
| Ogasuna eta Finantzak | 44.769.000 € | 50.404.000 € | + % 12,5 |
| Bide azpiegiturak | 173.856.000 € | 187.199.000 € | + % 7 |
| Garapen iraunkorra | 46.586.000 € | 57.288.000 € | + % 23 |
| Gizarte politikak | 287.250.000 € | 329.059.000 € | + % 14 |

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
JUAN CARLOS PEREZ ZUZENEAN
**Eguna:** Azaroak 23, domeka.
**Ordua:** 20:00etan,
Sarrerak salgai dagoeneko.

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85



Irudian, Josemari Velez de Mendizabal. GOIENKARIA

**Josemari Velez de Mendizabal** > Idazlea eta historiagilea

# "Euskal Herriko ikuspegi zabala edukiko dugu behingoz 'Badok Hamahiru' liburuarekin"

UBANE MADERA/MIRIAN BITERI
> ARRASATE

**Josemari Velez de Mendizabal idazle eta historiagileak *Badok Hamahiru* izeneko liburua aurkeztu du asteon Donostian. Datozen lerroetan argitalpen horren gainean zabal hitz egin digu aramaioarrak.**

**Izenburu esanguratsua aukeratu duzu liburu berri horretarako. Zer dela-eta?**

*Ez dok Hamahiru* lelotik dator, noski. Euskal Herriak garbi asko azaldu du askotan hamahiru goi izar badituela eta nire asmoa hori islatzea izan da. Aurten elkarrizketa horiekin hasi nintzenean jakin banekien hamahiru pertsonalitate nagusirengana jotzen ari nintzela. Esan beharra dago Benito Lertxundiren bedeinkapenarekin erabili dudala titulu hori.

**Zergatik aukeratu dituzu hamahiru pertsonaia?**

Kasualitatez. Joan zen urtean, argitalpen batzordean erabaki genuen *Euskonews* agerkai digitalaren 10. urteurrena ospatu behar genuela. Azken 40 urteotan Euskal Herriaren gaineko erradiografia modukoa egitea interesgarria izan zitekeela bota nuen orduan. Ideia ona iruditu zitzaien eta interesgarritzat jotzen genituen 20 lagunen izena bota genituen. Horietatik, hamabi aukeratu behar genituen, urteak hamabi hilabete ditu-eta. Hilean behin elkarrizketa sakona egiteko asmoa genuen. Azkenean, hamahirugarrena sortzea ere pentsatu genuen. Kasualitatez etorri zen hamahirugarrena. Ondo etorri zaigu gero liburuaren izena aukeratzeko.

**Zer nolako pertsonaiak aukeratu dituzue erradiografia egiterakoan?**

Lehendabizikoa Jose Mari Ormaetxea arrasatearra izan zen; Mondragon taldean ezinbesteko esponentea da eta berarekin enpresa eta ekonomia munduaz jardun nuen. Jarraian iritsi ziren Carlos Garaikoetxea politikaria, Begoña Amunarriz feminista, Javier Elzo soziologoa, Mirentxu Purroy kazetaria, Jean Haritchalar euskaltzaina, Jose Angel Iribar kirolaria, Pedro Miguel Etxenike zientzialaria, Luis Irizar sukaldaria, Jose Maria Setien gotzain ohia, Eusko Ikaskuntzako presidente Javier Retegi, Mariasun Landa idazlea eta Benito Lertxundi abeslari bera.

**Arlo guztiak jorratu dituzue, beraz, liburu horretan...**

Bai, hala da. Ziurrenik kanpoan geratuko ziren beste hamahiru izen daude baina, ahalik eta arlo gehienak lantzen saiatu gara. Elkarrizketatu horiekin guztiekin oso gustura geratu gara.

> "Euskal Herriak garbi asko azaldu du askotan hamahiru goi izar badituela"

> "Hasieran hamabi lagun aukeratu behar genituen. Kasualitatez etorri zen hamahirugarrena"

> "Ziurrenik kanpoan geratu diren hamahiru izen daude; saiatu gara arlo gehienak sartzen"

**Zelakoa da liburua?**

Egia esaten badizut, ni ere txundituta geratu naiz, liburu polita atera delako. Urtarriletik ekin genion elkarrizketak *Euskonews*-en, Eusko Ikaskuntzaren agerkari elektronikoan, argitaratzeari. Horren harira, gogora ekarri behar da aldizkari hori euskal kulturaren erreferente bihurtu da hamar urtetan.

Pertsonaia bakoitzarekin horri hobeto zegokion hizkuntzan egin bagenien elkarrizketa, Interneten, gero, bertsio originala eta bi itzulpen jarri ditugu. Hortaz, liburuak bertsio originala jasotzen du eta bi DVDetan itzulpenak eta ordubete baino gehiago irauten duten hamahiru bideo daude.

**Horrek guztiak lan asko eskatzen du. Ez da samurra izango horrelako liburu bat egitea...**

Ez da erraza, ez. Dirua eta esfortzua inbertitu dugu horretan. Baina, merezi duela iruditzen zait. Behingoz Euskal Herriko gizartearen gaineko ikuspegi zabala edukiko dugu. Testigantzak hor daude. Internetez gain, apaletan ere edukiko dugu.

**Non eskuratu ahal izango dugu argitalpena?**

Eusko Ikaskuntzak dituen ohiko bideetatik lortu daiteke *Badok Hamahiru* liburua. Hau da, betiko liburu dendetan erosi ahal izango da. Horretaz aparte, Durangoko azokan ere guztien eskura egongo da.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

SARRERAK
Kafe antzokia espaloia Elgeta
JUAN CARLOS PEREZ-en KONTZERTURAKO SARRERAK

SARRERAK
San Sebastian Gipuzkoa Basket SAD
BRUESA GBC-ViveMenorca
BRUESA GBC-Pamesa

KAMERA
EROSKI zurekin


KAMISETA
DANBAKA

DANBAKAKO KAMISETA 1

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA"
TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).

La Perla


Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak

## gure artekoak

**VOLKSWAGEN PASSAT CC** > Volkswagen etxeak orain dela hiru hilabete merkaturatutako autoa da Passat CC berria. Aseginolaza etxeko Inmak Gomezek aurkeztu digu Bergarara ekarri duten Passat CC lehen autoa.

**Inma Gomez** > Aseginolaza kontzesionarioko komertziala

# "Deportiboa eta era berean dotorea da Passat CC autoa"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Hiru hilabete dira Volkswagen etxeak Passat CC merkaturatu zuela; hala, Aseginolaza kontzesionarioak Bergarara ekarri duen lehen autoa erakutsi digu Inma Gomez komertzialak.

"Diseinua da autoaren ezaugarri azpimarragarriena; dotorea, eta era berean deportiboa da autoaren diseinua", dio Gomezek. Gainera, puntako teknologia autoaren beharretara jarri du Volkswagen etxeak. Hortaz, diseinuaz gain, segurtasuna eta prestazioak ere garrantzitsuak dira Passat CC berrian.



Inma Gomez, Passat CC autoarekin, Aseginolaza aurrean. A.E.

**NORABIDEA ZUZENTZEN DU**

Segurtasunari dagokionez, *Lane Assist* sistema berria da aipagarriena: "Mundu mailan sistema berri hau duen lehen autoa da Passat CC". Segurtasun sistema honen bitartez, kamera batek errepideko marrak antzematen ditu, eta autoak marra horiek gainditzen baditu, norabidea zuzendu eta bere bidean jartzen du autoa.

Bestalde, ACC sistemak aurreko autoarekiko distantzia neurtzen du eta horren arabera abiadura kontrolatzen du. Gainera, *Front Assist* sistemak gerta daitekeen kolpe baterako prestatzen du autoaren balazta sistema.

**Passat CC 2.0 TDI 140 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 35.000 euro |
| Luzera | 4,80 metro |
| Zabalera | 1,85 metro |
| Maletategia | 452 litro[1] |
| Kontsumoa | 5,8 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 213 km/h[3] |
| Otik 100era | 9,8 seg. |
| CO2 isurketak | 153 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Esan behar da, Passat berriak oinezkoekin ere pentsatu duela: "Harizko materialak erabili dira kolpe-leungailuan; hala, oinezkoen lesio arriskuak gutxitu gura dira", dio Gomezek.

**MOTORRAK**

Bost motor aukera daude: gasolinazko 160, 200 eta 300 zaldi potentziakoak eta dieselezko 140 eta 170 zaldi potentziakoak. Sei martxako aldaketa kaxa dauka –dieselezkoa automatikoa izan daiteke–. Bost atetako autoa da eta lau pertsonentzat da egokia. Maletategiak 452 litroko edukiera du.

## etxeko leihotik



**Leire Kortabarria** > 'lkortabarria@goiena.com'

# Watt gutxiagoko Gabonak aurten Oñatin

Azken urteotan, Oñati nabarmendu da –beste gauza batzuen artean– Gabonetako kale-apaingarriengatik: ugariak izaten ziren, Udalak horretan inbertitu gura izateagatik. Aurten, baina, herriko kaleak ez dira hain argitsu izango lehen ipintzen zen bonbilla kopuru harrigarriaren eraginez; izan ere, ingurumenarekiko eta energia aurrezpenaren inguruko arrazoiengatik –Agenda 21 programan batuta– eta arrazoi ekonomikoen poderioz ere, aurten nabarmen egin du behera apaingarri eta bonbilla kopuruak: lehen Kale Barri baten 30 bat arku bazeuden, aurten, horien herena; udaletxeko fatxadak ere ez du apaingarrik izango; eta plazako izeiak ere bonbilla gutxiagoren pisua jasan beharko du. Eurotan, honela itzultzen da hori: orain bi urte, 25.000 euro inbertitu ziren; iaz, 18.000; eta aurten, 14.000.

**"Bejondeiola Oñatiko Udalari Gabonetako apaingarriak gutxitzeagatik"**

Bada, bejondeiola Oñatiko Udalari zuhurtasun eta jasangarritasun erabaki hori hartzeagatik, guztiz zentzuzkoa baita edozein udalek lehentasunak ezartzea, batez ere, krisi garaian. Gainera, Gabonetako izpirituak inoiz ez du zerikusirik izan kaleen luminiszentziarekin edo bonbilla baten watt kopuruarekin.

**> Inbertsio** ona izan daiteke Olentzerorekin egoteko zain egongo den jendearentzako berogailutxo batzuk-edo jartzea, Foruen plazari buelta emateko moduko ilara egin zuten-eta iaz ume eta aita-amek.

**> Hori bai:** mesedez, Olakuako ahateetan urtero egoten den Jaiotza –bere argi xumearekin– ez dezatela ken! Hori bai dela apaingarri polita eta xarmaz betetakoa. Gabonak zergatik diren gogorarazten digu.

## begi-bistan




**Sekulako onddoak (Bergara) 2008/11/04**

**Argazkia:** Iñaki Umerez.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Aurtengo denboraldia oso makala izaten ari da onddoetarako. Hori da adituek diotena. Hala ere, badira onddo ederrak hartu dituztenak: Bergarako Iñaki Umerezek 1,250 kilokoa hartu du.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Maria Urtzelai**
AKTOREA

Bergarako Maria Urtzelai aktoreak ETBko *Goenkale* telesaileko hainbat kapitulutan parte hartu du. Antzerkian ibilitakoa da Urtzelai. Gainera, Maria Cruickshank oñatiarra ere telesail berean dabil lanean. Itsaso kubatarraren pertsonaia egiten du.



**Juan Martin Elexpuru**
IDAZLEA

Juan Martin Elexpuruk *Tartufo /Zekena* (Moliére) lana euskaratu du. Erriman idatzitako antzerki lana da –munduan gehien antzeztu dena–. Frantsesetik euskaratu du eta hitz errimatuei eustea erabaki du. Literatura Unibertsala bildumak argitaratu du.



**Asier Garitano**
FUTBOLARI OHIA

Asier Garitano bergararra Alacant taldeko entrenatzailea izan da azken hiru jardunaldietan; baina, emaitza txarrak tarteko, kargutik kendu dute Garitano. Aurrerantzean, Nino Lema izango da taldeko entrenatzailea. Alacant sailkapeneko 21. postuan dago.

Hirugarren adinekoei zuzendutako ekimenak antolatzeko helburuarekin elkarte berria sortu dute Arrasaten: Nibe (Nagusi Izanez Bizi Elkartea). Dementziaren gaineko ikastaroak iragarri dituzte. Hain zuzen ere, dementzia fase arina edo ertaina jasaten dituztenei, autonomia maila bat dutenei zuzendutako ikastaroak dira. Abenduan lanean hastekoak dira.

**Goretti Gozalo** > Nibe elkartekoa

# "65 urtetik gorakoen artean %10-15 hasten da dementzia arazoekin"

U. MADERA/E. MENDIBIL > ARRASATE

**Arrasateko Nibe elkarteak dementziaren gaineko ikastaroak iragarri ditu. Alzheimer gaixoei zuzendutakoak dira, baina dementzia fase arina edo ertaina jasaten dituztenei. Sei hilabeteko ikastaroak izango dira eta Karmele Barrutia psikologoak, Leire Pagaldai musikoterapeuta eta hezitzaileak eta Goretti Gozalo fisioterapeutak gidatuko dituzte saioak. Hain zuzen ere, gaixoen alderdi kognitiboa, emozionala eta fisikoa landu nahi dituzte. Goretti Gozalorekin hitz egin dugu.**

**Zer da Nibe elkartea?**

Nagusiei zuzendutako Arrasaten sortu berri dugun elkartea da Nibe (Nagusi Izanez Bizi Elkartea). Hirugarren adinekoei zuzendutako ekimenak antolatzea da gure helburu nagusia eta, hasteko, dementziarekin gaineko ikastaroak egitea pentsatu dugu. Etorkizunean bestelako jarduerak ere egin nahi genituzke. Osasunarekin eta buruko gaixotasunekin zerikusia duten ekimenekin eskarmentua badugu aurretik eta esperientzia horretatik sortu zen elkartea sortzeko ideia. Taldea eratzeko prozesuan gaude orain eta neurologoekin, udalekin, gizarte laguntzaileekin eta komunikabideekin harremanetan jardun dugu, jardueren berri emateko.

**Nori zuzenduta daude dementziaren gaineko estimulazio programa horiek?**

Nagusiki dementzia fase arina edo ertaina jasaten dituztenei, hau da, autonomia maila bat badutenei. Eguneko Zentroak dependentzia maila altua duten gaixoekin beteta daude gaur egun, eta ikastaro hauekin esparrua zabaldu nahi dugu, dementzia sintomak azaldu izan dituztenengana heldu nahian. Dementzia duten gaixoekin botikak agintzea da irtenbide ohikoena gaur, baina tailerrak onuragarriak direla frogatu da. Beraz, gaitza ahal den neurrian prebenitzea da gure asmoa, gaixoen arlo kognitiboa, emozionala eta fisikoa landuz.

**Horrelako estimulazio programak antolatzeko premia badagoela ikusi duzue, beraz.**

Neurologoekin hitz egin eta ibarreko jendeak Gasteizera joateko ohitura duela esan digute, Arrasaten ez dago-eta neurologorik. Bestalde, Eguneko Zentroak nahiko zorrotzak dira ordutegiari dagokionean eta autonomia minimo bat mantentzen dutenendako aukera handirik ez dagoela sumatu genuen. Zenbait ikerketaren arabera, 65 urtetik gorakoen artean %10-15 hasten da dementzia arazoekin, eta hor badago jende mordo bat prebentzioa lantzeko moduan egon daitekeena. Neuronak *lokartu* aurretik badago aurretik lantzea, estimulatzea eta indartzea. Era berean, galera prozesu hori neurtzen hasteko egokiak izan daitezke.

**Zelan jakin dezakegu gaixoen dementziaren maila?**

Horrelako sintomak izan dituztenek medikuarengana jotzen dute lehenbizi eta hark egiten du lehenbiziko balorazioa. Dena dela, ikastaroekin hasi baino lehen guk geuk balorazioa egingo genuke, tailerretan parte hartzeko pertsona egokia den ala ez erabakitzeko. Ondoren, ikastaroarekin hasiko ginateke. Sei hilabeteko iraupena izango du eta asmoa zera da: aste bakoitzean hiru ordu eskaintzea. Landuko dugun arlo bakoitzari (fisikoari, kognitiboari eta emozionalari) ordubete eskainiko genioke astero eta hileroko kuota 50 eurokoa izango da. Bertan parte hartzeko interesa daukatenek ondoko telefono zenbakira deitu dezakete: 680 85 47 02. Gure asmoa abenduan edo urtarrilean tailerrekin hastea izango litzateke.

**Saioak non egingo dituzuen badakizue?**

Oraindik ez. Deialdia Debagoien osora zabaldu dugu eta eskaeren arabera erabakiko dugun zein herritan egingo diren saioak.

**Ikastaroaren amaieran balorazioaren garrantzia azpimarratu duzue...**

Bai, horrela da. Ikastaroa sei hilabetekoa izateak balorazioarekin dauka zerikusia. Hain zuzen ere, denbora minimo bat behar da onurak eta emaitzak jakin ahal izateko eta hori da gure helburuetako bat, ahal den neurrian onura horiek ezagutzea. Matia Fundazioko Ikerketa eta Garapen Departamentuak, Ingemak, lagunduko gaitu balorazioa egiteko orduan.

**Jendeak badauka erreparorik horrelako ikastaroetan parte hartzerakoan?**

Ez dakit, ikusi behar. Gaur egun gero eta arruntagoa den gaixotasuna da. Azken baten, beste edozein gaixotasun bat moduan hartu behar dugu, aurre eginez eta tratamendu egokia jarraituz. Lehenbiziko sintomak izan orduko medikuarengana jotzen du jendeak. Orain arte ez zegoen baliabide handirik gaixotasunari aurre egiteko, eta ez zer nolako erantzuna jasotzen dugun antolatutako estimulazio programekin.

**Debagoieneko egoera zelakoa da dementzia kasuei dagokienean? Jende asko dago afektatuta?**

Lehen esan bezala, eskuartean dauzkagun datuak hauexek dira: 65 urtetik gorakoen artean %10-15 bitartean izaten dela afektatuta. Azken urteotan ugaldu egin dira dementzia kasuak gurean ere, eta horri aurre egiteko modurik eraginkorrena prebentzioa da, zalantzarik ez.



Goretti Gozalo fisioterapeuta arrasatearra Nibe elkarteko kidea da. GOIENKARIA

NIBE ELKARTEA

**"Dementzia fase arina edo ertaina jasaten dituztenekin lanean hasi nahi dugu"**

HIRU ARLO

**"Neuronak lokartu aurretik badago arlo fisikoa, kognitiboa eta emozionala lantzea"**

DEMENTZIA

**"Beste gaixotasun bat moduan hartu behar dugu dementzia, aurre eginez"**



zabalik

Diego Martiartu

# Krisia

Krisiak jota gaude. Depresioak hartu gaitu eta putzu ilun batera jausi gara ezinbestean. Aienatu da konfiantza, fedea, eta horrekin batera gainbehera bizian jaitsi da arriskuarekiko jarrera. Ez dago konfiantza neurtzeko modu adosturik, baina etsipena nagusi da bazterretan, hala nola lantegian, tabernan, arrandegiko komentario negartietan. Gure aktibo ez likidoak likido bihurtu arren ere, joan den iraileko lehortea ezin ordainduzko faktura pasatzen ari zaigu orain, hala boltsan nola saskian.

Adierazleak ezin beltzagoak dira, eta hala jarraituz gero ondorioak epe luzera ere ez dira desagertuko. Deskalabrua itzela da, eta adituek esaten dutenez, 2010. urtera arte ez dugu bururik jasoko.

Egin kontu: konfiantza indizea, 2007ko udazkenetik aurrera, behera eta beherako joera geldiezinari lotu zaio. Flakiak hartu ditu hemengo merkatuak; zer esanik ez Ordiziakoa. Gure produktuaren garestitasuna noraino-koa den ikusi besterik ez dago, ekialdeko potentzien aurrean lehiakor izatea ezinezkoa dela berehala konturatzeko.

> **"Flakiak hartu ditu merkatuak, zer esanik ez Ordiziakoa"**
>
> **"Entzun dut ospe handiko perretxikolari bat txanpinoiak erosten ikusi zutela Lidl-en"**

Gainera, hango produktuen kalitateak ez du zalantzarako tarterik uzten. Kontsumitzaileak lekuko. Merkatu globalean, tokian tokikoa txiki. *Crash!*

Noraezean, Ipar barik, jitoan gabiltza. Auskalobazterreraino jo eta lanperna zahar bat, hiru pinutela eta tripaki erdi ustel batzuk ekarri. Desolazioa.

Entzun dut bailara honetan bizi den ospe handiko perretxikolari bat –zeinaren izena ez baitut hemen esango, bere ohorea ez zikintzearren–, gabardina luzea eta betaurreko beltzak jantzita, txanpinoiak erosten ikusi zutela iragan astean, Lidl supermerkatu batean.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## ETB3 KATEA IKUSTEKO, ZER EGIN?

**Oñatiko irakurle eta ikusle batek hauxe galdetu digu: "ETBko hirugarren katea ikusi ahal izateko zer egin behar dut?"**

Euskal Telebistaren hirugarren katea, ETB3 delakoa, oraingoz, ez da ohiko telebista aparailuetan ikusten, hau da, lurreko telebista analogiko bidez. Oraingoz, bi modu bakarrik daude ETB3 ikusi ahal izateko. Bat Lurreko Telebista Digitalaren seinalea da, EITBko Teknologia saileko Juan Carlos Loroñok argitzen digun moduan: "ETBren Lurreko Telebista Digitaleko paketeko zerbitzuen barruan dago ETB3. Pakete horrek honakoak ditu: ETBko lehengo bi kateak eta berria, ETB Sat delakoa, eta irrati batzuk. Lurreko Telebista Digitalaren seinalea hartzeko gai den edozein aparailutan ikusi daiteke ETB3, hortaz".

Beste modu bat ere badago: Euskalteleko kable bidezko zerbitzua kontratatuta. Zerbitzu hori jasotzen dutenek dagoeneko ikus dezakete Euskal Telebistako hirugarren katea, lehengo Euskadi katea zelakoaren partez. Horiek ez dute ezer sintonizatu behar; lehengo seinalearen ordez jasoko dute berria.

## UDALETXEETAKO AGIRIAK ORDAINDU EGITEN DIRA?

**Irakurle batek kezka hau helarazi digu: "Jaiotze agiria eta horrelakoak eskatzeko ordaindu egin behar da? Zeren arabera da ordaindu beharrekoa? Izan ere, niri, agiri batzuengatik kobratu egin izan didate, eta beste batzuengatik, berriz, ez".**

Ibarreko zenbait udaletara deitu dugu, eta han ziurtatu digute herritarrok sarrien eskatu eta behar izaten dituzten udal agiriengatik ez dela ezer ordaindu behar. Hau da, erroldako agiriak, jaiotze agiriak, edo jarduerei, altei… dagozkien zertifikatuak doakoak dira.

Ordaintzen diren agiriak gutxi batzuk dira, eta gehienak hirigintza kontuekin zerikusia dutenak dira. Honela esan digu Arrasateko Udaleko Kontu-hartzailetza saileko Kepa Undagoitiak: "Oso agiri gutxi dira ordaindu beharrekoak. Adibidez, kale jakin baten negozio bat jarri daitekeen galdetzen etortzen bada bateren bat, informazio hori lortzeko egin behar diren tramiteengatik ordaintzen da. Informazio motaren eta hori lortzeko egin behar den lanaren araberakoa da tasa. Obra baimenengatik ere tasa bat dago. Bestetik, konpultsak, fotokopiak… egin behar direnean, bost baino gehiago direnean ere ordaindu egin behar da".

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

## Amanita phalloides ondo eginda, jangarrixa ei dala

**Oier Gorosabel**
eibar.org/blogak/orakulua

Pasa dan astian euskerazko izperringi baten, ezkerreko pajina interior baten azpi-eskumaldian (gitxien irakortzen dan lekuan, hala egixa) agertutako mikrooharra: "Atzoko XXX-an, perretxikoen erakusketaren artikuluan, *Amanita phalloides* ondo eginda jangarria dela agertzen da, baina pozoitsua da. *Amanita phalloides*-en ordez Galdakao lanperna agerrtu behar zen. Bestalde, hilgarriena *Amanita muscaria* dela azaltzen da, baina *Amanita phalloides* da."

Orraittiokan: ¿halako hankasartua, eta honako rektifikaziñua…?

Ez dot esango ze izperringi dan, baiña halako gauzak ez dabe euskalgintzia prestijiatzen, ez horixe.

## Yes, they also can

**Luis Aranbarri 'Amatiño'**
eibar.org/blogak/amatino

Galbraith ekonomilariak aspalditxo esan zuen nekez izan zitekeela aldaketarik Estatu Batuetan sekula botorik emateko ohiturarik ez zutenek parte hartzerik erabakitzen ez zuten artean. Arrazoi zuen nonbait. Izan ere, duela lau urte baino 20 milioi gehiago izan dira oraingo honetan botoa eman

plazara

Besteak beste, Mondragon Unibertsitateko eta AEBetako Nevadako Unibertsitateko ikertzailea da Igor Calzada. AEBetako hauteskundeak handik bizi izan ditu, eta emaitza jakin berri zenean idatzitako artikulua da ondokoa. Obamaren lehendakaritzak ekar dezakeenaz haratago, haren garaipenean politikagintza eta kanpaina ulertzeko modu berri batek eragin duela esaten du.

Igor Calzada *

# Obama (eta AEB 2.0)

Orain bai: *Bai, Ahal dugu* (*Yes We Can*). Obamak irabazi du, San Franciscon gaueko 21:09 direnean. 2008ko Azaroaren 4a, politikaren historian egutegian markatuta gogoratuko dugun data dela konbentzituta nago. Hasi da, Obama 2.0, politikagintza berria egiteko aroa.

Duela 24 ordu, Euskal Hiriko komunikabide batera, hauteskunde aurre-analisi bat bidaltzea otu zait (*http://www.igorcalzada.com/mr-obama*). Jakin gabe aurretik zer gertatuko ote zen emaitzarekin. Izan ere, analisiaren zioa, irabazi ala ez, (eta oraintxe dakigu hemen AEBn irabazi duela), Mr. Obamak dagoeneko, politikagintzan, sekula lehenago aurrekaririk izan ez duen mugarri historiko baten fundatzailea izan zela esaten nuen atzo. Gaur, baieztatu egiten ditut aurreikuspenak, forman eta edukietan. Obamak irabazi du.

Zaila da jarraian egiten saiatuko naizena. Dagoeneko AEBetan hilabete batzuk eman ditut herrialde honen idiosinkrasia soziopolitiko eta demografikoaren lorratz batzuk jarraitu eta ikertzen. Eta egia esango dizuet, izugarria izan da hemen gertatu dena eta garrantzitsuena neretzat, "nola" gertatu den.

Zer da AEB? Nik behintzat garbi daukatena zera da. Bi AEB daudela. Eta itxuraz, koloreanitz eta aurrerakoia den erdia, esnatu egin da. Zorionez. Guztion hobebeharrerako.

Zer gertatu da? AEBko hiritarrek, esperantza, aldaketa eta sinistearen beharrari jarraitu diotela. Eta gure ikuspuntutik, pentsatu nahi dut, bihartik aurrera,




MIKEL ARROIABE

Mr. Obama eta bere gobernuak zezenari adarretatik helduko diotela. Ez da erronka makala inondik inora. Baina, nazioarte mailako aginte sisteman, herrialde honen erabakiek duten ondorio multiplikatzailea kontuan izanda, uste dut sekulako berri ona dela orohar jazo dena.

Analisiarekin hasi aurretik, azpimarratu nahiko nuke, Obamak irabaztea ez zela segurua, duela ordu batzuk. Eta horrexegatik, Obama 2.0, politikagintza berriak azken momenturaino ez duelako amore eman.

1.- Obama 2.0: Politikagintza berria?

AEBk bere historia osoan, lehenengo buruzagi beltza izango du (Luther King, Malcon X,...beste batzuk gogoan). Eta nola gertatu da hau guztia? Inoiz ezagutu ez

**"Frogatu da gizarte-teknologiak eta gizarte-sareak elkarturik direla mundu hau aktibarazteko bideak"**

den gizarte mugimendu itzelak lagunduta. 2.0 teknologiak (wikiak, *facebook*, *twitter*, *myspace*, mugikorrak, *pda*-k, *blackberry*-ak...) auzo eta txoko guztiak astindu dituelako. Hori da irakasgai garrantzitsuena formaren aldetik eta gertatu dena ulertze aldera. Eta hori ez da gertatu bakarrik teknologiarengatik. Bi gauza biltzen dira eta jadanik mundua ulertzeko modu bakarra. 2008an AEBn frogatu da, gizarte-teknologiak eta gizarte-sareak elkarturik direla mundu hau aktibarazteko bideak dagoeneko. Eta jakina, McCain-ek ez du ezta arrastorik izan horri buruz. (Hillary-k ere eduki ez zuen bezala, esan beharra dago). Baina Mr. Obama-k bai. Ez dezala inork pentsatu, espontaneoa izan dela guzti hau. Atzean, Google, Silicon Valley eta "milizia zibernautiko" oso bat egon da. Asko dugu ikasteko gure politikagintzari aplikatzeko agian, ezberdintasunak nabarmenak direla onartuta (jakina!). Baina...Liderrik ba al dugu? Eta estrategia parte-hartzailerik? Azterketa interesgarria planteatzen dudana.

2.- AEB 2.0: "Amets amerikarra"?

Bihar, erronka anitz daude, Obama-ren mahai gainean: Krisi finantzieroa, Irakeko gerra, gizarte eredu berria (osasuna eta hezkuntza), zerga politika, eta beste hainbat. (Irlandar bati ez zioten utzi bukatzen. Hil egin zuten. Espero dut, munduko indar guztiarekin, afroamerikar batek, haserako *american dream* horren jatorrira berbideratu dezala bere herrialdea. Gu guztion mesederako. Egindakoaz ikasiz eta zuzenduz. Ez da erreza izango, baina aurreko amesgaiztoa astintzea ez da hasiera makala izango. Ez ote gaude agian AEB 2.0n?)

AEBko Presidentearen azken hitzak izan dira: Bihartik aurrera, *Yes We Can*. Bidea hasi baino ez omen da egin.

Eta pentsatzen dut: Eta Guk? *Guk (ere) Ahal Dugu*. Guztien artean. Lortuko dugu.

*Soziologoa, Associate Researcher University of Nevada eta MU-Eteo/Mik.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Udal kultura ekitaldietara joaten zara?

| | |
|---|---|
| BAI | %50 |
| EZ | %50 |

**> ELITISTAK**
Ez, jeneralean nahiko elitistak iruditzen zaizkit. Gehiago joaten naiz gaztetxeetan egiten diren ekintzetara.
**Ander**

**> ALFERKERIA**
Kultura ekintzetan ez dut parte hartzen normalean, batzuk interesgarriak izaten dira baina alferkeriagatik edo gutxitan joaten naiz. Kontzertuak nahiago ditut, gaztetxeetan, plazan, txosnetan...
**Ane**

**> ANTZERKIRA**
Noizean behin antzerkira joaten naiz, Amaia antzokira edo Espaloira, eta gustatzen zait. Baina uste dut garestiegia dela sarri joateko.
**Laura**

**> ZINEZALEA**
Ba ni joaten naiz. Batez ere zinemara, oso zalea naiz eta. Eta datorren astean beldurrezko zine maratoira joango naiz Arrasatera!
**Edorta**

**DATORREN ASTEKOA: Erosiko duzu aurten Gabonetako loteria?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

eta aldaketaren oinarriak jarri nahi izan dituzten estatubatuarrak.

John Kenneth Galbraith ekonomilariaren tesia (*La cultura de la satisfacción*, 2000) ezin sinpleagoa zen. Estatu Batuetan ondo, harro eta pozarren bizi zen gizarteak baino ez omen zuen hauteskundeetan parte hartzen eta, horretara, parte hartzaileek sekula ez omen lukete parte hartzen ez zutenen aldeko politikagintzarik suspertuko. Bestalde, txarto, eskas eta narraz bizi zen gizarteak ez omen zuen sekula aldaketarik erakarriko, hauteskundeetan parte hartzerik erabakitzen ez zuen artean. Auskalo egia ote, baina atzoko datuak adierazgarri samarrak dira. Orain dela lau urteko hauteskundeetan 135 milioi hiritar errejistratu ziren aldez aurretik eta euretarik 80 milioi (%57) botoa ematera hurbildu. Oraingoan, aldiz, 153 milioi errejistratu dira eta 100 milioik (%66) botoa eman. Hau da, 2004an baino 20 milioi hiritar gehiago izan dira botoa eman eta politikan partea hartzea erabaki dutenak. Alegia, botoa eman, parte hartu eta… aldatu.

Beste kontu bat da zerk eragin ote duen Estatu Batuetan azken laurogei urteotako partaidetzarik handiena. Segurutik erantzuna anitza da. Besteak beste, azken bolada honetako egoera ekonomiko txarra, Bushen girotik ihes egin nahia, Obamaren lidergoa, beltzen mobilizazioa, teknologia berrien eragina… Baina, zer gerta ere, hogei milioik erabaki dute beraiek ere ahal dutela, *we can*. Eta, aldi berean, orain arte indarrean aritu den estatubatuar gizarte erdiak jakin ere jakin du, beste erdiak ere ahal duela. Alegia, haien ikuspegitik, *we can* baino gehiago eta larriago: *they also can*.

koplak

Enaitz Alustiza

## Barack

Amerikara begiratuta
ohartu zaitezte hara
Barack Obamak irabazi du,
etorkizuna beltza da.

Ta segituan ipini dute
salbatzaile papeletan.
Etxe Zurian lapurrak daude,
*Superman* pelikuletan.

Ba al dakizue McCain patata
frijitu marka bat dela?
Obamak McCain jan du patata
plater bat balitz bezela.

Mc Cain omen da lapur, mozkorra,
harro, diru goseduna.
Orduan, aber… esan norbaitek:
Zein da desberdintasuna?

Ta zertarako izanda hainbeste
inkesta, albiste, txapada…
puteatuta gaudenok berdin
gelditu behar bagara?

Beraz USAtik gauza bakar bat
ulertu dut ondo-ondo
Aurrerantzean presidentea
Ez da razista izango.

# ETA ez

**Ane Galartza**
Aretxabaleta

Aretxabaletako udaletxea pintura gorriz erasotu dute gauaren babesean. Atentatua izan da, atentatu terrorista, gainera. Betikoek "herritarren arteko elkarbizitza eta bakea hondatu" nahi dute beste behin.

Beste betikoek udalbatzan hala adostu dute-eta: "Gertatutakoak aretxabaletarrekiko errespetuari egiten dio kalte, gaitasun eta borondate politikoari" (sic).

ETA ez dut ulertzen.

ETA ez dugu onartuko aretxabaletarrekiko errespetuaz berba egitea, hain zuzen ere, zuek zaretenean herri honen hautu demokratikoa errespetatu ez duzuenak.

ETA ez gara ixilduko: udalbatza antidemokratikoa eta kolaborazionista zarete.

ETA ez dugu ahaztuko zuetako batzuen jokabidea, borondate politikoaz aho bete bai, baina benetako pausuak emateko orduan, "intelijentzia politiko" handiz, Alderdien Legeari men egin diozuela.

ETA ez gaituzue engainatuko, etengabe gure diskurtsoaz jabetzen saiatzen bazarete ere: PP-k, Generalisimoaren ondorengoek, "libertad" hitza dute kanpainako lelo; GALosoen PSOEk "estado de derecho" handiz torturatu, kartzelaratu, desagerrarazi eta ilegalizatu egiten dute; AHT bezalako megaproiektuen PNV-k "kontsulta" eta "herriari hitza" aldarrikatu; "ezker abertzale ofiziala" bezalako terminoak asmatu bestetzu...

ETA ez ditugu herriko hormak isilaraziko injustizia txikiena dagoeno.

ETA ez dugu etsiko Euskal Herriak behar duen benetako irtenbidea lortu arte: Hitza eta erabakia.

Garbitu dute udaletxeko horma, garbitu pankarta. Gehiago kostako zaie, ordea, euren kontzientziak garbitzea. Guk, betikook, ezker abertzalekook, bitartean, ETA ez horren aurrean, ETA bai abesten jarraituko dugu, frankismo garaian egin genuen moduan neofrankismo garai honetan ere, Pantxoa eta Peioren melodian, "ETA bai, eta bai, nik Euskal Herriari bai ta bai".

# Arrasatetik Gasteizerako bidaia: Pesa ala 'pesadilla'?

**Jon Uzkiano**
(Pesa S.A.-ko erabiltzailea)
Arrasate

Azkenaldian, Arrasate-Gasteiz ibilbidea egiten duten Pesa konpainiako autobusetan, bidaiariak zutik eroateaz gain, autobus urbanoetan eroaten dituzte.

Hori horrela egitea oso segurua denik ez dugu uste, batez ere kontuan izanda, Arrasatetik Gasteizera joateko dauden errepideak, Arlabango eta Leintz Gatzagako mendateekin. Lehenengoa, bihurgune eta kamioiez beteta dago; bigarrenari dagokionez, bihurgune ugari edukitzeaz gain, errepidea oso estua da eta kontrako noranzkoko erreia inbaditu beharra dago sarritan.

Baina, horri guztiorri, gehitu behar dizkiogu ohikoak diren balaztakak eta biratze zakarrak bihurguneetan. Eta egoera horrek, jarrita doazen bidaiariak eta zutik doazen koitaduak gogaitzeaz gain, bidaiarien segurtasuna arriskuan jartzen du; izan ere, ez dago ez segurtasun uhalik, ez besoak jartzeko tokirik, ez eta heldulekurik ere.

Beste modu batera esanda, Pesako erabiltzaileen bizia arriskuan dago egunero. Eta okerrena da Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu egiten dituela jokabide horiek, Pesako zuzendariek nahi dutena egin dezaten utziz.

Eta ez hori bakarrik. Ze, kalitatea okerrera doan heinean, prezioak gora doazeta. Izan ere, berdin ordaindukoa duzu urbanoan eta zutik bazoaz, edo jarrita eta Pesak Euskadiko beste linea batzuetan erabiltzen dituen beste edozein autobusetan bazoaz.

Ez dugu, bada, autobusa ordaintzen, jarrita eta ahalik eta seguruen joateko?

Badirudi Pesan ez dela horrela, ze konpainia honek justifikatzen baitu autobusen aldaketa esanez urbanoa merkeagoa dela lineako autobusa baino. Horretan ez gara sartuko, baina uste du Pesak diruak bizi batek baino gehiago balio duela?

# Debagoieneko Ospitaleari eskerrak

**Nicanor Alvarez Segovia**
Arrasate

Urteetan gaixo egon eta bere heriotzaren ostean, Nicanor eta haren senideek eskertu nahi dute, gutun honen bidez, Debagoieneko Eskualde Ospitaleko eta Arrasateko anbulatorioko lan taldearen profesionaltasuna eta gizatasuna.

Eskerrik asko gaitzaren aurkako borroka eramangarriagoa egitearren eta giza duintasunari zentsua emateaarren.

# Candy Hooverren egoera

**Jose Aguayo**
(Candy Hooverreko enpresa komiteko kidea)
Bergara

Hilabete baten buruan, eta bigarren aldiz, Candy Hooverreko zuzendaritzak bigarren kaleratzea agindu du "diziplinazko arrazoiengatik".

Bergarako Cany Hoover Etxetresnak, S.A., 400 langiletik gora dituen enpresak, azken urteotan "eszedente estrukturala" du. Komite honek beti berretsi izan du eszedente hau ezin dela kendu diziplinazko kaleratzeen bitartez.

Aurtengo negoziaketetan, enpresak eszedenteari irtenbidea emateko honako hau proposatzen du: sustatutako bajen urte bakoitzeko 45 eguneko indemnizazioak. 35 urtetik beherakoendako 12 hilabetekoa; 35 eta 50 urte bitartekoentzat 18 hilabetekoa, eta 50 urtetik gorakoendako 24 hilabetekoa.

Enpresaren proposamenak ez du arrakastarik izan eta, horrexegatik, kaleratzeak aurrera eramatea erabaki du, diziplinakoak direla argudiatuta. Modu horretan, doako kaleratzeen eszedentea konpontzea lortu dute. Eta, era berean, langileengan beldurra sortarazten dute.

Gertakari hauen laburpena egin ostean eta egon daitezkeen kaleratze diziplinazkoen aurrean, Komite honek Candy Hooverreko langileei dei egiten die, kaleratzeekin solidarioak izan daitezen, eta egingo diren ekintzetan parte hartzeko. Manifestazioa San Martin plazatik aterako da, azaroaren 7an, 19:00etan.

# Atxabaltan ere, kanpoko igerilekuak!

**Ainhoa Aranburu**
Aretxabaleta

GOIENKARIAren 348. zenbakian, hurrengoa argitaratu zen: "Kirol etxe berriaren hasierako proiektua –0 proiektua esaten zaiona– udaletxean daukate. Asier Acuriola eta Fernando Bajo arkitektoek 2006an deitutako lehiaketara aurkeztutako ideiak garatuta egindako proiektua da. Hori aztertu behar dute orain Udaleko ordezkariek, eta udalbatzaren oniritzia jaso beharko du aurrera egiteko. Eta ezezkoaren kasuan, beharrezkoak ikusten dituzten aldaketak proposatu beharko dituzte. Behin betiko proiektua osoko bilkuran onartu behar du udalbatzak. Baina agintaldiko proiekturik garrantzitsuena denez, ondo aztertu gura du aurretik, eta oraingoz ez dago datarik zehaztuta".

Hau irakurri ondoren, kirol etxe berrian kanpoko igerilekuak egin ditzaten eskatuz, sinadurak biltzen ibili gara guraso talde bat. Pasada batean, 620 sinadura bildu ditugu (azken hauteskundeetako emaitzak Eustat-eko biztaleriatik aterata: PP: 127 boto, PSOE: 400 boto; EAJ: 504 boto; EA: 530 boto; besteak (IU-Aralar): 754 boto; Baliogabeak: 878 boto).

Zergatik nahi ditugu kanpoko igerileku hauek?

- Udako hilabeteetan, herrian bertan izan nahi ditugu aisialdirako kanpoko igerilekuak. Udan denok goaz hondartza edo beste herrietako kanpoko igerilekuetara, eguzkitan egotera.

- Herrian bertan kanpoko igerilekuak izanik, Atxabaltako gazte eta ez hain gazteak, oinez eta lagunartean joan gaitezke bertara. Gaztetxoak, ez dira gurasoen auto edo autobusen mendean egongo.

- Atxabalta bizia izango genuke, orain Arrasate edo eta Arabako igerilekuetara joaten den jende asko, herrian geratuko litzatekeelako. Eta, zergatik ez, kanpotik ere jendea erakarriko genuke. Honek, herriko komertzioei mesede egingo lieke.

- Oraingo proiektuko tenis kantxetan aldiko 2 pertsona egongo diren bitartean, leku berdinean, igerilekuak eginez gero, jende asko egongo litzateke uneoro.

Zenbait gogoeta eta komentario:

1. Legala da orain kanpoko igerilekua eskatzea? Legala izan edo ez, Atxabaltako biztanle asko, hori ari gara eskatzen. Udalaren esku dago informazio hau hartu eta ongi bideratzea.

Arrasateko Garibai plaza berria egin zutenetik urte batzuk pasa dira, eta berriro dabiltza plaza hori nola aldatu daitekeen edo zertarako erabili daitekeen aztertzen. Informazioa izanik, ez al da hobe, behar diren aldaketak aurretik egitea?

2. Errentagarria da? Noiztik izan behar da herri bateri ematen zaion zerbitzua errentagarria? Akaso barruko igerilekua, futbol zelaia, Arkupe, Gaztelakua, Udaltzaingoa, e.a… errentagarriak al dira? Errentagarri ez direlako denon poltsikotik ordaintzen ditugu zerbitzu hauek.

Bergaran, lehen, kanpoko igerilekuak zeuden. Eraikin berria egin dute, eta orain kanpoko igerilekuk berriak egin behar dituzte. Horrelako despilfarroa izango balitz, egingo ahal lituzkete kanpoko igerileku horiek?

3. Kanpoko igerilekuak eskatzea utopia bat dela entzun dugu. Ondoko herrietan errealitatea dena, zergatik izan behar du Atxabaltan utopia?

Zein da irtenbidea, herriko iturriak igerileku bezala erabiltzea? Trajebainua eta txankletak hartu eta herriko iturri desberdinetara joaten jarraitu behar dute gure seme alabek?

Besterik gabe mila esker idatzia sinatu duzuen denoi eta batez ere sinadurak biltzen ibili zareten gurasoei.

Atxabaltako alkate eta gobernu taldeak gure eskakizuna kontutan izango duen itxaropenarekin, agurtzen gara.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak




gizarte ekintza
hezkuntza
ILARGI AMANDREA ZERUAN ZER BERRI?
Bada, hori guztia bizitzeko aukera duzu orain
Zientziaren kutxaGuneko Planetarium berrian, Donostian
paregabea eta ikusgarria, benetan, bere Super High Definition sistemari esker
943 012 478
www.miramon.org
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Ezagut ezazu zure alderik freskoena
"Txikitan ezagutu nuen nire alderik freskoena,
babarrun-ale lehor batetik zurtoin eder berria sortu zela ikusi nuenean.
Biziak eta naturak aurrera egiten zuten gure harridura eta gozamenerako.
Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zirrara bera sentitzen dut, baina
Udal Merkatuan oraingoan. Bertan inguru natural batera bainaramate koloreek,
usainek, tratu atseginak eta kalitatezko produktuek.
% 100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako."
Eros ezazu zure Udal Merkatuan
udal merkatuak
mercados municipales
aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

# Herriak

**Arrasate** > 18-19 **Bergara** >24-25 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
Herrian 721 etorkin bizi dira, orain sei urteko kopuruaren laukoitza **> 18**



**> BERGARA**
Txapa Irratiak denboraldia hasi du, hamar saiorekin **> 25**



**> ARETXABALETA**
Ikus-entzunezkoak eta irteera, Mendi Astean Murrukixo elkartearekin **> 31**



**> ESKORIATZA**
Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizun berria, laster **> 34**

**ESKORIATZA** > MESEDEETAKO AMAREN EGOITZA

# Zaharren egoitzaren etorkizuna 3.474 eskoriatzarrek erabakiko dute

**HIRU AUKERA**
16 urtetik gorakoek hiru proposamenen artean egingo dute aukeraketa

**UDALETXEAN**
Bozketa udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute, goizez eta arratsaldez



Mesedeetako Amaren egoitzan 24 pertsona bizi dira egun. GOENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Mesedeetako Amaren egoitzaren etorkizuna eskoriatzarrek erabakiko dute. Hain zuzen ere, kontsulta egitea erabaki du Udalak. Neurri hori onartu zuen urriaren 29an egindako osoko bilkuran, eta astelehenean prentsaurrekoa egin zuten udal ordezkariek galdeketaren nondik norakoak azaltzeko.

Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek azaldu zituen galdeketa egitearen arrazoiak: "Herritarren iritzia jakin gura dugulako, eta demokrazia partehartzailea dela uste dugulako egingo dugu kontsulta. Gainera, udal ordezkariok zalantzak genituen aukera egokiena zein zen erabakitzeko orduan".

**EMAITZA LOTESLEA IZANGO DA**

16 urte beteta dituzten 3.474 eskoriatzarrek dute botoa emateko eskubidea, eta hiru proposamenen artean egingo dute aukeraketa (ondoko taulan zehaztu ditugu aukera bakoitzaren ezaugarriak). "Azaroko hirugarren astean egingo dugu bozketa: hain zuzen ere, hilaren 19an, 20an, 21ean eta 22an. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan eman beharko dute botoa herritarrek", azaldu zuen Eskoriatzako euskara teknikari Mari Carmen Arrietak. Hilaren 19an, 20an eta 21ean 12:00etatik 14:00etara arte eta 17:00etatik 19:00etara arte eman ahalko dute botoa; eta hilaren 22an, 10:00etatik 14:00etara arte.

Bozketa bukatu eta zenbaketa egin ondoren, herritarrek hartutako erabakia zaharren egoitzako Patronatuari eroango diote udal ordezkariek. "Galdeketa egitea onartu dugun alde guztiak, besteak beste, udal ordezkariok eta Patronatuak adostu dugu herritarrek egindako aukera loteslea izango dela. Hortaz, herritarrek jakin dezatela euren hitza gure erabakia izango dela", esan du Pedro Lasagabasterrek.

**MAHAI INGURUAK**

Kontsultaren gainean bi hitzaldi egin dituzte asteon. Bestalde, hilaren 12an eta 17an mahai inguruak egingo dituzte. Galdeketaren gainean iritzia eman gura duten herritarrak eta herriko elkarte eta taldeetako ordezkariak gonbidatu dituzte. Ibarraundi museoan egingo dituzte, 19:00etan.

**HISTORIA APUR BAT**

Jose Arana eskoriatzarrak herriari utzitako diruarekin, 100 urtean hainbat zerbitzu eman dituzte zaharren egoitza hartzen duen eraikinean; besteak beste, ospitalea egin zuten.

## Zerbitzuaren etorkizunerako aukerak

### A AUKERA

**Eraikina**
> Egungo eraikina hobetu eta egungo legediari egokitzeko lan sakonak egingo lituzkete: besteak beste, igogailua, arrapalak, komunak eta gela handiagoak.

**Zerbitzua**
> Udalak egingo luke zerbitzuaren kudeaketa.
> Egoitzako leku kopurua mantendu egingo lukete; hain justu ere, 32 lagunendako lekua.

**Kostua**
> Aurrekontua: 1,6 milioi euro.
> Eskoriatzako herriak: 1.000.000 euro. Ekarpen, donazio edo bestelako diru-iturriak lortu beharko lituzke Udalak.
> Egoitzako Patronatuak: 300.000 euro.
> Foru Aldundiak: 300.000 euro.

### B AUKERA

**Eraikina**
> Egungo eraikina hobetu eta egungo legediari egokitzeko lan sakonak egingo lituzkete: besteak beste, igogailua, arrapalak, komunak eta gela handiagoak.

**Zerbitzua**
> GSR enpresa pribatuak egingo luke egoitzaren kudeaketa 20 urtetan.
> Leku kopurua mantendu egingo luke: hain justu ere, 32.

**Kostua**
> Aurrekontua: 1,6 milioi euro.
> Eskoriatzako herriak, 400.000 euro. Ekarpen, donazio edo bestelako diru-iturriak lortu beharko lituzke Udalak.
> Patronatuak, 300.000 euro.
> Foru Aldundiak: 300.000 euro.
> GSR enpresak: 600.000 euro.

### C AUKERA

**Eraikina**
> Egun dagoen eraikina bota eta baldintza guztiak beteko lituzkeen egoitza egingo luke.

**Zerbitzua**
> GSR enpresa pribatuak egingo luke kudeaketa 20 urtetan.
> Leku kopurua handitu egingo luke, eta behar psikogeriatriko arinak dituztenendako 24 leku berri egokituko lituzkete. Guztira, 56 lagunendako zaharren egoitza egingo luke.

**Kostua**
> Aurrekontua: 4,5 milioi euro.
> Eskoriatzako herriak ez luke ezer ordainduko kasu honetan.
> GSR enpresa pribatuak, 2.250.000 euro.
>Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2.250.000 euro

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Ruiz | Nafarroa, 1 | 943 79 14 09 |
| Domeka, 9 | Etxeberria | Zarrugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Astelehena, 10 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Martitzena, 11 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 12 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Eguena, 13 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Egubakoitza, 14 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 9 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 10 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 11 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 12 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 13 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 14 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 9 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 10 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 11 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 12 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 13 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 8 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 9 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 10 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 11 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 12 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 8**
Haizeak mendebaldetik jotzen jarraituko du. Haize honek tarteka ostarteak zabaldu eta eguneko tenperaturaren igoera ekarriko du.



**Domeka, 9**
Domekan, zapatuan bezala, hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, baina euri arriskua txikitu egingo da.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan, oro har, euria bazter batera utziko dugu. Hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira. Kostaldean hodei gehiago egongo dira eta zaparradaren bat botatzeko arriskua ere badago. Domekan, antzerako eguraldia izango dugu, baina tenperaturek gora egingo dute zertxobait.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 4 — **2 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 1 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **147,5 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 29 | 10 ºC | 3 ºC | 24,1 l/m² |
| Eguena, 30 | 12 ºC | 4 ºC | 22,8 l/m² |
| Egubakoitza, 31 | 10 ºC | 5 ºC | 18,1 l/m² |
| Zapatua, 1 | 16 ºC | 7 ºC | 12,4 l/m² |
| Domeka, 2 | 11 ºC | 4 ºC | 66,7 l/m² |
| Astelehena, 3 | 12 ºC | 7 ºC | 3,1 l/m² |
| Martitzena, 4 | 16 ºC | 2 ºC | 0,3 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA AZAROAN



| Ilgora | Ilbete | Ilbehera | Ilberri |
|---|---|---|---|
| 6 | 13 | 19 | 27 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> AEDren 25. urteurreneko lehen hitzaldia**
AED elkartearen 25. urteurrena ospatzeko ekintzen artean, *Euskarak. Gerorik bai?* delako hitzaldi zikloa hasiko da eguenean, hilak 13, Iñaki Martinez de Lunaren hitzaldiarekin, Kulturaten, 19:00etan. Euskararen gainean jardungo du mundu globalizatuan.

BERGARA
**> 1937an jaiotakoek ospakizuna egingo dute**
1937an jaiotakoek Zabala jatetxean bazkalduko dute azaroaren 15ean. Izenematea zabalik dago Kortazar tabernan eta Yoar oinetako dendan, 20 eurotan, azaroaren 12a arte.

BERGARA
**>1938an jaiotakoek kintada egingo dute**
1938an jaio zirenek kinto ospakizuna izango dute hilaren 15ean Pertxa elkartean. Izena emateko, deitu honakoei: M. Asun Gardoki (943 76 15 36) edo Migel Lazkano (943 76 18 64).

BERGARA
**> Keinu hizkuntza ikastaroak Aransgin**
Keinuen hizkuntza ikastaroak emango dituzte Aransgin, urtarrilean hasita. 30 ordukoak dira, eta hasiera eta sakontze mailak emango dituzte. Matrikula 85 euro da. Izenematea zabalik dago 943 76 27 03 zenbakian.

ARRASATE
**> Ozeanian bidaiatzearen gaineko hitzaldia**
Australian, Zeelanda Berrian eta Hego Pazifikoan bidaiatzearen gaineko berbaldia egingo du Eroski Bidaiak agentziak eguenean, hilak 13, Iamai kafetegian, 19:30ean.

BERGARA
**> 1960an jaiotakoek batera afalduko dute**
1960an jaiotako bergararrek kinto bazkaria izango dute azaroaren 15ean Lasan. Izena emateko, 10 euro aurreratu Igarza harategian edo Barrenkaleko estankoan.

BERGARA
**> 1933an jaiotakoek ospakizuna egingo dute**
1933an jaiotako bergararrak bazkaltzeko elkartuko dira azaroaren 16an Zumelaga jatetxean. Izena emateko, 6 euro aurreratu behar dira Intxorta tabernan.

ARRASATE
**> Arantzazuren gaineko asteko hitzaldia**
Arantzazu Gaur fundazioak Arantzazuren gainean antolatu duen astea bukatzeko, hitzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Arrasateko Kulturaten, Joxe Arregik eta Iker Usonek, 19:30ean.

BERGARA
**> 1973an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1973an jaiotakoek Zabala jatetxean bazkalduko dute azaroaren 15ean. Izenematea zabalik dago Kortazar tabernan edo Yoar oinetako dendan, 20 eurotan, azaroaren 12a arte.

ARRASATE
**> San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleak**
San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleek afaria egingo dute azaroaren 29an, zapatua, eta izenematea zabalik dago azaroaren 18a arte *jongoiko@iservicesmail.com* helbide elektronikoan eta 649 37 58 05 telefonoan. Eguneán, 19:30ean batuko dira Iratin.

ARRASATE
**> Kontseiluaren 10. urteurrenera begirako ekintzak prestatzeko batzarra egingo dute**
Arrasateko euskalgintzak batzarra egingo astelehenean, hilak 10, Kulturateko Loramendi gelan, 18:30ean. Helburua da Kontseiluaren 10. urteurreneko ospakizun ekitaldira begira egitaraua antolatzea. Ekitaldi erraldoi hori Bilbon egingo dute, BECen, abenduaren 13an.

DEBAGOIENA
**> Gurutze Gorriko boluntario ohien bazkaria**
Debagoieneko Gurutze Gorriak 25 urte betetzen dituela eta, bazkaria egingo dute Arantzazuko hospederian azaroaren 29an. Erakundean boluntario izan diren guztiak deitzen dituzte parte hartzera, Nafarroako Kutxan ireki duten kontuan 10 euro aurreratuta. Argibideak, 616 07 04 54 telefonoan.

ARETXABALETA
**> Munduko dantzen ikastaroa egingo dute**
Munduko hainbat herrialdetako –Grezia, Israel, Eskozia…– dantzak erakutsiko dituzte, Jaiki elkarteak antolatutako ikastaro baten, azaroaren 15ean eta 16an, zapatua eta domeka. Izenematea zabalik dago *jaikielkartea@yahoo.es* helbidean edo 645 73 91 62 telefonoan.

ARRASATE
**> 1943an jaiotako emakumeen ospakizuna**
1943an jaiotako emakume arrasatearrak batera bazkaltzeko elkartuko dira. Izena emateko, joan Muruamendiaratz gozotegira.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Zer deritzozu merkatariek atera duten Ibai-arte txartelari?



**Alfredo Nieto**
Langilea
Arrasate

Horrelako ekimenak ondo iruditzen zaizkit. Denda txikiendako bultzada izan daiteke. Nik oinetakoak konpontzeko denda bat daukat eta Ibai-arte elkarteko bazkide egiteko asmoa dut.



**Ane Goikoetxea**
Ikaslea
Aretxabaleta

Momentuz ez daukat txartela. Baina hura lortzeko izen emate orria jaso dut eta beharbada egingo dut. Ideia oso ona iruditzen zait, horrek erosleak bultzatu ditzakeelako erosketak herrian egitera.



**Juan Maria Maguregi**
Erretiratua
Arrasate

Ezagutzen dut txartela, eta ekimena egokia iruditzen zait, batez ere bezeroa babesteko modua delako; ni ez naiz bazkidea eta ez dakit egingo dudan txartela, halako gauzak emazteak egiten baititu gurean.



**Jose Manuel Povedano**
Ikaslea
Arrasate

Ez daukat txartelik, eta ez dut egingo. Hala eta guztiz ere beherapenak egokiak iruditzen zaizkit herritarrendako. Ni herritik kanpora joaten naiz erosketak egitera, gehien bat Gasteizera.



**Kontxi Etxebarria**
Langilea
Arrasate

Ibai-arte txartela egiteko asmoa daukat. Egunero erosketak egitera joaten naizen dendan badaukate txartela. Ekimen ona iruditzen zait jendea merkatal guneetara joan beharrean herrian eros dezan.

txistuak



GOIENKARIA

## Seber Altuben zaborra, ontzitik kanpo

Arrasateko irakurle baten kexa jaso dugu aste honetan. Berak dio hainbeste zabor ontzitik kanpo egotea ez dela batere garbia. Irakurleak dio ume asko ibiltzen dela inguru horretan jolasten, eta zaborra ere ukitu dezaketela. Dagokionari eskatzen dio, kale bat zaborrez beteta ikusiz gero, bertan dagoena batzea, zabor kamioia pasatzen den egunera itxaron gabe.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 14.000

Udalak aurtengo Gabonetan 14.000 euro gastatuko ditu kale eta auzoetako argi-arkuak ipintzen. Zentzu horretan urtetik urtera aurrekontu murrizketa egin dute herrian. Hala eta guztiz ere, aurrekontu horretan ez da sartzen plazako zuhaitzaren apainketaren eta argiteriaren gastua.

usteak uste

Oihana Elortza

## Dena ez dago krisian, oraindik

AEBetako presidente berriak, Obamak, egunkari askotako lehen azalak eta irratsaio askotako orduak bete ditu azken egunetan, hemen nahiz kanpoan. Baina ez du krisia erabat isildu. Oraindik ere horixe da hizketagai naugusia, bai hemen bai kanpoan.

Krisiaren eraginez edo ez, lapurretak gehitu egin dira gurean azken astetan. Eta hori krisiagatik dela diotenek uste dute gehitu egingo direla lapurretak, jendeak jan egin behar duelako eta lanik barik ez dagoelako jatekorik. Astelehenean neri aterkia ostu zidanak ez dakit krisia larrutik bizi duen edo ez, baina ni majo busti nintzen lantokitik autorako bidean. Arrazoia ohitura izan zela uste dut, krisia baino gehiago, besteen gauzak ez hartzeko kontzientzia galduta dutelako batzuek. Kooperatibismoaren zentzua ere krisian zegoela nuen entzuna, baina Arrasateko Fagor Etxetresnetako langileek erakutsi dute ezetz, oraindik zentzu apur bat, behintzat, badutela kooperatibaren baloreek. Bat baino gehiago haserretuko da, agian, emaitzarekin, baina horixe da bozketaren emaitza. Berdin gertatu da AEBetako hauteskundeetan ere.

5 galdera...

## Koldo Atxotegi

Instituto optikokoa
Arrasate

**1. Zeintzuk dira zuek optikan eskaintzen dituzuen zerbitzuak?**
Bezeroek dituzten ikusmen eta entzumen arazoak konpontzeko egiten dugu lan hemen. Betaurreko mota asko eta hainbat lentilla mota eskaintzen dizkiegu ondo ikusi dezaten. Entzumen arazoak ere tratatzen ditugu, eta arazoa entzumenean badago, audiofonoak egokitzen ere espezialistak gara.

**2. Zer behar du betaurreko batek erosoa eta gustukoa izateko?**
Betaurrekoak norberaren aurpegirako aproposa izan behar du, denak ez dute balio eta; aurpegi bakoitzari bere betaurreko estiloa egoki moldatu behar zaio. Pisua ere garrantzitsua da; horretarako lente arin batzuk aukeratzea ere oso inportantea da. Garrantzitsuena norbera eroso sentitzea da.

**3. Gaur egun pertsona askok erabiltzen dituzte lentillak?**
Bai, gainera, pentsa daitekeena baino gehiago saltzen dira. Gaur egun, botatzeko lentillen agerpenarekin asko hobetu dira erosotasunean, eta jendeak oso gustura erabiltzen ditu; gainera graduazio mota gehienak konpentsatu daitezke.

**4. Zein motatako audiofonoak eskatzen dizkizue bezeroek?**
Normalean ikusten ez diren audiofono txikiak nahi dituzte; jendeak garrantzia handia ematen diolako gaur egun estetikari. Normalean kalitate handiko audiofono ia ikusezinak ipintzen ditugu.

**5. Zer da gomendagarria ikusmen eta entzumen arazoak ekiditeko?**
Begi-lausoak sortzea ekiditeko, eguzkitako betaurreko aproposak erabili behar dira: UV izpien aurkako filtro egokiekin eguzki handia dagoen lekuetan.
Bestalde, zarata handiko lekuetan ibiliz gero, tapoiak erabiltzea oso garrantzitsua da gortasunaren agerpena ekiditeko.



**EUSKALGINTZA** > KONTSEILUA

# Euskaltzaleei deia BECera joateko, abenduaren 13an

## Kontseiluaren 10. urteurrena dela-eta, ekitaldi erraldoia egingo dute Barakaldoko BECen

**U.M.** > ARRASATE
Ekitaldi-ikuskizun erraldoia. Halaxe deskribatu dute abenduaren 13an Barakaldoko BECen egingo duten ospakizuna. Izan ere, Kontseiluaren 10. urteurrena ospatzeko ekitaldia iragarri dute egun horretarako. Kontseilua osatzen duten 45 erakundeek parte hartuko dute, nork bere ekarpenarekin.

Ekitaldi berezia izango da eta guztia antolatzeko dagoeneko egin dute batzarra Txatxilipurdi, AED, EHE eta AEK erakundeek. Besteak beste, euskalgintza osoari eta herritarrei deialdia egiteko erabakia hartu zuten; izan ere, guztien artean gura dute erabaki Arrasaten Kontseiluaren ospakizunaren harira egin behar dituzten ekitaldiak. Hala, batzarra deitu dute azaroaren 10erako, 18:30ean, Kulturateko Loramendi aretoan.

Euskalgintzak iragarri du, baita ere, BECerako autobuserako izena eman beharko dela aldez aurretik eta epe hori datorren astean zabalduko dutela. Autobusez joan gura ez duenak: *www.nierebanoa.com*.

**AED-REN 25. URTEURRENA**
Bestalde, Euskalgintzarekin segituz, eguenean, azaroaren 13an, hitzaldia egingo du Iñaki Martinez de Lunak (EHU): *Hizkuntza gutxituak mundu globalizatuan. Eta euskara zer?*. AEDren 25. urteurreneko ospakizunen barruko ekitaldia da.

**ARRASATEKO UDALA** > SOLDATA IGOERAK

# Soldata igoerak kargudunen lanaren ordainsariak dira

## Maiatzaren 28ko osokoan erabaki zuten hainbat karguren soldatak igotzea

**U.M.** > ARRASATE
Estatuko abokatua ikertzen dabil hainbat udalerritan EAE-ANVko kide edo kide izandako kargudunen soldata igoerak. Hala azaldu dute hainbat komunikabidek. Hain zuzen ere, Arrasateko Udaleko kasua aipatzen dute, esanez 250-300 bat euroko igoera izan dutela zinegotziek. Eta izan ere, hala da. Maiatzaren 28an landu zuten kontu hori Arrasaten, osoko bilkuran. Bi erabaki hartu zituzten orduan: batetik, EAEko kide zirenak Talde Mistora pasatzea eta bestetik, aurrekontuen exekuzio oinarriak aldatzea.

Hain justu, bigarren puntuan proposatu zituzten soldata igoerak edo alderdi politiko bakoitzari dagozkion ordainsariak. Puntua onartu zuten aldeko 12 botorekin eta kontrako bakarrarekin. Alde bozkatu zuten Talde Mistoko kideek, EAJkoek, EB-Zutik koaliziokoek eta EAkoak. Aurka bozkatu zuen PPko zinegotziak.

Ino Galparsoro alkateak argi utzi gura izan du, batetik, eurek ez dutela Estatuko abokatuaren ikerketaren gaineko jakinarazpen ofizialik, eta bestetik, soldata igoera horiek direla ordezkari bakoitzak duen karguaren ordaina. Gogora ekarri gura izan du gobernua apurtu eta EAE bakarrik geratu zenean, 10 zinegotziren artean egiten zuten lana zazpiren artean egiten dutela. Eta horren ondorioz, besteak beste, liberatu bat gutxiago dagoela.

> MERKATARITZA

### Arrakastatsua izan da Ibai Arte merkatari elkarteak ateratako txartelaren estreinaldia

Dagoeneko 2.000 Ibai Arte txartel egin ditu herriko merkatari elkarteak eta jendea badabil txartela erabiltzen: "Behin, harategi batean 40 bezerok erabili zuten txartela", kontatu du Arantza Arantzabalek, Ibai Arteko presidenteak. Izan ere, azaroaren 15era bitartean, %5eko beherapena dute erosketak Ibai Arte txartelarekin egiten duten bezeroek. Eta txartel hori erabil daiteke Ibai Arteko saltoki guztietan: harategi, arrandegi, belar-denda, jostailu-denda, jantzi-denda, etxerako dekorazio saltokiak, gasolindegiak... Denetik batzen du elkarteak. Adibidez, gasolindegien kasuan, Mecak %2ko beherapena aplikatuko du, baita azaroaren 15etik aurrera ere.


Eguaztenean hainbat etorkinek bat egin zuen osoko bilkuren aretoan, euren gaineko diagnostikoaren gainekoak entzuteko. U.M.

**GIZARTEA** > ETORKINAK

# Etorkin kopurua ia laukoiztu egin da azken sei urteotan

## Arrasateko Udalak Udalerriko Inmigraziorako Planerako aurreneko pausoak eman eta herriko etorkinen egoeraren diagnostikoa egin du

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Sei urtean laukoiztu egin da Arrasaten bizi den etorkinen kopurua. Horixe da Udalak bideratuta, etorkinen gainean egin duten diagnostikoaren emaitzetako bat; eguaztenean aurkeztu zuten txostena, udaletxeko areto nagusian eta Arrasaten bizi diren hainbat etorkin izan ziren adi-adi entzuten emaitzok.

Txostenak utzi dituen kopuruetako batzuk honako hauek dira: 2002an, 199 etorkin zeuden erroldatuta Arrasaten; 2008an, berriz, 721 etorkin daude. Arrasateko bizilagunen %3,27 dira horiek. 41 herrialdetatik etorritakoak dira, baina gehienak dira kolonbiarrak eta portugaldarrak, 25-50 urte bitartekoak, eta hona lan bila datozenak.

Hain justu, hori da hona iristean duten zailtasun nagusietako bat: lana aurkitzea. Bestea etxebizitza lortzea da.

Lan motei dagokienez, berriz, gizonek industria eta eraikuntzan jarduten dute; eta emakumeek etxeko lanak egiten, edo zaintza eta ostalaritza zerbitzuetan.

Bestalde,azpimarratu duten beste datuetako bat da etorkinen auzian herritarrek jarrera aktiboa izan behar dutela: "Gu beraiekin eta beraiek gurekin"; hala azaldu zuen Olatz Errazkinek, diagnostikoa egin duen Prospektiker enpresako ordezkariak.

**BASERRIA** > ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

# Lau baserritarri omenaldi berezia, biharko azokan

## 70 urtetik gora duten lau emakume omenduko dituzte

## 09:00etatik 14:00ak arte izango dira zabalik postuak

**U.M.** > ARRASATE
Arrasateko hamar baserritako produktuak Seber Altuben salgai ipiniko dituzte bihar, 09:00etatik 14:00etara, Arrasateko Baserriko Produktuen Azokan. Iragarri dute, baita ere, bertsolariek girotutako ekitalditxoa ere egingo dutela: Lankuren *Zazpi Astoren Gainean* saioa, 12:00etan.

Baina horrekin batera, omenaldi berezia ere iragarri dute egun horretarako: "Esker on adierazpen bat egin gura dugu, Udalaren partetik urte luze askotan azoka plazara astero joan diren lau baserritarri: 70 urtetik gorako lau emakumeri egingo zaie, gazte-gaztetatik ari direnak azoka plazara baserriko barazki eta janari freskoak ekartzen eta herritarrei modu tradizionalean erosteko aukera ematen: *Artia* baserriko Gregori Markaide, *Bidasoro* baserriko Kontxita Berezibar, *Artazubiaga*-ko Dominga Galdos eta *Ikutixo*-ko Maria Arana omenduko ditugu", azaldu du Marga Garmendia, azokaren antolaketa arduradunak.

**AUZOAK** > SAN ANDRES EGUNEKO AZOKA

# San Andres Eguneko Ferixie, azaroaren 29an, San Andresen

San Andres Eguneko Ferixie aurreneko aldiz egingo dute, auzoko giroa indartzeko

San Andres bezperan egingo dute, zapatuan, domeketan jende gutxitxo ibiltzen delako

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Etxeko eta kanpoko produktu eta ikuskizunak, folklorea, batu eta San Andres Eguneko Ferixie egin behar dute, aurten aurreneko aldiz, San Andres auzoan. "Zelan San Andresen ez dagoen ezer…", azaldu du Aitor Guridik, San Andresko alkateak. Hark gaineratu du azoka egiteko ideia Extremadurakoengandik irten zela: "Haiek urtero joaten dira Aretxabaletako azokara eta komentatu zuten: Aretxabaletan egin bagenezake, zergatik hemen ez? Eta halaxe atera zen ideia".

Pentsatu eta egin. Dagoeneko lotu dituzte makina bat lekutako ordezkariak erakartzea Arrasatera.

Gudari plazan ipiniko dituzte postuak, zapatuan (azaroaren 29an) egun osoan eta, uzten badiete, domeka eguerdira arte: "Eskatu dugu Udalean baimena, domeka eguerdira arte egoteko, izan ere, talde gehienak kanpotik datoz eta eskatu dute negozio apur bat egiteko ea posible den baimena luzatzea".

**OLAGARROA, ARDOAK ETA ABAR**
Guretik gertuko eta ez horren gertuko ordezkaritza izango da San Andres Eguneko Ferixien. Gastronomiari dagokionez, Kantabriatik (Torrelavega) gazta, hestebeteak (enbutidoak) eta kesada ekarriko dute; Errioxatik zahatogilea, ardoa eta piperrak; Gaztela eta Leondik, zezina eta bestelako hestebeteak; Extremadurako eta Zaragozako produktuak ere izango dira, eta Galiziatik, adibidez, tarta, gazta eta olagarroa ekarriko dituzte.

**ARRASATEKO ORDEZKARITZA**
Hemengo parte-hartzaileei dagokienez, berriz, izango dira Jakion, Ekin Emakumeak (taloekin), baserritarren bizpahiru postu (txakolin, gazta eta beste; San Andresen baserririk ez dagoenez, Bedoña auzokoak gonbidatu dituzte).

**FOLKLORE IKUSKIZUNAK**
Kultura ekitaldiei dagokienez, Galizia, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Aragoiko dantza eta musikariak izango dira; eta, Arrasateko dantza talde batek ere egingo du ikuskizuna. "Andaluziarrekin ez dugu ezer lortu, hemengoek zerbat berazia dute-eta egun horretarako. Beste leku batzuetako taldeei galdetu diegu, baina inork ezin du. Pena handia da, San Andresen andaluziar barik… Uste dugu datorren urterako ez dela arazorik izango", dio auzo alkateak.


Argazkiak erakusten du lehen San Andres auzoan bazirela baserri bat baino gehiago. ISAZELAIA

ARTXIBOA

## Auzoaren gaineko liburu edo artxiboren bat egin guran dabiltza

Lehen San Andres auzoa oso handia zen: 28 bat baserri zituen, hiru ermita ere bai: La Santa Cruz de Olandiano; San Andres baserria, lehen ermita zena; eta San Josepe (San Jose eta De Las Nieves izena ere bazuen). Irin-errota ere bazuen eta oso ezaguna zen, adibidez, San Andrestik egiten zuten Gurutzebidea: parrokiatik irten eta San Josepe ermitaraino. Bada, hori guztia desagertuta dago; are gehiago, Arrasateko eta San Andres bertako bizilagun askok halako historiak sekula ez dituzte entzun ere egin. Bada, hori konpondu guran eta hainbat auzotarrek interes handia erakutsi dutela-eta, San Andres Auzoko Batzordea informazioa batzen hasi da: argazkiak, baserrien gaineko historia, ermitenak eta beste. "Asmoa da informazio guztia batu eta ea noraino ailegatuko garen. Egin dezakegu argazki liburu bat edo, informazio nahikoa batzen badugu, zerbait dezenteagoa", kontatu du auzo batzordeak. Beraz, eskaera egin gura diete San Andresen gaineko informazioa edo materiala dutenei, eraman dezatela San Andresko alkatetzara. Gero bueltatuko dute guztia. Alkatetza zabalik da martitzen eta eguenero, 17:00etatik 19:30era.

> PRESOAK
### Bigarren eskuko azokarako produktuak batzen

Presoen aldeko Portaloira Topagunea hasi da bigarren eskuko azoka antolatzeko materiala batzen. Jantzi eta osagarrien azoka egingo dute, abenduaren 13an eta 14an. Materiala eraman behar da Gure Leku, Iluntz edo Irati tabernetara, abenduaren 10a baino lehen.

> OHITURAK
### Gaztaina-jana egingo dute herri eskolakoek, plazan

Gaztain erre eguna ospatu dute asteon Arrasate Herri Eskolako Musakola, Erguin eta Bedoñabeko neska-mutikoek. Horrez gainera, iragarri dute azaroaren 14an, egubakoitza, eskolako guraso elkarteak antolatuta, gaztaina-jana egingo dutela Herriko Plazan, 17:00etan.

> NAGUSIAK
### Abaroako dantza eskolak lekuz aldatu dituzte asteon

Abaroa Erretiratuen Egoitzatik jakinarazi dutenez, joan den eguaztenaz geroztik, Abaroan egiten zituzten dantza eskolak Esliming Gimnasioan (Erguin 3, behea) izango dira aurrerantzean. Ordutegia lehengo bera da: 10:00etatik 11:00etara, eguaztenetan. Oraindik izena eman daiteke.

> KINTOAK
### Kinto bazkaria egingo dute 1954koek, azaroaren 22an

San Andresko parrokian meza (12:30), txikiteoa Arimazubi plazan, bazkaria Hilarion jatetxean eta dantzaldia. Horixe da 1954ko kintoendako prestatu duten ospakizuna. Izena eman behar da azaroaren 15a baino lehen, eta 50 euro ordaindu, Euskadiko Kutxan.

arrasaten - biteri 11 - 943 08 15 40
biteri aparkaleku parean
prakaren hamabostaldia
%10
PROMOZIOA
azaroaren 3tik 15era arte
lehen markako denboraldiko jantzietan
ENERGIE
DIESEL
FOR SUCCESSFUL LIVING
zuzenean deskontuak!
badabil

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Ana Moura abeslariarekin hitzordua dute bihar fadoa gustuko dutenek

Gazte portugaldarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 20:00etan; sarrera bakoitzak hamar euro balioko du

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Ana Moura fado abeslariak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian. Portugaldarrak *Guarda-me a vida na maio*, *Aconteceu* eta *Para Além da Saudade* izeneko diskoetan jasotzen dituen xarma handiko kantuak abestuko ditu horretan. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euro balio du.

Gaztea bada ere –29 urte besterik ez–, ibilbide luzeko abeslaria da Moura. Egindako lanen artean, The Rolling Stones musika talde mitikoaren disko eta bira batean parte hartu izana aipa daiteke.



Ana Mouraren ahots erakargarria entzuteko aukera izango dute arrasatearrek bihar, zapatua. PAULO SEGADAES

Ana Moura Portugalgo Santarem hirian jaio zen. Txikitatik izan du fadoarekin lotura estua, etxean betidanik entzun duen musika estiloa da-eta. Horren harira, behin baino gehiagotan gogora ekarri du gurasoek ondo abesten zutela eta familia biltzen zen bakoitzean guztiek kantatzen zutela.

Betidanik fadoa gustukoena izan badu ere, beste hainbat musika estilotan ere jardun du portugaldarrak. Nerabea zela, jaioterrian, rock eta popa lantzen zuen musika talde batean ibili zen. Eskaintzen zituzten kontzertu guztietan, baina, gutxienez fado kantu bat abesten zuen.

Handik gutxira fado etxeak bisitatzen hasi zen, musika estilo horren gainean gehiago ikasteko. Ez zuen denbora galdu eta 2003an bere lehen diskoa kaleratu zuen, *Guarda-me a vida na maio* izenekoa. Horrek ateak ireki zizkion; mundu osotik kontzertuak eskaintzen hasi zen. Handik urtebetera, *Aconteceu* izeneko bigarren lana argitaratu zuen. Kritika onak jaso zituen lan horregatik. Garai hartan, gainera, The Rolling Stoneseko kide Tim Ries saxo-jolea ezagutu eta horrek talde mitikoarekin kolaboratzeko aukera eskaini zion. 2007an, *Para Além da Saudade* diskoa kaleratu zuen.

**EUROPATIK BIRA**

Portugaldarrak sari asko jaso ditu azkenaldian. Orain, Europatik bira egiten dihardu eta Arrasate horren barruan dago. Esan bezala, bihar, 20:00etan, emanaldia egingo du Mourak Amaia Udal Antzokian.

**ZINEA** > II. HISTORIA ETA ZINEMA JARDUNALDIAK

# Arizmendikoek 'Sin Novedad en el Alcazar' filma botako dute

Martitzenean amaituko dira historia eta zinemaren gaineko jardunaldiak; Xose Manoel Nuñez katedradunak emango ditu film horren azalpenak

**M.B.** > ARRASATE

II. Historia eta Zinema jardunaldiak antolatu ditu azken asteotan Arizmendi Ikastolak. Urriaren 14an ekin zioten eta datorren martitzenean, hilak 11, amaituko dute horrekin. Egun horretan Augusto Geninaren *Sin Novedad en el Alcazar* filma botako dute 18:00etan. Santiago de Compostelako unibertsitateko Xose Manoel Nuñez Seixas irakasleak horren gaineko azalpenak emango ditu. Historia Garaikidean katedraduna da.

**FILMA ESANGURATSUA**

Espainiako Gerra osteko pelikula esanguratsuena da *Sin Novedad en el Alcazar*. 1940an egindako film horretan azaltzen da gerra hura lehertzerakoan, Toledoko Alkazarra, garai hartan akademia militarra zena, nazionalen erresistentziako gotorleku bihurtu zela eta Moskardo koronelaren agindupean, hiru hilabetetan han eutsiko diotela errepublikarren setioari. Pelikula zuri-beltzean da eta 95 minutu inguru irauten ditu.

> ZARZUELA

### 'El Barberillo de Lavapies' zarzuela Amaia Udal Antzokian ikusteko sarrerak geratzen dira oraindik

Azaroaren 1ean ipini zituzten salgai *El Barberillo de Lavapies* zarzuela ikustera joateko sarrerak. Herrian dagoeneko sarrera guztiak agortu direla zabaldu da. Baina, hori ez da horrela. Kutxan eta Amaia Udal Antzokian eros daitezke. Izaskun Murgia elkarteak lau saio egingo ditu: azaroaren 22 eta 23an eta azaroaren 29 eta 30ean. Saio bakoitzean 680 bat ikuslerendako lekua dago.

> ZINEMA

### Jose Luis Cuerdaren 'Los girasoles ciegos' filma ikus daiteke gaur, domekan eta astelehenean

Azaroko kultura eskaintzaren barruan, Jose Luis Cuerdak zuzendutako *Los girasoles ciegos* filma botako dute gaurtik astelehenera bitartean Amaia antzokian. Drama bat da eta 101 minutuko iraupena du. Hamahiru urtetik gorakoendako zuzenduta dago. Maribel Verduk, Javier Camarak eta Raul Arévalok parte hartzen dute, besteak beste, filmean. Gaurko emanaldia 22:00etan izango da; domekakoa, hilak 9, 19:30ean eta astelehenekoa, azkenik, 22.30ean.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur azaroak 7
00:00 etatik aurrera
Mari La Vikinga
TVE-ko "el rey de la comedia" saioko finalista


# Deskontu ikaragarriak aurrez erositako bidaietan

Aprobetxa zaitez krisiaz!

Denborada osoan astebukaerero autobusak

**FRANTZIAKO PIRINEOAK**
(Cauterets): 128 €
Residencia Les Marquises.
4 pertsonentzako estudioa.
2 gau + 2 FF



**ANDORRA**
PAS DE LA CASA:
6 lagunentzako estudioa.
3 gau + 3 FF: 239 €
Abenduaren 25 etik 28ra.
4 gau + 4 FF: 311 €
Abenduaren 26tik 30era.



**EZKON-BIDAIAK**
Prezio paregabeak
ditugu ezkon-berritan
egingo duzun bidairako.

**ESKAINTZA BEREZIA**

Erreserba ezazu
**ASTE SANTUETARAKO BIDAIA,**
orain ditugun
**prezio bereziak**
aprobetxatuz.



**ITSASBIDAIAK**
Azaroaren 29a baino lehenago erreserbatuz gero %
20 ko beherapena

**AZAROKO ESKAINTZA BEREZIA**

- **Bizikleta-eramatekoa**
- **Eski-eramatekoa**
- **Berria**



Astebukaera baterako autokarabana.
(6 pertsonentzako): 300 €



**LISBOA** 185 €
Abenduko zubia
(Abenduaren 5tik 8ra. )
Hotel Roman egonaldia
O+G

**Oharrak:** tasak eta erregaia ez daude barruan.
OG: Ohea eta gosaria
ME: Mantenu erdia
FF: Forfaith

# Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

marsans viajes

ARRASATE BIDAIAK • Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE • Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45 •E-posta.: d4051@marsans.es

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Sucesores de Agirre taldea hartuko du bihar Ford Mugarri Arrasatek

Orgazen mutilek sailkapeneko azken postuan dagoen taldea izango dute aurrean

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

"Ez dut uste oraingo asteburuko kontrarioak edota Urdanetak denboraldian zehar norgehiagoka asko irabaziko dituztenik, eta bat edo bat irabazten badute, ezin da gure kontra izan", adierazi du Edu Orgazek aste barruan: "Gu oraindik talde moduan egiten gabiltza, egokitze prozesuan, jokalariendako oraindik berriak dira egiten ditugun entrenamenduak, jokatzeko modua... Uste dut aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dugula talde moduan egiteko, baina lortuko dugu".

Hala, Ford Mugarriko entrenatzaileak argi ditu helburuak: "Berez, sailkapenean gure tokia bosgarren eta bederatzigarren postuen artean dago, eta inguru horretan dabiltzan taldeek izan behar dute gure kontrario –orain momentuan Ford Mugarri zortzigarren dago–. Hala ere, oso argi daukagu kategoria horretako edozein talderi irabazteko gauza den taldea garela, baina baita ere, Euskadiko Txapelketan edonork eman dezakeela ezustekoa".

Biharko partidura begira (16:00etan, Iturripen), taldeak dakien moduan lan egiten badu, ez ei dute kontrariorik izango: "Hasiera-hasieratik lortu behar dugu partiduan agintzea, geure jokoa eta geure erritmoa ezartzea izango da kontua". Eta, bistan da aginte lanak hartzeko Sucesores de Agirre taldeak beste askok baino erraztasun handiagoak emango dituela, ligako sei jardunaldietatik talde horrek partidu guztiak galdu dituelako.

**ONENA, BARAKALDON**

Orain arteko partiduen gainean galdetuta, bistan da El Pilarren kontra lortutako garaipenak balio handia izan zuela, azken unean lortu zutelako etxean irabaztea (22-21). Eta, Hondarribiko puntua ere garrantzitsua izan zela onartu du Orgazek, nahiz eta azken jokaldian gol bat aurretik izan ziren.

Baina, entrenatzaile bergararrak ez dauka dudarik, orain arteko partidu onena Barakaldoren kontrakoa izan zen, nahiz eta galdu: "Egia da aurrealdean dabiltzan talde gehienen kontra dagoeneko jokatu dugula. Ea hori aprobetxatuta poliki-poliki gora egiten dugun".

**ERRUGBIA** > EMAKUMEZKOAK

# Euskadiko eta Kataluniako selekzioak zein baino zein gehiago, bihar Mojategin

Estatu mailako bi selekzio indartsuenek jokatuko dute bihar Mojategin, 18:00etan

Euskadiko selekzioaren barruan ez da Arrasateko taldeko ordezkaririk izango

**X.U.** > ARRASATE

Pirinioetako Lan Elkartearen Emakumezkoen Nazioarteko III. Torneoa jokatuko dute bihar Mojategin (18:00), eta orain arte lauko torneoak egin izan badituzte ere, Nafarroako eta Iparraldeko selekzioak ez dira Mojategiko berdegunean izango, egutegi kontuengatik ezin izango dutelako etorri. Bi selekzio horiek kanpoan utzita, estatu mailako talde indartsuenak izango ditugu aurrez aurre: Euskadi eta Katalunia –Arratsaldeko norgehiagokarekin batera, 10:00etatik 13:00ak bitartean Euskadiko selekzioak entrenamendu saioa egingo du Mojategin.



Euskadiko selekzioko neskak, martxoan jokatu zuten autonomien arteko finalean, Madrilen kontra. WWW.EUSKADIRUGBY.ORG

**SELEKZIOA OSATUKO DUTENAK**

Euskadiko Selekzioa osatuko dute, besteak beste, Getxo Artea (Espainiako Kopako irabazleak), Euskotran Gaztedi edota Atletico San Sebastian taldeetako jokalariekin, hau da, ligan Arrasateko nesken kontra jokatzen duten jokalariekin. Gainera, Espainiako selekzioko hautatzailea ere Mojategin izango da, bi taldeetako jokalarien jarraipena egiten.

Jokalari horien guztien artean, baina, ez da Arrasateko taldeko ordezkaririk egongo. Hain zuzen, goiz da horretarako, etxekoek bi urteko esperientzia baino ez daukate-eta kirol horretan: "Baina errugbia gertutik jarraitu eta neskek horrelako partiduetatik ere ikas dezaten ekarri dugu torneo hori Arrasatera. Kirol hori sozializatzea da gure helburua, herritarrek zer nolako kirola den ikus dezatela", adierazi du taldeko ordezkari *Kako*-k.

**ERRUGBIAREKIN BURU-BELARRI**

Ekimen hori ARTko taldea errugbia bultzatzeko egiten dabilen ahaleginaren beste adibide bat da. Emakumezkoen, gizonezkoek eta kadete mailako taldeekin batera –kadeteek Durangokoekin batera jokatzen dute– Arrasateko taldeak errugbi eskolak egiten ditu domekero, ibarreko gaztetxoendako, eta orain, baita ere, Eskola Kirolean daude murgiluta. Zapatuan, DBHko 3. mailako ikasleek errugbian jardungo dute. Horrekin batera, entrenatzaileendako kurtsoak ere antolatu dituzte.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Abokajarro-Bar Aldapa | **3-3** |
| Total Disaster-Saukelu Kabia | **1-6** |
| Lasagabaster-Iriztu Taberna | **0-4** |
| Betrayer-AT Celaya | **3-4** |
| Ekaitz Taberna-Iturriotz Taberna | **3-9** |
| Hlb 108-Urza | **6-3** |
| Iluntz-Equs | **1-1** |
| Paulaner Dribling-Cipris | **1-1** |
| McAwenDauen-Dublin Irish Pub | **6-5** |

**PARTIDUAK**

| **Azaroak 8, zapatua** | | **Epaileak** |
|---|---|---|
| **10:00** | Abokajarro-Equs | **Iriztu Taberna** |
| **11:00** | McAwen Dauen-Iriztu tab. | **Abokajarro** |
| **12:00** | AT Celaya-Iturriotz | **McAwen Dauen** |
| **13:00** | Betrayer-Saukelu Kabia | **AT Celaya** |
| **16:00** | Lasagabaster-Paulaner Drib. | **Iluntz** |
| **17:00** | Iluntz-Cipris | **Paulaner Dribling** |

| **Azaroak 9, domeka** | | **Epaileak** |
|---|---|---|
| **11:00** | Ekaitz-Bar Aldapa | **Dublin Irish Pub** |
| **12:00** | HLB 108-Dublin Irish Pub | **Ekaitz Tab.** |
| **13:00** | Total Disaster-Urza | **HLB 108** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 9 | 3 |
| **2.** | Iriztu Taberna | 9 | 3 |
| **3.** | Paulaner Dribling | 7 | 3 |
| **4.** | HLB 108 | 6 | 3 |
| **5.** | Betrayer | 6 | 3 |
| **6.** | AT Celaya | 6 | 3 |
| **7.** | Saukelu Kabia | 6 | 3 |
| **8.** | Abokajarro | 4 | 3 |
| **9.** | Iluntz | 4 | 3 |
| **10.** | Bar Aldapa | 4 | 3 |
| **11.** | Iturriotz Taberna | 3 | 3 |
| **12.** | Dublin Irish Pub | 3 | 3 |
| **13.** | Lasagabaster | 3 | 3 |
| **14.** | Ekaitz Taberna | 3 | 3 |
| **15.** | Cipris Taberna | 1 | 3 |
| **16.** | Equs | 1 | 3 |
| **17.** | Urza | 0 | 3 |
| **18.** | Total Disaster | 0 | 3 |

### McAwen Dauen eta Iriztu, aurrez aurre

Hori da oraingo asteburuko norgehiagoka erakargarrienetako bat, aurreko postuetan dauden bi taldeak aurrez aurre (zapatuan, 11:00etan). Azken postuan daudenak ere elkarren kontra lehiatuko dira.

**BESAIDE**

# Azaroaren 23an, mendi zeharkaldia

**X.U.** > ARRASATE

Besaidek azaroan antolatu dituen irteeretako lehena egingo dute domekan, Urkiola aldera. Horrekin batera, datorren azaroaren 23an egun osoko irteera egingo dute, hasi Galarretan –Zalduondo ondoan, Araban– eta Arantzazuraino. Irteera horretarako 07:30ean jarri dute hitzordua.

**IZENA EMATEKO EGUNAK**

Azaroaren 23ko mendi irteerarako izena emateko egunak dira azaroaren 17a, 18a eta 19a. Antolatzaileak Besaideko egoitzan izango dira, 19:30etik 20:30era.

nire bidaia hura

Jone Gantxegi
Vietnam > 2008ko udan

# "Vietnamgo Ho Chi Minh ezagutu dudan hiri kaotikoena da; zirkulazio handia dago han"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

**Uztailaren 23an abiatu zen Jone Gantxegi Vietnam aldera, Aritz Juarros, Alfonso Romera, Garikoitz Arregi eta Aitana ahizparekin. Erreserbarik egin gabe joan ziren, baina bidaia "zoragarria" egin zutela esan digu.**

Vietnamgo kulturak, paisaiak, jendarteak eta janak erakarrita ekin zion bidaiari boskote arrasatearrak. 12 orduko bidaia egin ondoren (Bilbo-Alemania-Thailandia-Vietnam), Hanoira heldu ziren. " Hanoiko zubi gorriak, pagodak, hiri zaharra eta Ho Chi Minh-en mausoleoa bisita genituen. Ondoren, Halongeko badiara joan ginen. Toki ederra da, sekulakoa".

Handik Iparraldera egin zuten, Sapa herriraino, eta mendira egindako txangoan, hango tribu batzuen etxean egin zuten lo. Afaldu eta gosaldu ere eurekin egin zuten.



Jone Gantxegi.

**"Sapa herrian hango tribu batzuen etxean egin genuen lo eta bazkaldu"**

**"Hoi An-en neurrira egindako zetazko soineko eta alkandorak erosi genituen"**

**URETAKO TXOTXOGILOAK**

Hanoiko uretako txontxongiloak ikusi ondoren, zetazko arropak neurrira egiten dituzten Hoi An-era joan ziren. "Ahizpak eta biok soineko eta alkandora bana egin genituen neurrira. Gainera, herria oso polita da eta hondartza ederrak ditu".

Natrang-en bi buda erraldoi ikusi zituzten: "Bat etzanda zegoen, eta bestea, zutik. Ikaragarriak ziren, hiriko hainbat lekutatik ikusten ziren-eta. Hotelak bazter guztietan zeuden. Nik behintzat, Salou-ren itxura hartu nion Natrang-i".

**ATSEDEN HARTZEKO UNEA**

Bidaiatzen egin zituzten 26 egunetatik bost Mui Ne izeneko kostaldeko herritxo baten eman zituzten. "Atseden hartzeko beharra genuen, leher eginda geuden-eta. Lasai-lasai egon ginen egurrezko txabola batzuetan. Indarrak berrituta Vietnamgo hiri populatunera, Ho Chi Minh-era. Duda barik ezagutu dudan hiririk kaotikoena da: zirkulazio handia dago han eta pertsona asko bizi da. Gainera, euria ere egin zigun". Ho Chi Minh-en gerrako museoa, merkatua, Notre Dame eliza eta askotariko dendak bisitatu zituzten. Oraindik denbora izan zuten Camboyanko Angkor hiriko tenploak ikusteko.

**OROITZAPEN ONAK**

Udan egindako bidaiatik oroitzapen onak dituzte: "Nik guztiei gomendatuko nieke Vietnamera joatea. Ostatua errez topa daiteke eta janaria ere nahiko ona da. Hango bizilagunen artean denetarik aurkitu genuen, baina duda barik, adeitsuenak Sapa-ko bizilagunak izan ziren. Harrigarriena zirkulazioa izan zen. Gehienak motorrean ibiltzen dira. Familia osoak ikusi genituen motor gainean batera: gurasoak eta hiru seme-alabak".



Garikoitz Arregi, Alfonso Romera, Aitana Gantxegi eta Aritz Juarros, Hanoin.



Jone Gantxegi, Sapa herriko zelaiak atzean dituela.



Halong-eko badiako itsasontziak.

bere ustez



Zuriñe Velez de Mendizabal

## Deskontuekin konforme gaude?

Ez da berria autobidearen egoera tamalgarria, eta gertu egokitzen zaigu gainera. Adibidez, Arrasaten bidesaria ordaindu eta segituan ditugu aurreneko obrak; kilometro pare bat eta lehenengo eragozpena gaindituta. Baina bizpahiru tunel igaro eta ia egunero langileek karril bat mozten dutela ohartuko gara. A8an gauzak ez dira hobetzen. Usurbilerainoko bidea egin behar izaten dut egunero eta zoritxarrez "ohitzen" ari naiz. Horrek ez du kentzen nire buruari baieztapen bera egitea:"Hori da hori autobideko lan mordoa!". Eguneroko sorpresa berriengatik ibilbidearen %60an 80km/h-ra gidatu behar dut.

**"Urte hasieran datoz deskontuak. Bidea txukun ez badago, ez dira nahikoak izango"**

Ez dut esan gura obrak beharrezkoak ez direnik; ezta gutxiago ere! Baina lotsagarria iruditzen zait errepidea ondo egongo balitz bezala ordaindu behar izatea. Lehen nabaritzen nuen eguneroko kostua, baina orain? Krisiarekin bueltaka gabiltzala, ez al du egoera honek erabiltzaileon poltsikoak ukitzen? Urte berriarekin omen datoz deskontuak; nahikoa izango ote dira? Bidea txukun topatu ezean, ezetz deritzot.

Benetako deskontuak edota bidesaria kendu, hortxe nire iritzia.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es



Cavern tabernaren eta Maya arropa dendaren artean daude Domingo Iralako komun publikoak. O.E.

**ZERBITZUAK** > KOMUN PUBLIKOAK

# Domingo Iralako komun publikoak zabalik daude gaurtik aurrera

Emakumeendako eta gizonendako komun bana daude, biak urrituendako egokituak, eta umeei fardelak aldatzeko tokia ere badago

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Domingo Irala kalean egin dituzten komun publikoak zabalik daude. Edonork erabili ditzake gaurtik aurrera.

**UMEENDAKO ALDA-LEKUA**
Cavern tabernaren eta Maya jantzi dendaren artean daude Domingo Iralako komun publikoak. Ate nagusia zabaldu eta pasillo bat dago barruan. Pasillo horretan bi ate daude: batetik emakumeendako komunera sartzen da eta bestetik gizonendakora. Biak daude egokituta urritasunak dituztenendako. Pasilloaren erdian, umeei fardelak edo arropa aldatzeko tokia dago: umeen alda-lekua. Orain arte ez zegoen inon horretarako tokirik, baina hemendik aurrera, bai.

**ORDUTEGIA IZANGO DUTE**
Domingo Iralako komun publiko horiek ordutegia izango dute, ez dira egun guztian zabalik egongo. Gauetan, adibidez, itxita egongo dira. Hauxe da zabalik egongo diren ordutegia: 10:00etatik 21:00etara.

Komun horien garbiketa zerbitzua ere lotuta du dagoeneko Udalak.

**USONDON ERE BAI**
Domingo Irala kalean ez ezik, Usondo parkean eta autobus geltokian ere badaude komun publikoak eta zabalik jarraitu dute. Berriak eginagatik ez dituzte aurretik zeudenak itxiko.

Irailean zabaldu zuten Domingo Irala kalea baina kaleko tresneria poliki-poliki ari dira jartzen. Lorateigiak apaindu dituzte dagoeneko, eta zuhaitz batzuk jartzea falta da orain.

**ZERBITZUAK** > KULTURA ARETOA

# Zabalotegi aretoko araudia prestatzen ari da Udala

Nork erabili dezakeen eta alokairua kobratuko duten edo ez jasoko du

Aretoa nola kudeatuko duten ere jasoko du arautegi horrek

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Zabalotegi areto eraberrituaren erabilera definituko duen arautegia egiten dihardu Udaleko kultura sailak. Arautegi horrek jasoko du, besteak beste, honakoa: aretoa nork eta noiz erabili dezakeen, ordaindu behar duen edo ez erabiltzeagatik eta nola erabili behar duen. Aretoaren kudeaketa ere jasoko du arautegi horrek.

**ARETOAREN ERABILERA**
Joan den egubakoitzetik dago zabalik Zabalotegi aretoa. Hortxe egingo dituzte Udalak antolatutako formatu txikiko antzezlanak, ikastaroak edo ikus-entzunezkoak, adibidez.

Aretoa herriko edo kanpoko elkarteek edo atarietako bizilagunek ere erabiltzeko aukera egon daiteke eta erabilera hori ere jasoko du arautegiak. "Batetik, kultura elkarteek erabili dezakete, eta bestetik, enpresek, adibidez. Bigarren kasu horretan aretoa erabiltzeagatik kobratu egingo den edo ez erabakitzeke dago oraindik, eta beraz, alokairuaren prezioa ere bai, noski, alokatzea erabakitzen bada", zehaztu du Enara Minguez Kultura zinegotziak.

**KUDEAKETA, LOTZEKE**
Erabilerarekin batera, aretoaren kudeaketa ere jasoko du prestatzen ari diren arautegi horrek. Aukera ezberdinak aztertzen ari da Udala, adibidez, udal lanpostu bat atera lan hori egiteko edo kontratu bidez bete. Oraindik lotzeke dute gai hori baina asmoa da hilabete honetan hartzea erabakia. Lotuta dagoena da Zabalotegiko ekitaldi guztien sarrerak aretoko leihatilan eskuratuko direla.

> HIZKUNTZA

## Keinuen hizkuntzako ikastaroak egingo ditu Aransgik urtarrilean

Aransgi elkarteak keinuen hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu Udaleko Gizarte Ongizate sailaren laguntzarekin. Ikastaro horiek urtarrilean egingo dituzte eta 30 orduko iraunpena izango dute. Hasierako mailako eskolak zein sakontze mailakoak emango dituzte. Ikasle kopurua mugatua da eta senitartekoek edo lagunek lehentasuna izango dute. Izena emateko deitu zenbaki honetara: 943 76 27 03.

> AUZOAK

## Antzerkia gaur, eta zinema domekan, Osintxu auzoan

Osintxun Gatañatan izeneko egitaraua prestatu dute hilabete honetarako. Horrela, gaur, egubakoitza, *Patetik kabareta* izeneko antzezlana izango dute Txuringon, 22:00etan. Domekan, berriz, zinema emanaldia izango dute ludotekan, 17:00etan. Jon Arretxe, Jon Andueza, Angel magoa, erretiratuendako bazkaria eta gaztainak eta sagardoa dira egitarauan agertzen diren beste hitzordu batzuk.

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Etxera eramaten dugu
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

AZKARATE AROZTEGIA

Arotz lanetan behar duzun guztia
Ateak // Leihoak
Horma-armairuak // Tarimak
Parketak // Sukaldeak
Telleria 19 B-0-2 B-0-3 // Bergara
Tel.: 943 76 47 19 // 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Denboraldi berriko programazioaren eskuorriak eta kartelak jarriko dituzte datozen egunetan

**KOMUNIKABIDEAK** > FM 97.25

# Txapa Irratiak hasi du denboraldi berria

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Txapa Irratiak hasi du denboraldi berria. Txapak ekoiztutako 10 programa daude egitarauan, batzuk berriak eta beteranoak beste batzuk. Gainerako orduak Arrosako, Euskal Herriko irrati sareko irratsaioekin, antolatzen dituen kontzertuekin eta elkarrizketekin betetzen dituzte.

**IRRATIA ETA ZALETASUNA**

Txapa Irratiak 25 urte beteko ditu 2009ko azaroaren 20an. Hil honetan hasi duten denboraldian 15-20 lagun dabiltza, denak boluntarioak. "Horietako batzuk esatariak dira, beste batzuk arlo teknikoaz arduratzen dira, irratiaren mantenuaz eta Interneteko orria eguneratzeaz, adibidez, eta beste batzuk kontzertuak antolatzen aritzen dira", dio Txapa Irratiko Iñigo Herrerosek. "16 urtetik 36 urte bitarteko bergararrak gara denok", zehaztu du.

Txapa Irratiko denboraldi berrian ere entzungo da musika, baina ez hori bakarrik. "Adibidez, informatikari buruzko programa bat dago aurten, berria. Musikari buruz, argentinar batek Argentinako musika jarriko du. Bestalde, *Ametsetako lurra* irratsaio beteranoak ere jarraituko du emititzen", dio Herrerosek. "Irratia gustuko duen edonor etorri daiteke Txapa Irratira. Irratsaio batzuk hilean behin emititzen dira eta beste batzuk hamabostean behin, bakoitzak ahal duen neurrian prestatzen ditu", dio Txapa Irratiko kideak.

**KONTZERTUA AZAROAREN 29AN**

Arrosako kide izatearren ordaindu beharreko kuota eta interneteko tarifa dira Txapa Irratiak hilero ordaindu behar dituen faktura finkoak baina gastuak gehiago dira: telefonoa edo ordenagailuak, esaterako. Diru hori lortzeko kontzertuak antolatzen ditu tarteka. Hurrengoa, azaroaren 29an, Anestesia eta Cobra. Txaparrada musikala da eskuartean duen beste proiektu bat.

Uhinez ez ezik, internet bidez ere entzun daiteke Txapa Irratia hemen: *www.txapairratia.org*.



Txapa Irratiko programa bat egiten. TXAPA IRRATIA



Umeen feriak arautu ditu pleguak. GOIENKARIA

**FERIA** > BARRAKAK

# Haurren feriak jartzeko baldintzak onartu dituzte

Fraiskozuri plazan umeendako feriak jartzeko baimena arautu duen plegua atera du Udalak

**O.E.** > BERGARA

Haurren feriak jartzeko baimena arautuko duen baldintzen plegua onartu du Udalak. Baldintza horiek dira 2008ko azaroaren 15etik 2009ko otsailaren 14a bitartean Fraiskozuri plazan haurren feria jartzeko baimena eskatzen dutenendako.

Baldintzen plegua Fraiskozurin feria jarri nahi duten enpresa edo partikularrendako da. Plaza horren tamaina kontuan hartuta, feriek izan dezaketen gehieneko azalera 6x6,5 metrokoa izango da. Planoan jasota dago feriak plazako zein toki okupatuko duen.

**BALDINTZAK**

Onartutako baldintzen artean daude: ferian jartzen diren kartelak euskaraz eta gazteleraz egon behar dira, musika euskaraz jarri beharko dute, jostaleku guztietako prezioa gehienez 1,20 euro izango dela bidaiako, sei bidaien abonoa gehienez sei eurokoa izango da eta bidadaia bakoitzak bi minutu iraungo du, gutxienez.

> IKASTAROA

### Nagusiendako Internet ikastaroa antolatu du Aranzadi ikastolak

Nagusiendako Internet ikastaroa antolatu du Aranzadi ikastolak abendurako. Bi talde daude: bat 25 eta 55 urte bitartekoendako eta bestea 55 urtetik gorakoendako. Talde bakoitzean 15 lagun sartzen dira. Lehen taldean ez dago tokirik dagoeneko baina bigarrenean bai. Sarean nabigatzen, posta elektronikoa erabiltzen eta admininistrazioaren zerbitzuak ezagutzen irakatsiko dute. Abenduaren 1etik 4ra izango dira ikastaroak.

> ENPRESAK

### Candy Hoover-eko komiteak manifestazioa deitu du gaurko

Candy Hoover enpresako langileen komiteak manifestazioa egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan. Arrazoia da enpresako zuzendaritzak bi langile kaleratu dituela hilabete baten barruan "diziplinazko arrazoiengatik". Komiteak salatu gura du enpresak duen eszedentea ezin dela diziplinazko kaleratzeen bidez konpondu. Horregatik, manifestazioa egingo du gaur iluntzean. San Martin plazatik abiatuko da.

> KINTADA

### Kintoen bazkaria egingo dute 1976. urtean jaio zirenek

1976. urtean jaiotakoen kinto bazkaria egingo duten azaroaren 29an, zapatua. Bazkaria Azpeitxi jatetxean iznago da eta joan gura duenak 40 euro sartu behar ditu Euskadiko Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0009 10 0090082805. Dirua sartzearekin batera izena eta abizena esan behar dira. Azaroaren 22a da dirua sartzeko azken eguna. Bazkaria 14:30ean izango da eta elkartzeko ordua, 13:00etan Pol-Pol tabernan.

Almacenes MAHER
ETXERAKO ARTIKULUAK
Izarak, funda nordikoak, mantak, toallak, sukaldeko trapuak, etab.
eta AZAROtik aurrera
ALZA
sukaldeko tresneria
FABRIKAKO PREZIOAK!
Bidekurutzeta 29 Bergara




KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA
KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



Edurne Agirrezabala, antzezlaneko une batean. TXIRENE ANTZERKI TALDEA

**IKUSKIZUNA** > ANTZERKIA

# 'Ogyik karri etzun semia' antzelana Zabalotegin, gaur

Ama baten eta semearen arteko errespetua landuko da antzezlanean

**J.Z.** > BERGARA
Gaur 22:30ean, Zabalotegiko aretoan eta Jardunek antolatuta, Txirene antzerki taldeak *Ogyik karri etzun semia* antzezlana eskainiko du.

Txirene taldea (*zerbait barregarria* esan nahi du hitzak) duela bost urte sortu zen bi kiderekin: Begoña Amonarriz tolosarra eta Edurne Agirrezabala oiartzuarra. Bikote horren lehen antzezlanaren izena *Nora hoa, neska?* izenekoa izan zen eta hiru urtetan zehar 64 emanaldi eman zituzten guztira antzezlan horrekin.

**BIGARREN ANTZEZLANA**
*Ogyik karri etzun semia* antzezlana, berriz, Edurne Agirrezabalak berak bakarrik duela bi urte sortu zuen antzezlana da eta dagoeneko 40 emanaldi egin ditu.

Agirrezabalak adierazi digun moduan "bakarrik antzezten dudan lana izan arren, ez da bakarrizketa bat. Ama batek bere semearengan bizitzako bere nahia ezarri nahi du, baina semeak bere bidea hartzen du azkenean". Agirrezabalak antzezlan horrekin erakutsi nahi duena da ama batek duen nahiaren eta semeak jarraitu nahi duen bidearen artean dagoen errespetua. Antzezlanak ordubete iraungo du eta doakoa izango da. Antzezlan horrekin, Aretxabaletara joateko asmoa ere badu taldeak.

**IKUS-ENTZUNEZKOA** > 'HEGOAMERIKA TANDEM BATEAN'

# Irudien bitartez, tandem batean egindako bidaia

Hegoamerika osoan zehar 40 hilabetez egindako 15.00 kilometroetan bizi izandako guztia erakutsiko eta kontatuko du bikote batek

**JASONE ZABALA**> BERGARA
Bihar, zapatua, 19:00etan Zabalotegiko aretoan *Hegoamerika tanden batean* ikus-entzunezkoa eskainiko dute Eneko Etxebarrieta arabarrak eta Miyuki Okabe brasildarrak. Hegoamerikan barrena egin duten ibilbideaz luze hitz egingo dute. Zehazki, hiru urte eta lau hilabete egin dituzte Eneko Etxebarrietak eta Miyuki Okabek bizikleta gainean. Irudien bitartez, tandemean egindako bira azalduko dute eta sor daitezkeen galderei erantzungo diete.

**15.000 KILOMETROTIK GORA**
Brasilen ezagutu zuten elkar Enekok eta Miyukik. Tandem batean 40 hilabetez Hegoamerika alderik alde gurutzatu dute. 15.000 kilometrotik gora Ushuaiatik (munduko hiririk hegoaldekoena) Caracaseraino. Azken horretan Miyuki haurdun geratu eta etxera itzultzeko erabakia hartu zuten umea edukitzeko. Enekok –argazkilaria eta Lehen Hezkuntzako irakaslea –lau urte zeramatzan bizikletaz bakarka munduari bira ematen; 2000. urtean hasi zen Etxebarrieta mundua bizikletaz ezagutzen.

Istanbulera irits zitekeela pentsatu, eta 46.000 kilometro egin zituen azkenik. Europa, Asia, Ozeania eta Amerika bisitatu zituen. Garai hartan ezagutu zuen, Caritiban (Brasil), Miyuki Okabe –telekomunikazioetako ingenieria. Bien arteko harremana sendotu, eta bidaia batera amaitzea erabaki zuten. Lehendabiziko bidaia amaituta, bigarrena elkarrekin egitea pentsatu zuten 2005ean. Bidaiatzeaz gainera, herrialdeak ondo ezagutzea izan zen bidaia horren helburua. Lekuak bisitatzearekin batera, bidaia sakonago, gertuago bizi nahi izan zutela adierazi dute, patxadaz eta herritarrekin harremanetan.

**IKUS-ENTZUNEZKOA**
Bidaiako argazki eta bideoen hautaketa batekin osatutako ikus-entzunezkoa tandemean muturreko lekuetan bidaiatuz bisitatutako abenturen erakusle da: Patagonia haizetsu eta hotza, Brasilgo hondartza bakartiak, Amazonia oihan hezea… Eta arreta berezia eskaintzen die kultura eta errealitate sozial ezberdinetako jendeekin eduki dituzten harremanei.

**LEHIAKETA** > FILMAK

# Film laburren lehiaketara 14 lan aurkeztu dira

Film guztien proiekzioa azaroaren 27an eta 28an egingo dute Zabalotegiko aretoan, 19:00etan

**J.Z.** > BERGARA
Joan den azaroaren 3an itxi zen film laburren lehiaketan parte hartzeko izen emate epea. Guztira 14 lan aurkeztu dira. Film gehienak Debagoienekoak dira: Bergarakoak, Aretxabaletakoak eta Arrasatekoak; Debagoienetik kanpora Urretxutik heldu dira filmak. Azaroaren 27 eta 28an lan guztien proiekzioa eskainiko da –sei eguenean eta zortzi egubakoitzean– eta film guztien proiekzioa 19:00etan izango da Zabalotegiko aretoan. Irabazleak zeintzuk diren jakinaraztea eta sari banaketa azaroaren 28an egingo da. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du; bigarrenak, berriz, 330 euro; eta azkenik, bergarar onenaren saria ere banatuko dute –lehenengo bien artean ez badago– eta 150 euro irabaziko ditu.

## Filmak

**27, eguena**
*Denboran*
Egilea: Pepe Requejo.
*Letras, palabras y mentiras*
Egilea: Pepe Requejo.
*Un dia de estos*
Egilea: Pepe Requejo.
*Raskaana*
Egilea: Oier Fuentes.
*La banda del pulpo*
Egilea: Oskar Gartzia.
*Elephant*
Egilea: Otavio Sendova.

**28, egubakoitza**
*Tariro Tariro*
Egilea: Txolarte elkartea.
*Teknologiatik ihesi*
Egilea: Lexeia Larrañaga.
*Orlando*
Egilea: Film laburren ikastaroa.
*Sor kampana soltando lastre*
Egilea: Josu Arteaga.
*Dulce introduccion al caos*
Egilea: A. Iztueta/S. Heras.
*Violencia dulce*
Egilea: Amaia Iztueta.
*Eskoziako bira*
Egilea: Unai Azkarate.
*Ametsen ekaitza*
Egilea: J. Guridi/ J. Saez.

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!
**943 76 16 63** BERGARA
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA


ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA
ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE
ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala
ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala
Arkauz zure etxea da.
GRUPO
ARKAUZ
ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2008


LETE
arraindegia
BIDEKURUTZETAN
BERGARA
Tel.: 943 76 34 51

> TXIRRINDULARITZA

### Txirrinduzaleen batzarra eta afaria hilaren 22an

Bergara Txirrindulari Elkarteak antolatuta, denboraldi amaierako afaria izango da datorren egubakoitzean, azaroaren 14an, Azpeitxi jatetxean. Horren aurretik batzar orokorra egingo dute Zuloa elkartean, 19:30ean. Afarira joateko interesa dutenek izenemeta i2 (943 76 41 63) eta Igartua (943 76 11 21) bizikleta dendetan egin dezakete.

> ESKUBALOIA

### Bergara-Donibane, domeka eguerdian Labegaraietan

Senior mailako gizonezkoen eskubaloi taldeak, Soraluce Bergarak, Donibane Majestik taldea hartuko du domekan, 12:15ean, Labegaraietako kiroldegian. azken jardunaldian Pulpori irabazi zioten bergararrek, 34-37ko emaitzarekin.

> TXIRRINDULARITZA

### Pedalaren Eguna Lokatzaren eskutik azaroaren 22an

Lokatzak Pedalaren Eguna ospatuko du datorren azaroaren 22an. Lokatzaren sorreratik hona taldean ibilitako txirrindulariak eta zuzendariak batu nahi dituzte afari baten. Izenematea (25 euro) Euskadiko Kutxan, azaroaren 15a baino lehen.

**FUTBOLA** > LEHEN ERREGIONALA

# Bergara lider da, Lagun Onak taldearekin batera

Bergarak Lazkaori egingo dio bisita zapatuan; partidurik ez dute galdu mahoneroek

BTLSek ezinbestekoa du Eibartarrak menderatzea, zapatu arratsaldean Ipintzan



Bergara sendo dabil etxean. Argazkian, UDAren aurkako partiduko irudi bat. J.A.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Joan den zapatuan Ilintxari 2-1 irabazi ostean, Bergara futbol taldea lehen erregionaleko lidergoan dago, Lagun Onak taldearekin berdinduta. Azpeitiarrek eta bergararrek 20na puntu dituzte eta atzetik Zestoa eta Mutriku dituzte, 17 punturekin. Lagun Onak eta Bergara dira partidurik galdu ez duten talde bakarrak. Jokatutako zortzi partiduetatik sei irabazi eta bi berdindu ditu Bergarak.

Zapatuan, 15:45ean, Lazkao taldeari egingo diote bisita Manu Diazen mutilek. Bolada onari eustea da mahoneroen helburua. Manu Diazen entrenatzaileak behin eta berriz errepikatze duenez, lehen itzulia bukatutakoan ikusiko da zein talde diren igoera eskuratzeko faboritoak, baina momentuz behintzat, bide onetik dira mahoneroak. Zapatuko partiduari begira ere Bergara da faborito: Lazkoa sailkapeneko behealdean dago, 12. postuan, zortzi punturekin. Lehengo astean Elgoibar B taldeari irabazi zioten, 2-1. Golak egiteko orduan, aukerak gauzatzeko zailtasunak dituen arren, Bergarak sendotasuna erakutsi du defentsan. Mutrikurekin batera gol gutxien jaso duen taldea da: lau gol besterik ez dizkiote egin.

**BTLS, ETXEAN**

Ibai Igarzak eta Julen Larrañagak zuzentzen duten BTLS taldeak Eibartarrak hartuko du zapatuan, Ipintzan, 17:00etan. Azken jardunaldian 5-1 galdu zuten bergararrak Antzuolan. Sailkapeneko 14. tokian dago BTLS, zazpi punturekin. Zulotik ateratzeko ezinbestekoa dute Eibar- tarraki irabaztea. Hala ere, ez dute aurkari erraza izango: 6. tokian dago Eibartarrak, 12 punturekin. Oriokori irabazi zioten aurreko astean, 2-1eko emaitzarekin.

## Labegaraieta

**PARTIDUAK**

| Azaroak 8, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **16:00** Zigalikatis-K. Piperrak | **Monte taber.** |
| **17:00** Monte taberna-Irubide | **K. Piperrak** |

| Azaroak 9, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **16:00** Diego Valor-Internac. | **Los Latinos** |
| **17:00** Los Latinos-Belengua | **Diego Valor** |
| **18:00** Errotagain-Carboneros | **Niu Tim** |
| **19:00** Niu Tim-Los Blus | **Errotagain** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | U.D Akabaoak | 18 | 6 |
| **2.** | Carboneros | 18 | 6 |
| **3.** | Los Latinos | 15 | 5 |
| **4.** | Komando Piperrak | 12 | 6 |
| **5.** | CM Errota-gain | 11 | 5 |
| **6.** | Zigalikatis | 10 | 6 |
| **7.** | Belengua Taberna | 9 | 6 |
| **8.** | Internacional. | 7 | 6 |
| **9.** | Diego Valor Ilea. | 6 | 6 |
| **10.** | Los Blus | 3 | 6 |
| **11.** | Niu Tim | 3 | 5 |
| **12.** | Irubide Taberna | 1 | 5 |
| **13.** | Irish Pub | 3 | 6 |
| **14.** | Monte Taberna | 0 | 6 |

### Lau talde partidurik galtzeke daude

Seigarren jardunaldira iritsi dira zenbait talde eta partidurik galtzeke jarraitzen dute Akabaoak, Los Carboneros, Los Latinos eta Errotagainek. Domekan Los Carboneros eta Errotagain izango dira aurrez aurre. Bestalde, zapatuan, Monte tabernaren eta Irubideren arteko partiduan, bietako batek denboraldiko lehen garaipena lor dezake. Los Blus taldeak ere ez du partidurik irabazi oraindik.



Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

kanpotarrak bergaran

**Laura Leon** > Ingeles irakaslea
Txilekoa da

# "Oso pozik gaude, eta hemen geratuko gara aurrerantzean"

NEREA MENOR > BERGARA

**Laura Leon 28 urteko txiletarra da. 2007ko abenduan iritsi zen gurera eta hemen gustura dagoela dio, "asko gustatzen zait Bergara. Bisitatu ditudan herrietatik gehien gustatu zaidana da". Ingelesa irakasten du Espoloiko akademian.**

Ingeles Filologia ikasi ostean, irakasle lanetan ibili zen Txilen, "San Ignacio deituriko eskolan nenbilen". Bergaran ere lan berdina aukeratu du. Beste leku batzuetan lan egin ondoren, Espoloiko ingeles akademian dabil lanean orain eta bere lana gustuko duela esan digu: "Lan guztietan bezala egun txarrak ere izaten ditut, baina gustatzen zait".

Bere bikotekidearekin bizi da hemen, eta berarengatik etorri zen hona. Aurrerantzean Bergaran geratzeko asmorik duen ere galdetu genion Laurari eta bere erantzuna hauxe izan zen: "Bai, noski!".

**"Ez dut arazorik eduki hizkuntzarekin, baina euskara ikasten nabil. Astelehenetik eguenera euskaltegira joaten naiz"**



Laura Leon.

Txileko hiriburuan bizi izan da Laura betidanik: "Santiago de Chilen bizi nintzen, ia 7 milioi biztanle dituen hiria da. Hiri handi gehienetan gertatzen den bezala, nahiko hotza da. Bergara familiarragoa da, guztia duzu gertu, eta asko gustatzen zait hori. Lantokia ere etxetik gertu daukat". Hizkuntzarekin arazorik izan ez duen arren, euskara ikasten ere badabilela esan digu: astelehenetik eguenera euskaltegira joaten da.

**UDAN HERRIRA BUELTA**

Familia faltan igartzen du, baita lagunak eta batzuetan janaria ere. "Etorri nintzenetik ez dut Txile bisitatu, baina udan joateko asmoa daukat eta aurrerantzean, uda oro joango naizela pentsatzen dut. Txile hazten doan herria da, ingurukoak baino lasaiago eta egonkorragoa da. Lan on bat aurkitzen baduzu, ondo bizi zara, hemen baino merkeagoa da guztia, baina soldatak baxuagoak dira baita ere. Oraindik oso gaizki bizi den jendea dago".

hau be badaukogu

## San Kristobaleko ortuan 50 kiloko kalabaza hazi du Jose Zafra bergararrak

**Zapatuan jaso zuen Jose Zafrak argazkian azaltzen den 50 kiloko kalabaza. Aurreko urteetan ere kalabazak landatu dituela esan digu, baina inoiz ez direla horren handiak izan. Argazkikoaz gain, beste 13 kalabaza jaso ditu aurten, batek 35 kilo ditu eta beste batek 120 zentimetro inguru. Guztiak Azkoitian erositako hiru landareetatik irten dira. Horretaz gain, San Kristobaleko auzoan dagoen ortuan, Elkone baserrian, tomateak, letxuak, pikuak, marrubiak, kalabazinak, oiloak, indioilarrak, eta abar ditu. Bihar Kordobara doa, familiarengana, eta kalabaza eurekin banatuko duela esan digu.**



GOIENKARIA

bere ustez



Maite Plazaola

## Krisia bai, baina norentzat?

Badator krisia! Krisia hau, krisia bestea… krisia, krisia eta krisia. Hitz hau besterik ez dugu entzuten azken aldi honetan. Duda barik esan daiteke azken aldian darabilgun arazo handienetako bat dela. Bestela etxekoandreei galdetzea besterik ez dugu, lehen banasta betetzen zuten diru kopuruarekin erdia betetzeko ere ez dutela diote eta.

Banketxeak ere laguntza eske dabiltza, eta nola ez, hauei eskua luzatzen zaie, eta bost ez ditugulako… Bolo-bolo dabilen albiste hau aztertzen ari gara bai, hala ere, nik krisiari kasurik egiten ez dieten asmo asko ikusten ditut, eta nik ekonomiaz gauza gutxi dakidan arren, gauza bat argi daukat: nola da posible jendearen eros ahalmena eta aberastasuna hainbeste gutxitu den momentuan, AHT bezalako proiektu garestia bultzatzea?

**"Banketxeak ere laguntza eske dabiltza, eta nola ez, hauei eskua luzatzen zaie"**

Nik argi daukat erantzuna. Hau ez da gizarte bat hobetzeko proiektua, gutxi batzuen sakelak urrez betetzeko egitasmoa da. Azken finean, gauzak ez dira aldatzen, eta 2demokrazia" honetan ere antzinako erregimenen zantzuak ikus ditzakegu: egingo da eta kitto! Horretan inbertituko den diruak familia askoren ekonomia hobetzeko balio dezakeen arren.

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35


Unzueta
sagardotegia
sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta
•
eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak
Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95


FOTODEPILAZIOAN
LIDERRAK
*Galtzarbeak
*Ingleak
40€
1.go saioa
*Hanka erdiak
80€
1.go saioa
*Hanka osoak
*Bizkar osoa
150€
1.go saioa
Zimur – kontrako tratamendua
eta aurpegi- gaztetzea
Kirurjia gabeko
lifting-a
Kolagenoa eta Elastina sortzen
dituen Euskadiko lehen tratamendua.
Emaitzak lehen saiotik.
RADIOFREKUENTZIA
85€
saioa
BIOS ITALIA Teknologiarekin
estetika zentroa
angela
Eskaintza abenduak 20 arte
Tel.: 943 79 88 23 / Ferrerias 35, 20500 Arrasate
www.angelaestetika.net



Iker Altuna aretxabaletarraren argazkia hautatu du Murrukixok egutegia egiteko: aurrean amarauna eta atzean Kurtzebarri mendia. IKER ALTUNA

**KIROLA** > MENDI ASTEA

# Ikus-entzunezkoak eta mendi irteeera, Murrukixoren eskutik

Aretxabaletarrek eskainiko dituzte ikus-entzunezko gehienak

Egutegian Iker Altunaren argazkia agertuko da

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Mendi Astea antolatu du Murrukixo Mendizale Elkarteak, eta astelehenean hasi eta domekara bitartean egingo dituzte ekitaldiok: lau ikus-entzunezko eta mendi zeharkaldia.

**ARETXABALETARRAK, HIZLARI**

Iaz ez zuten mendi asterik antolatu, non egin ez zeukatelako, baina aurreko urteetako ohitura berreskuratu du Murrukixok eta azaroko bigarren astean egingo du. Astelehenetik eguenera bitartean ikus-entzunezkoak eskainiko dituzte Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan (19:00). Mendiarekin zerikusia duten argazki ikusgarriekin batera egileen azalpenak eta argibideak jasoko dituzte Zaraia aretora doazenek. Gainera, hizlari gehienak aretxabaletarrak dira –Itoitz Armendariz eskoriatzarra izan ezik–, kanpotik ekarri beharrean herritarren ibilerak jaso gura izan dituelako beti Murrukixok.

Domekarako, azaroak 16, ostera, mendi zeharkaldia antolatu du. 16 kilometroko ibilaldia egingo dute, nahiko laua, antolatzaileen esanetan: Herrera mendatea, Rivas mendatea, Toloño eta Bastida (Arabako Errioxa). Bertan bazkalduko dute gero mendizaleek –gura duenak, etxetik eroandakoa, eta bestela, Bastidako tabernaren baten. Interesatuek aurrez eman behar dute izena autobuserako. Horretarako, martitzenean Murrukixoko lokalera joan daitezke, edo bestela, Arkupen egingo duten edozein ikus-entzunezkotara hurrera daitezela antolatzaileekin egoteko. Mendi elkarteko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, 12 euro. 08:00etan irtengo du autobusak Azbe lantegi alboko geltokitik, eta 17:00ak inguruan itzuliko da.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

Datorren urteko egutegia egiteko, argazki lehiaketa deitu zuen Murrukixok orain dela hilabete. Bederatzi argazki jaso dituzte tarte horretan, eta dagoeneko aukeratu dute irabazlea, Iker Altuna aretxabaletarrarena, hain zuzen. Argazkiaren aurrealdean amarauna ageri da, ihintzak bustita, eta atzealdean, behia zelaian eta Kurtzebarri mendia. Egutegiok, baina, ez dituzte bazkideen etxeetara bidaliko, aurreko urteetan legez; Mendi Asteko ekitaldietan egongo dira hartzeko eta Murrukixoko lokalean ere bai.

**TXARTELAK BERRITZEKO GARAIA**

Murrukixok, gainera, bazkide eta federatu guztiei gutuna bidali die egunotan. Gutun horretan jakinarazi die bazkide eta federatu txartelak berritzeko unea dela eta oraintxe dutela aukera aldaketak egiteko. Horregatik, federatze aukeren berri eman dute gutunean, eta norberak ordaindu beharrekoa adierazi diete bazkideei –urte bukaera inguruan kontutik pasatuko dutena. Datuak eguneratu gura dituztenek edo aldaketaren bat egin gura dutenek azaroaren 15a baino lehen egin dezatela. Horretarako, Murrukixoko lokaletik pasatu beharko dira, edo 943 79 93 74 telefono zenbakira deitu martitzenetan (19:00-20:00). Posta elektronikora idatzita ere adierazi dezakete interesatuek egin gura duten aldaketa: *murrukixo@euskalerria.org*.

Berririk jaso ezean, ontzat emango dituzte dauzkaten datuak. Hori bai, bazkideek lokaletik pasatu beharko dute txartelak jasotzera, ez dituztelako etxera bidaliko.

## Mendi Astea

**10, astelehena**
19:00, *Txile iparraldean bizikletan*, Zigor Lasagabaster eta Aitor Garroren eskutik.

**11, martitzena**
19:00, *Debagoiendarrak munduko mushing txapelketan*, Itoitz Armendariz eskoriatzarren eskutik.

**12, eguaztena**
19:00, *Zeelanda Berria*, Amagoia Barandiaran eta Iñaki Lopezen eskutik.

**13, eguena**
19:00, *Everesteko trekinga*, Xabi Egaña, Iker Ugarte eta Jokin Urteagaren eskutik.

**16, domeka**
08:00, Mendi zeharkaldia (16 km): Herrera mendatea, Rivas mendatea, Toloño eta Bastida. Itzulerako autobusa Bastidan, 17:00etan.

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



**BERDINTASUNA** > DIAGNOSTIKOA

# Emakumearen egoera aztertzen

Emakume eta gizonen arteko aldeak aztertu dituzte eta 'Herritarren partaidetzarako foroa' egingo dute gaur, kultura etxean



Jaione Fraile berdintasun teknikaria, udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bulegoan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Berdintasun zerbitzua jarri zuen Udalak abian orain dela hiru hilabete inguru, eta berdintasunaren gaineko diagnostikoa egiten dabiltza herrian. Diagnostiko horren helburua da emakume eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak aztertzea, arazoak eta beharrak identifikatzea eta konponbideak proposatzea. Horretarako ikertuko dituzten esparruak dira lana, kirola, kultura, osasun arloa, hezkuntza…

Diagnostikoaren garapen prozesu barruan, *Herritarren partaidetzarako foroa* antolatu dute. Hala, batzarra egingo dute gaur, azaroak 7, Arkupe kultura etxean (18:00). Foroaren helburua da orain arte jasotako datuak aztertzea, eta diagnostikoaren gaineko iritziak, iradokizunak eta proposamenak jasotzea. Hori horrela, Aretxabaletako emakumeen eta elkarte guztien ekarpenak jaso gura dituzte, eta herritarren partaidetza oso garrantzitsua dela gogorarazi gura du Berdintasun zerbitzuko arduradun den Jaione Fraile teknikariak. Batzarrera joateko asmoa dutenek aurrez iragartzea komeni da mezu bat bidalita posta elektroniko bidez: *berdintasuna@aretxabaleta.net*; edo udaletxera deituta (943 71 18 62).

**EGUEN GOIZETAN, UDALETXEAN**
Bilboko Murgibe aholkularitza enpresa hartu zuen Udalak berdintasun zerbitzua abian jartzeko, eta bertako teknikari Jaione Fraile eguen goizetan egoten da udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bulegoan (09:00-14:00). Argibideren bat gura izanez gero edo iritziren bat helarazi eguen goizetan deitu behar da, edo bestela mezu bat bidali Berdintasun zerbitzuko helbide elektronikora.



Jaiki elkarteko kideak erakustaldia egiten Durana kalean. JAIKI

**IKASTAROA** > JAM SAIOA

## Bigarren Jam saioa egingo du Jaiki elkarteak domekan

Antzerkia, musika, dantza, poesia, isiltasuna... guztiak balio du Jam saiorako

**M.A.** > ARETXABALETA
Urrian egindako Jam-inprobisazio saioak izan zuen arrakastaren ostean, bigarren saioa antolatu du Jaiki elkarteak. Domekan egingo dute, azaroak 9, kuartel zaharrean (18:00). Izena ez da aurrez eman behar, bertan agertzea nahikoa da.

**INPROBISAZIOA ARDATZA**
Beroketa joko batzuk eginda hasiko dute Jam saioa, eta poliki-poliki inprobisatzen joango dira. Horretarako ez dela ezer berezirik behar esan dute Jaiki elkarteko kideek: antzerkia, bertsolaritza, musika, dantza, poesia, isiltasuna… norberak gura duena erabil dezake. Gainera, lagungarri izan daitezkeen tresnak eroateko aukera ere badago: zapi bat, instrumentu bat, disko bat…

Jam zer den ezagutu gura duen edonori zabalduko dizkiote ateak Jaikiko kideek.

**IKASTAROAK** > ESKULANAK ETA PINTURA

## Eskulan eta pintura eskolak jasotzeko izenematea zabalik

Egutegi eta ordutegi aukera handia dago, eta Arkupen eman behar da izena

**M.A.** > ARETXABALETA
Kultura Sailak antolatutako eskulan eta pintura ikastaroak hil honetan hasiko dira. Hainbat aukera daude egutegiari eta ordutegiari dagokionean eta Arkupe kultura etxeko harreran eman behar dute izena interesatuek. Ikastaroen prezioa 35,5 euro da hiruhilabetea.

Pintura eskolak 6 urtetik gorako guztiendako eskaintzen dituzte astelehenetik eguenera bitartean, eta hainbat ordutegi daude aukeran.

Eskulanei dagokienean, eguazten eta eguenetan dira eskolak, goizean zein arratsaldean. Rosa del Aguila da irakaslea eta udara arte eskainiko ditu.

**BARRETERAPIA GAZTEENDAKO**
Gazteendako, ostera, barrea eta umorea lantzeko tekniken gaineko ikastaroa antolatu dute. Hilaren 22an eta 29an dira saioak (10:00-13:00) eta izena aurrez eman behar da. Debalde da ikastaroa.



Pintura eskolak jasotzen, eguaztenean. M.A.

> MERKATARITZA

### Puzgarriak egongo dira bihar (11:00) Iralabarri plazan

Herriko merkataritza suspertzeko asmoarekin gaztelu puzgarriak jarriko dituzte bihar, zapatua, Iralabarri plazan (11:00-13:00). Gainera, Aretxarte elkarteko dendaren baten gutxienez 25 euroko erosketak egiten dituenari bihar, txartela banatuko diete. Txartel horrekin Kioskoan gozokiak eskuratu ahal izango ditu, Brasileña kafetegian kafe bat hartu edo Orly tabernan freskagarri bat.

*Jendea non, giroa han. Aretxabaleta bizirik* lelodun egitasmoa jarri zuten abian Udalak, Aretxarte merkatarien elkarteak eta Erostegi enpresak urtarrilean, herriko merkataritza bultzatu eta biziberritzeko.

> IKUSKIZUNAK

### 'Nos vamos de vacaciones' gaur, eta magia saioa, bihar

Kultura Sailak antolatuta helduendako antzerkia izango da gaur (22:00), Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan. Oñatiko Pakeleku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Nos vamos de vacaciones* antzezlana eskainiko du. Benidormera oporretan doazen hiru lagunen gorabeherak eta xelebrekeriak ekarriko dituzte taula gainera; izan ere, ikusleek ondo pasatzea beste helbururik ez dute oñatiarrek. Gazteleraz da saioa eta 10 euro izango da sarrera.

Bihar, ostera, umeendako ikuskizuna izango da Arkupen (17:00). Txorroborro magoak aho zabalik utziko ditu ume eta gaztetxoak. Debalde da ekitaldia.

> GAZTEAK

### Atxagazte bloga jarri dute abian gaztelekuko kideek

Atxagazte gaztelekuko kideek beste gune bat daukate orain eurendako: Atxagazte bloga. Dagoeneko abian dago eta berriak, iritziak, agenda eta beste kontu asko sartzeko aukera daukate gazteek. Hona helbidea: *goiena.net/blogak/atxagazte*.

Txatxilipurdik kudeatzen du bloga, eta egindako ekitaldien berri jasotzen dute –argazki eta guzti– eta egingo dituztenak iragarri. Hala ikastaro baten berri dakar bertan: fimo ikastaroa egingo dute azaroko hiru eguenetan –13, 20 eta 27. Belarritakoak, giltzatakoak… egiten ikasiko dute gazteek Itsaso Pagoagarekin. Izena aurrez eman behar da.

> GOIENA TELEBISTA

## Lourdes Idoiaga alkatea 'Goiena magazinea' saioan egongo da hilaren 13an, eguenean

Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak GOITBk egiten duen *Goiena magazinea* programan parte hartuko du, hilaren 13an, eguenean, 19:45ean. Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute eta euren galderak zuzenean egin ahalko dituzte. Bi bide dituzte galderak egiteko: alde batetik, telefonoz 943 25 05 05 zenbakira deituta edo SMS bat bidaliz 5533 zenbakira: *AZ* idatzi, espazioa utzi eta egin nahi duten galdera idatzi; eta beste alde batetik, Internet bidez *magazinea@goiena.com* helbidera idatziz.

> TURISMOA

## Azaroaren 1etik otsailera arte Arrikrutz koban neguko ordutegi berriarekin egingo dute lan

Aurreko zapatuan aldatu zuten Arrikrutz kobako ordutegia. Hala, otsailera arte 10:00etatik 14:00etara arte eta 15:00etatik 17:00etara arte egingo dituzte bisitak orduoro, martitzenetik domekara arte. Astelehenetan itxi egingo dituzte kobak. Azken bisita gidatua 16:00etan egingo dute.

Udako turistak alde batera utzita, ikasleak izango dira protagonista datozen hilabeteetan. Ekainera arte, bi autobus joango dira astero kobak ikustera.

> DEIALDIA

## Aloña, Urbia eta Oltzara ganadua eroateko izena eman behar dute abenduaren 31 baino lehen

Datorren urtean Aloñara, Urbiara eta Oltzara ganadua eroan gura dutenek baimena eskatu beharko dute udal bulegoetan, abenduaren 31 baino lehen. Epea bukatuta ez dute baimenik emango.

Baimena eskatzeko hainbat datu eman behar dituzte Udalean: hain zuzen ere, nekazaritza ustiaketaren titularraren izen-abizenak; ardi eta bildots kopurua; behor eta behi kopurua (buru bakoitzaren zenbakia adieraziz); eta erabiltzen dituen txabolen izenak (herri lurretan eraikita daudenak bakarrik).

> DEIALDIA

## Argentinako Elkartasun Taldea eguaztenetan eta eguenetan materiala biltzen hasi da berriro

Azken hilabeteotan materiala bildu barik egon ondoren, Argentinako Elkartasun Taldea materiala jasotzen hasi da berriro ere. Hain zuzen ere, eguaztenetan eta eguenetan egoten dira Bidebarrieta kaleko lokalean, 18:30etik 20:30era arte. Bestalde, lokalaren aurrean dagoen edukiontzi zuria ere herritarren eskura jarri dute. Aurrerantzean jasoko duten materiala urtarrilean bidaliko duten kontainerrean sartuko dute; batez ere, eskolarako materiala, liburuak eta sukaldeko tresnak bidali gura dituzte.



ELKAR HEZI

## Elkar Hezikoak, Basterretxearekin

Elkar Hezi ikastetxeko bigarren mailako ikasleek eta lau irakaslek bisita egin zioten aurreko aste bukaeran Nestor Basterretxea eskultoreari. Hain zuzen ere, harekin bazkaldu zuten Hondarribian zapatuan. Ondoren, Basterretxearen artelanak ikusi zituzten eta Jorge Oteizaren inguruan egin zuten berba.



Argazkian, herriko plaza izeiarekin eta argi-arkuz apainduta. GOIENKARIA

**ZERBITZUAK** > APAINKETA

# Gabonetako argiteriarako iaz baino diru gutxiago

Herriko kaleetan eta auzoetan argi-arkuak ipintzeko, gehienez, 14.000 euro gastatuko ditu Udalak; guztira 28 argi-arku jarriko dituzte

**MIREIA BIKUÑA**> OÑATI

Urriaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuten Gabonetako argiteriaren alogera eta jartze-lanen lehiaketa arautuko duen baldintza zerrenda. Azken urteotako joera mantenduz, diru gutxiago gastatuko du Udalak argiak ipintzearren: hain justu ere, 14.000 euro (iaz 18.000 euro gastatu zituzten, eta duela bi urte, 25.000 euro). "Jasangarritasunaren aldeko apustuarekin jarraitu gura dugu, eta kontsumo baxuko bonbillak jarriko ditugu; era berean, krisiak aurrekontua murriztera eroan gaitu", esan zuen osoko bilkuran Lourdes Idoiaga alkateak.

**ARGI-ARKU GUTXIAGO**

Aurrekontua txikitzean, herriko kaleetan eta auzoetan jarriko dituzten argi-arkuen kopurua ere txikitu egingo dute. Hortaz, guztira 28 jarriko dituzte: hain zuzen ere, Kale Barrian 10 argi-arku; Kale Zaharrean, Lizaur kaleko bidegurutzeraino, sei arku; eta San Juan kalean, Santa Marina plazan, Bidebarrietan, Olakua eta San Lorentzo auzoen arteko errepidean, Euskadi Etorbidean, Otadui Zuhaiztian, Zubillagan eta Olabarrietan, arku bana.

Herriko kaleak eta auzoak apainduko dituzten argi-arkuak abenduaren 13tik uztailaren 7ra arte egongo dira piztuta.

**MANTENUA**

Udal ordezkariek onartutako baldintza zerrenda Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu ondoren zabalduko dute proposamenak aurkezteko epea.

Baldintza zerrendan zehazten dira argiteria ezarri eta mantenua egin gura duten enpresek bete beharreko baldintzak. Besteak beste, Oñatiren antzeko bi herritan era honetako argiteria ipini dutela egiaztatu beharko dute, eta kontratuaren prezioa zehaztu beharko dute. Bestalde, argiak ipintzen dituen enpresa arduratuko da horien mantenua egiteaz, eta argiteria jarri ahal izateko egin beharreko lanetaz: besteak beste, argi-sarearekiko lotunea egin, argiak garraiatu eta derrigorrezko baimenak eta aseguruak eskatu. Lanak esleitzerako orduan, aurrekontua, enpresak egindako proposamen estetikoa, hobekuntzak eta elementuak jartzen eta kentzen emango duten denbora baloratuko dituzte. Arlo bakoitzari 25 puntu emango dizkio epaimahaiak. Jasotako proposamen guztian artetik puntu gehien lortzen duenari emango dizkiote lanak.

Azken urteotan Astigarragako Maykolux enpresa izan da herriko kaleetako eta auzoetako Gabonetako argiteria eta apaingarriak ipini dituena.

### Udaletxeko fatxadan ez dute argirik jarriko

Urriko osokoan onartutako argiteriaren aurrekontuan ez dute udaletxeko fatxadako argiteria sartu. Galde-erreguen atalean Marijo Altubek salatu zuen fatxadako eta plazako izeiaren argiteriaren aurrekontua ez zirela zehazten. Alkateak erantzun zion, aurrekontuan egindako murrizketarekin, udaletxeko fatxadan ez dutela apaingarririk ipiniko.

Bestalde, plazan jarriko duten izeiaren apainketa herriko elektrizitate enpresen artean esleituko dutela esan digu alkateak. Laster onartuko dituzte baldintzak eta egingo dute deialdia. Herriko plazan jarriko duten izeiaren bonbilla kopurua gutxitu egingo dute.



**KULTURA** > AZAROKO EKITALDIAK

# Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, hileko ekitaldi izarra

Ikuskizun horretarako sarrerak hilaren 14an jarriko dituzte salgai herriko hiru lekutan

Azaroan Inkernu tabernan ere musika emanaldi bereziak egingo dituzte



Euskal Herriko pailazo famatuenak pirata bilakatuko dira ikuskizun berrian, Eskoriatzan estreinatuko. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Udaleko Kultura Sailak jakitera eman ditu azarorako udalerrian antolatuko dituzten ekintzak. Aurten ere ekitaldietatik deigarriena Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen ikuskizun berriaren estreinaldia izango da. Azken urteotan moduan, aurten ere Eskoriatzan egingo dute estreinaldi ofiziala. Ikuskizunak *Piratak* izena dauka eta hilaren 29an, zapatua, egingo dute kiroldegian, 17:30ean.

Lan berrian Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pirata bilakatu eta altxorraren bila joango dira. Are gehiago, euren leloa honako hau izango da: *Gora euskal piratak eta gora Patakon!*

Antolatzaileak Arizmendi ikastolako Jose Arana guneko eta Luis Ezeiza herri ikastetxeko gurasoen elkarteak eta Eskoriatzako Udala dira. Sarrerak, berriz, hilaren 14an jarriko dituzte eskuragai 5 eurotan honako lekuetan: Gozo-Txiki, Dorleta paper-denda eta kiroldegia.

**IPUIN KONTAKETAK**

Horrez gain, hilaren 27an, Rai Buenok 6 urtetik gorako umeei ipuinak kontatuko dizkie bibliotekan, 18:00etan; eta hilaren 28an, Carles Garcia Domingok helduendako *Historias de la Ribera del Ebro* ipuin kontaketa egingo du Huhezin, 22:30ean.

Izango dira, baina, bestelako ekitaldiak. Esaterako, Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkarteak hilaren 21ean, urtero moduan, egingo du Gaztaina Erre Eguna. Egun horretan eskulan tailerrak, gaztaina erreak eta txokolate-jana izango dira herriko ume guztiendako.

**BANDAREN KONTZERTUA**

Urteroko beste hitzordu bat da Musika Eskolako Bandak hilaren 22an, Santa Zezilia egunean, San Pedro parrokian egingo duen kontzertua.

Aurten ere herriko musikazale ugari batuko dira egun horretan herriko bandak egingo duen emanaldia entzun eta musika dotoreaz gozatzera. Hala bada, ekitaldi ugari azarorako.

## Inkernun ere ekitaldi dotoreak dituzte hilabeteon

Hilaren 14an Keu Agirretxea (argazkian) Uek taldearen disko berria aurkeztuko du Inkernu tabernan, 22:30ean.

Hurrengo egunean, hilaren 15ean, berriz, Debagoieneko hainbat musikarik *Una noche con Sabina* ikuskizuna egingo dute taberna berean, Joaquin Sabinaren kantuen bertsioak eginez, ordu berean. Eta, ez ahaztu, hilaren 29an musika maratoia egingo dutela.



Uek-ek diskoa aurkeztuko du. HOTSAK

**OROIMEN HISTORIKOA**

# Francok ohorezko alkate izateari utzi dio jada

1949ko abuztuaren 22an udalbatzarrak hartutako erabakia bertan behera utzi zuten atzo, ezohiko osoko bilkuran

**I.B.** > ESKORIATZA

Ezker Batua-Berdeak taldeak eskatuta, atzo, eguena, Eskoriatzako Udalean ezohiko osoko bilkura egin zuten. Horren arrazoia izan zen 1949tik Francisco Franco diktadorea Eskoriatzako ohorezko alkatea izan dela, eta erabaki hori indargabetzeko bilkura deitu zuten.

Hain zuzen ere, orain dela gutxi Ezker Batua-Berdeak taldeko zuzendariek Gipuzkoako hainbat herritako zinegotziei eskatu zien udaletako artxiboetan begiratzeko ea 1949. urtean Francisco Franco ohorezko alkate izendatu zuten.

Eskoriatzako zinegotzi Juan Luis Merino zeregin horretan ibili zen eta jakin zuen 1949ko abuztuaren 22an Laureano Uribarren Altuna alkate zuen udal korporazioak erabaki hori hartu zuela.

**PUNTU BAKARRA AZTERGAI**

Hala, EB-Berdeak taldearen proposamenari kasu eginez, Udalak ezohiko osoko bilkura deitu zuen atzorako. Are gehiago, puntu bakarrekoa izan zen bilkura, 1949an egindakoa ere halakoa zelako: diktadorea ohorezko alkate izatearen erabakia indargabetzea, hain zuzen ere.

Lerro hauek idazterako orduan, osoko bilkura egin barik zegoen, baina erabakia aho betez hartuko zuten aukera handiak zeuden.





Orain dela pare bat urte ere Udala hasi zen erreken egoeraren gainean kontzientziazioa pizten. IKER BARANDIARAN

**INGURUMENA** > JARDUNALDIAK

# Ura eta eredu jasangarria berbagai izango dituzte

Bi berbaldi, erreka garbitzea eta eraikuntzaren gaineko azoka egingo dituzte

Eredu eta eraikuntza jasangarriak lantzeaz gain, ura izango da gai nagusienetako bat

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Ibarraundi museoak ingurumenaren eta garapen jasangarriaren gaineko zikloa antolatu du datozen asteetarako. Jardunaldi horien gai nagusia ura izango da, Udalak azken aldian urari eta horren kontsumoari erabateko garrantzia ematen diolako. Are gehiago, udalerriko eskoletan ere gai bera landu izan dute Agenda 21 ekimenaren barruan.

Antolatu duten egitarau zabaleko lehenengo ekitaldia eguenean, hilaren 13an, izango da. Euskal Herriko Meteorologia Zentroko zuzendari Margarita Martinek *La importancia del agua en los movimientos migratorios* berbaldia egingo du 19:00etan Ibarraundi museoan.

Hilaren 19an, berriz, Zaragozako Unibertsitateko irakasle Pedro Arrojok *El papel de los municipios en la Nueva Cultura del Agua* izango du berbagai Ibarraundi museoan, 19:00etan.

**ERREKA GARBITUKO DUTE**

Horren aurretik, baina, hilaren 16an, Erreka Eguna ospatuko dute. Udalak deialdi zabala egingo du egun horretan ahalik eta herritar gehienek garbiketa lanak egiten esku har dezaten. Ekimen horren helburua da jendeari erakustea zer den erreka garbitzea eta baita ere agerian uztea herritarrek zer-nolako zaborrak botatzen dituzten.

Zaborra jaso ostean, hori guztia herriko plazan batuko dute gainontzeko herritarrek ikus ahal dezaten; modu horretan kontzientziazioa pizteko ahalegina egingo dute.

**ERAIKUNTZA JASANGARRIA**

Ekimen horiek guztiez gain, hilaren 22an eta 23an eraikuntza jasangarriaren gaineko azoka egingo dute udal pilotalekuan. Bertan hainbat enpresek euren produktuak erakutsiko dituzte, eta alor horietan dauden berrikuntzak ezagutu ahal izango dira.

Une honetan Udaleko Ingurumen Sailak azokan esku hartuko duten enpresa eta ajentziak konfirmatzen dihardu. Hala ere, jakin badakite eraikuntza materialak, energia alternatiboak eta beste jorratuko dituztela.

**AZPIEGITURAK** > AUTOBIDEA

# Eibar-Gasteiz autobideko bi proiekturen aldaketa, onartuta

**I.B.** > BERGARA

Eskoriatzako Udalak jakinarazi du Gipuzkoako diputatuen kontseiluak astean Eibar-Gasteiz autobidearekin lotutako bi erabaki berri hartu dituela.

Hala, diputatuek erabaki dute Eskoriatza Iparra-Arrasate Iparra (Epele) zatia aldatzen duten bigarren eta hirugarren proiektu aldatuak onartzea. Ez hori bakarrik; Arlaban-Eskoriatza Iparra zatia aldatzen duten 7. eta 8. proiektu aldatuak ere onartu dituzte diputatuen batzarrean. Udalak jakinarazpen horien berri eman du, gura duten herritarrek egokiak ikusten dituzten errekurtsoak aurkezteko nahikoa denbora izan dezaten.

**HILABETEKO EPEA**

Interesatuek Eskoriatza Iparra-Arrasate Iparra zatiaren aldaketari zein Arlaban-Eskoriatza Iparra zatiari administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez diezaiokete Donostiako Epaitegian. Horretarako, bi hilabete dituzte, argitalpenaren edo jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Partikularrek, berriz, hautazko errekurtsoa aurkez diezaiokete diputatuen kontseiluari jakinarazpenaren biharamunetik hasita; horretarako hilabeteko epea izango dute.

Diputazioaren batzarrak Eskoriatzako Udalari egindako jakinarazpenaren data urriaren 29a da.

> HEZKUNTZA

## Haur Eskolako kudeaketaren hasierako esleipena

Joan den asteko ohiko osoko bilkuran udalbatzarrak onartu zuen Jose Aranako haur eskolako udal zerbitzua lau urtetarako Arizmendiri esleitzea.

Hain zuzen ere, Arizmendi eskola izan da lehiaketara aurkeztu den enpresa bakarra. Hala, Arizmendi lau urtetarako kontratatu dute, eta baliteke denbora gehiagorako esleitzea.

Alderdi guztiek alde bozkatu zuten eta EB abstenitu egin zen, "udal zerbitzua esku pribatuetan ez uztearren".

> ELKARTEAK

## Udalak eta Garabidek elkarri laguntzeko hitzarmena egin dute

Udalak eta Garabidek elkar laguntzeko hitzarmena egin berri dute. Garabide gobernuz kanpoko erakundeak euskararen eredua ezagutzera ematen laguntzen du hizkuntza gutxituak dauden munduko beste herrialde batzuetan.

Joan den hilabetean Udalak Garabideri Jose Aranaren eraikineko lokal bat utzi zien bertan euren lanak egin ditzaten. Horrekin lotuta, elkarrekin egin duten lehenengo ekintza da joan den asteko kultura arteko kafe-tertulia.

> MUSIKA

## Musika taldeei grabazioak egiteko laguntzak eskuragai

Udalak hainbat laguntza eskaintzen dizkie herriko musika taldeei grabazioak egiteko. Hain zuzen ere, Udaleko Kultura Sailak 2.400 euroko partida bat onartuta dauka zeregin horretarako.

Laguntza hori grabazioaren kostuaren %50ekoa izango da, baina ezingo da 1.100 euro baino handiagoa izango da. Udaleko osoko bilkuran aho betez onartu zuten erabaki hori. Hala, interesa duten taldeek Udalera jo dezakete.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**bere ustez**



Tomas Larrañaga

## Etengabeko hazkuntza krisian

Kezkaturik gabiltza krisiarekin. Egunkari, irrati, telebista, tertulia… denak kontu berarekin. Urte batzuk igaro dira azken krisi handitik. Globalizazioak beste modu batera ekarri digu oraingoa: zorretan leporaino sartuta. eraikuntzan zoramena, gezurrak barra-barra, errekorrak salneurrietan, 50 urte hipotekatuta.

Kezkaturik gabiltza edo poliki-poliki ohiturak aldatu behar ditugu orain artekoa jasan ezina delako? Triste gabiltza eguneroko ohiturak asko aldatu gabe: oporrak, autoz toki guztietara bakarrik, itxura zainduz…

> **"Dugun kontsumo maila jasanezina da eta lurraren iraupena kolokan jartzen ari gara"**

Agintarien mezu okerra: Bai, kontsumitu, kontsumitu, bestela ekonomia gelditzen da. Autobide gehiago, AHTa, porlanarekin dena estali, lana sortzen dugu. Gaur bai, eta bihar, zer? Geurea eginda, ondorengoak hor konpon.

Iparra galdu dugu. Gure lurraren neurriak eta aberastasunak ezagunak dira eta dugun kontsumo maila jasanezina da. Lurraren iraupena kolokan jartzen ari gara. Garraiorik ez, industriarik ez, nekazaritzarik ez, oporrik ez. Gure doktrina kontsumoa da.

Gure esku dago aberastasunak zaindu eta etorkizunari begira lan egitea.



Osakidetzari Torresoroako lokala besterentzea onartu zuten osasun zentroa han ipintzeko. GOIENKARIA

**UDALA** > UDALBATZARRA

# Zerga gehienak %5 igoko dituzte KPIaren arabera

**Zaborren gaineko zergek %10eko igoera izango dute, ibarreko gainontzeko herrietan bezala, Mankomunitateak hartutako neurria delako**

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Udalbatzarra izan zen eguaztenean eta, beste hainbat gairen artean, 2009ko Ordenantza Fiskalen proposamena izan zuten mahai gainean. Aho batez onartu zuten proposamen hori. Zerga gehienek KPIaren araberako igoera izango dute, %5ekoa, hain zuzen ere. Salbuespena zaborren gaineko zergetan dago, %10eko igoera izango dutelako lehenengo seihilekoan eta uztailean %23ra igotzeko aukera legoke. Hori Debagoieneko Mankomunitateak ezarritakoa da besteak beste Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioaren harira.

Bestalde, hobariei dagokienean familia ugarietan diru sarrerak kontuan hartzea erabaki dute. 24.000 eurora arteko diru sarrerak dituztenek %90eko hobariak izango dituzte; 24.000 eta 50.000 euro arteko sarreren kasuan %50ekoa da hiru semealaba dituztenendako; %70ekoa lauren kasuan eta %90ekoa bost izanez gero. 50.000tik gorakoetan hiru seme-alabarengatik %15 jasoko dute, laurengatik %40 eta bostengatik %65.

**IGOGAILUETARAKO LAGUNTZAK**

Bestalde, igogailuak ipintzeko dirulaguntzen baldintzen harira, aldaketa bat proposatu zuten. Dirulaguntzak eskatzeko obren amaierako agiria aurkeztea ezinbestekoa zen, baina aldaketa egin da, agiri horren ordez industria agiria aurkeztea nahikoa da.

Sagasti parean egingo duten biribilgunea izan zen hizpide gero. Lurjabeek eskatu dute egungo hesolak, ur hartuneak… daudenetan mantentzea. Arau subsidiarioei baino proiektuari bera ri eragiten dion arren, aintzat hartzea adostu zuten guztiek.

Anbulatorioaz ere jardun zuten batzarrean. Onartu zuten Torresoroako lokala, osasun zentroa izango dena, 30 urterako Osakidetzaren esku uzteko lokalaren besterentzea (enajenatzeagitea. Ondoren, Osakidetzak erabakiko luke noiz egin aldaketa. Gerora, aurreikuspenen arabera, orain anbulatorioa dagoen lekuan gaztetxea ipiniko dute.

Azkenik, erabaki zuten gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko Gizonduz ekimenarekin bat egitea eta horren harira sinadura bilketa egingo dute.

> MUSIKA

### Los Viernes al Ron-en kontzertua Danbakan egubakoitzean

Datorren egubakoitzean, azaroaren 14an, izango da Danbaka musika lehiaketako hurrengo kontzertua. Han jardungo du Iñigo Irizar Antzuolako bakarlariak Los Viernes al Ron izenpean. Euskaraz folk eta blues doinuak eskainiko ditu Elgetako Espaloia Kafe Antzokian 22:30ean.

Kontzerturako sarrerak Goienako egoitzetan, telefonoz (943 25 05 05) edo Espaloian eros daitezke bost euroren truke, eta gazte kutxa dutenek hiru euro ordaindu beharko dituzte.

> BIDAIAK

### Mexikoko argazkiak erakutsiko ditu Maite Telleriak eguenean

*Antzuolarrak munduan* ekimena ipini zuen abian Kultura Sailak herritarren bidaietako argazkiak eta kontakizunak ezagutzera emateko. Lehen emanaldia atzeratu egin zuten eta datorren eguenean, azaroaren 13an, izango da 18:30ean Olaranen. Maite Telleriak Mexikoko egonaldiaren gaineko azalpenak emango ditu irudiekin. Pazifikoko kostaldean ateratako argazkiak erakutsiko ditu batik bat: Zihuatanejon, Acapulcon, Puerto Escondidon…

> AFARIA

### 1961 eta 1962ko kintoek ospakizuna egingo dute

1961eko irailaren 1a eta 1962ko urriaren 31 bitartean jaiotako antzuolarrek kinto afaria egingo dute elkarrekin azaroaren 22an, larunbatean, Antzuolako Arin jatetxean. Afarirako izena eman nahi dutenek azaroaren 19ra arteko epea daukate. Interesatuek Jabi Fernandezekin jarri beharko dute harremanetan egun horren aurretik. telefono zenbaki honetara deituta: 943 76 63 05.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**UDALA** > URRIKO OSOKO BILKURA

# Oposizioa, zabor tasaren igoeraren aurka

Patxi Basauriren taldeari "gehiegikeri larria" iruditzen zaio zabor tasa urtebetean 73,47 eurotik 100,21 eurora igotzea

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Elgetako Udalak onartu ditu 2009rako udal zergen eta tasen igoerak. %4,5eko igoera aplikatuko zaie higiezinei, ibilgailuei, lur eremuei, jarduera ekonomikoei, obrei eta hilerriko zerbitzuei dagokien zergei.

Aho batez onartutako igoerak dira honakoak, baita udal gobernuak proposatutako zenbait hobari edo bonifikazio ere. Familia ugariek, Bizigune programan daude etxebizitzek edo %33 baino gehiagoko elbarritasuna justifikatzen duten lagunek deskontuak izango dituzte zerga horietako batzuetan. Aldiz, errekargua izango dute herrian hutsik dauden etxebizitzak, hau da, inor erroldatuta ez daukaten etxeak.

**ZABORRAREN ZERGA**

Zerga igoera handiena, baina, zaborraren tasak hartu du: %10 lehenengo sei hilabetean. "Mankomunitatetik datorren erabakia da hori", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Aldatu egingo da, gainera, izan ere ez dugu oraindik ezagutzen Gipuzkoako Kontsortzioak aplikatuko duen igoera. Sei hilabete barru jakingo dugu hori".

Plenoan igoera horren aurka agertu zen oposizioa. Patxi Basauriren taldeak uste du igoera hori "gehiegikeri larria" dela. "Aurreikuspenak betetzen badira urtebetean %23,20 igoko da zerga hori", esan du Basaurik. Aurreko urtean %16tik gora igo zela gogoratzen du, gainera: "Herritarrendako, asko da, eta Mankomunitatearen gastuei aurre egiteko beste formula batzuk badaudela uste dugu. Igoera handiak aplikatzen zaizkie herritarrei eta ez zaie horren arrazoiaren inguruko inongo informaziorik ematen. Atez ateko zabor bilketa, konposta... ez dugu esaten egin behar ez direnik, baina krisian gaude eta ez dago ondo gastu guztia herritarrei kargatzea. Irudimen falta sumatzen dugu".




Mankomunitatearen gaikako bilketan jarduten duen puntu berde mugikorra. E.S.

> LUDOTEKA

### Hezitzaile lanpostua bete nahi du Udalak azarotik apirilera

Udalak azaro amaieran zabaldu nahi du ludoteka zerbitzua eta pertsona bat behar du hezitzaile lanak egiteko. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena hilaren 14a baino lehen. Euskara jakitea ezinbesteko baldintza da eta ikasketak zein esperientzia baloratuko dira.

Ludoteka zerbitzua apiril amaierara arte egongo da zabalik astelehenetik barikura bitartean 16:00etatik 19:00etara.

> ERRETIRATUAK

### Gaztaina-erre jana egingo dute gaur Ozkarbin, 18:30ean

Erretiratuen elkarteak urteroko gaztaina-erre jana egingo dute gaur, barikua, Ozkarbi elkartean.

Elkarteko kide guztiak daude bertara gonbidatuta lagun artean arratsalde pasa polita egiteko.

Gaztaina-erre jana 18:30ean hasiko da, eta ez 19:30ean, aurreko astean orri honetan bertan iragarri moduan. Zuzenketa eginda dago, beraz.



Nestor Maidaganek 17 urte daramatza Elgetako anbulatorioan. L.Z.

**OSASUNA** > PRAKTIKANTE BERRIA

## Nestor Maidagan eskualde ospitalera destinatu dute

Abenduaren 11tik aurrera Maite Odriozola oñatiarrak hartu du haren lekua

**L.Z.** > ELGETA

"Pena handiarekin noa", adierazi digu azken 17 urteotan Elgetako praktikantea izan den Nestor Maidaganek. "Oso gustura ibili naiz urte hauetan guztietan Elgetan eta jendearekin harreman ona daukat". Abenduaren 11tik aurrera, Eskualde Ospitalean arituko da lanean eta Maite Odriozola oñatiarrak ordezkatuko du Elgetako anbulatorioan. "Gogoan ditut hasierako urteak kontsulta zabaldu zenekoa naiz ni-eta! Bi bat ordu egiten genituen"

**ESKUALDE OSPITALERA**

Nestor Maidaganek ez daki oraindik ziur bere lanpostu berria zein izango den, baina kirofanoan ikusten du bere burua. "Ez nuke bertan elgetarrik ikusi nahiko", esan digu.

**KIROLA** > INSTALAZIOEN ERABILPENA

## Araudia errespetatzeko deia egin dute udal arduradunek

Ozkarbi elkarteak, berriz, zesta-punta ikastaroa egingo du umeendako azaroko hiru eguenetan

**L.Z.** > ELGETA

Neguan herritarrek lehentasuna dute frontoiaren erabileran aste tartez 16:00etatik 18:00etara, eta asteburuetan 16:00etatik 19:00etara. Astegunetan 18:00etatik aurrera erreserbek dute lehentasuna eta ordaindu egiten dute horretarako. Udal arduradunek araudi hori errespetatzeko deia egin dute: "Denondako espazio bat da", adierazi du Rebeka Ubera zinegotziak. "Erabilera egokia egitea garrantzitsua da".

**ZESTA PUNTA IKASTAROA**

Ozkarbi elkarteak, bestalde, zesta-punta ikastaroa egingo du doan herriko umeendako. Ibon Arrasate izango da irakaslea. Azaroaren 13an, 20an eta 27an egingo dute ikastaroa 19:00etatik 20:00etara. Izena Bolatokian eman behar da.




Frontoiaren araudia errespetatzeko eskatu du Udalak. E.T.

> KIROLA

### Elgetako lau handiak eta Athletic zaleen batzarra, domekan

Domekan, hilak 9, Intxortako Lehoiek batzarra egingo dute Bolatokiko tabernan. Athletic-en partiduaren ostean izango da hori, 18:30ean hasita.

Mendia gustuko dutenek, berriz, Elgetako lau handiak egiteko aukera izango dute. Bi ibilbide egongo dira; bata luzea 08:00etan abiatuko dena eta bestea motza 09:00etan irtengo dena. Herriko plazatik abiatuko dira parte hartzaileak.

> GAZTETXEA

### Hirunako futbito txapelketa eta kontzertuak zapatuan

Gaztetxeak antolatuta, zapatu arratsaldean hirunako futbito txapelketa egongo da herrian. 17:00etan emango diote hasiera txapelketari.

Gauerako, berriz, kontzertuak antolatu dituzte gaztetxean. Lau taldek egingo dute emanaldia 22:30ean hasita. Azkoititik etorriko dira Deficiencia Mental, Aldexok eta The Sugarballs taldeak; Zumaiatik, berriz, Destroy taldea.

Errespetuz jokatzeko eta arauak betetzeko eskatzen die Udalak gazte lokala erabiltzen dutenei

Lokala itxi zenetik gertatutako guztia jasotzen duen txosten publiko bat egin du Udalak

**GAZTEAK**> LOKALA ITXITA DAGO

# Gazte lokala itxi egin du Udalak, arauak ez betetzearren

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Gazteekin akordioa lortu ezinda, Udalak azkenean ere gazte lokala ixtea erabaki du.

Irailaren 19an Kultura batzordeak bilera egin zuen eta bertan zerbitzuetako teknikariak eta kultura teknikariak txosten bat aurkeztu zuten. Txosten horretan azaltzen zen gazteek ez zituztela errespetatzen Udalak gazte lokalerako ipinitako arauak eta neurriak. Hori horrela, hortik aste betera, gazte lokaleko atea itxi egin zuen Udalak.

Aipatutako txostenean, gainera, gazte lokalaren egoeraren gaineko informazio zehatza jasotzen dela adierazi du Asier Agirre alkateak, argazki eta guzti: "Txostenean zerrenda luze bat dago gazteek lokalari egindako kalteak jasotzen dituena. Hamaika puntu inguru dira. Besteak beste, idatzian jasotzen da lokaleko ateak apurtu dituztela, komunak ere hondatuta daudela, eskaileretan lokalekoak ez diren traste mordoa dagoela eta lokaleko eskaileratik kultura etxerako atea indarrez zabaldu eta apurtuta dagoela".

Hori guztia jakinda, esan bezala, lokala ixtea erabaki zuten. Horretarako gutun bat bidali zieten gazteei lokalera ixteko erabakiaren arrazoiak azaltzen: "Gure arrazoiak azaldu genizkien eta hausnarketa bat egiteko ere eskatzen genien gutun horretan. Bukatzeko esan genien 15 egunen barruan Udaleko ordezkariekin harremanetan ipintzeko, arazoari irtenbide bat emateko", azaldu du Agirre alkateak.

Gazte lokalaren ordezkari bi izan ziren Udalarekin kontaktuan ipini zirenak. Errespetuz jokatzeko eskatu zien Udalak, eta argi utzi nahi izan zien euren jarreran aldaketa bat ikusi nahi dutela. "Benetako jarrera aldaketa bat nahi dugu, ez hitzezkoa bakarrik, heldutasun erakutsi beharko dute", dio alkateak.

Gazte lokalarekin gertatutako guztiarekin txosten bat ireki du Udalak eta alkateak azaldu du txosten hori publikoa dela eta edozein herritarrek irakurri dezakeela.

> ZERBITZUAK

### Eguneko zentroa 2009ko aurrekontuetan sartu behar izan du Udalak; beraz, atzeratu egingo da

Urtea amaitu baino lehen eguneko zentroa adjudikatuta egotea zen Udalaren asmoa. Proiektua garatuta zegoen baina, Udalak emandako informazioaren arabera, lehiaketara ateratzeko egunean bertan, Diputaziotik azaldu zieten Aldundiak 2009ko aurrekontuetara pasa beharra izan duela Aramaioko eguneko zentroaren proiektua. Eguneko zentroa egiteko Diputazioarekin hitzarmena sinatuko du Aramaioko Udalak, baina, horretarako proiektua aurrekontuetan sartuta egon behar da. Datorren urtean sinatuko dute hitzarmena.

> ABIADURA HANDIKO TRENA

### Zabor edukiontziak erabiltzearren tasak ordaindu beharko ditu lanak egiten dabilen enpresak

Herritar batzuk salatu dute Bolinburu baserri ondoko edukiontzira zaborra botatzen zebiltzala Abiadura Handiko Lanak egiten dabiltzanak. Horien esanetan edukiontziak bete egiten dituzte eta herritarren zaborra botatzeko ez da lekurik egoten. Hori horrela Udalak erabaki du Bolinburu beste edukiontzi bat ipintzea. Lanak egiten dihardduen enpresak, baina, ordaindu egin beharko du edukiontzi hori erabili ahal izateko.

> ZINEA

### 'Momo denboraren atzetik' filma ikusteko aukera izango dute domekan herriko haurrek

Aramaioko gaztetxoek domekan ikusiko dute Momo neskatila lotsatia eta maitagarria dela. Momok adiskide berriak aurkitu ditu eta antzinako anfiteatro batean bizi da. Halako batean, ustekabean gizon grisak iristen dira hirira jendeari denbora lapurtzeko. Momo gaizkile horiek gelditzen saiatuko da, eta hori lortzeko mila abentura biziko ditu. Filmea 17:00tan eskainiko dute Aramaioko kultura etxean.




GOIENKARIA

## Diploma berezia eman dio Artzai Gazta izendapenak Undari

Basque Teamek (BAT) Zilarrezko Kaikua saria jaso du. Artzai Gazta jatorri izendapenak duela zortzi urtetik ematen duen saria da; Basque Teamek elitezko euskal kirolariak sustatzeko egin duen lana saritu nahi izan dute. Gainera, aurtengo diplometako bat BATen babespean dihardduen Maider Unda borrokalari aramaioarrak jaso du, borrokalari gisa egiten ari den lanagatik eta familia usadioaren araberako gaztagintza uztartzeagatik. Sariak banatzeko ekitaldia Donostiako Miramar Jauregian egin zen. Undak azaldu zuen bi talde horiekin, BATekin eta Artzai Gaztarekin, oso gustura egiten duela lan.

**HIRIGINTZA** > LANDAGIPUZKOA32 EGITASMOA

# Hainbat baserritarako sarrerak konpontzeko eskaera egin du Udalak

Dirulaguntza eskaera lau sarrera konpontzeko da

Gaztainuzketako uraren kontuak ez du konponbiderik oraindik

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Udalerri txikiak –1.000 biztanletik beherakoak– suspertzeko Aldundiak abian jarritako Landagipuzkoa32 egitasmora dirulaguntza eskaera egin du Gatzagako Udalak. Aldundiak ezarri zuen bi eratako proiektuak aurrera eroateko izango zela laguntza hori: urak bideratzeko eta bideak konpontzeko. Azken horretarako egin du eskaera Udalak.

**PROIEKTUAK EGINDA**

Urriaren 28an egindako osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak hainbat baserritarako sarrerak egokitzea. "Guk askoz gehiago egokitu eta konpondu gurako genituzke, baina dirulaguntzaren oinarriek ez digute uzten", adierazi zuen Eusebio Villar alkateak. Horregatik Artabilla baserrirako sarrera ez dute konponduko dirutza handia delako. Hona egokitzeko eskatu duten baserrien sarrerak: Arrate, Asteisoro, Olaun Goikoa eta Gatzagain ingurua. Konponketa horien proiektuak Aldundiak dauzka eginda, eta orain onartu zain geratu dira. Gatzagainen kasuan, mendiari zatitxo bat kendu gura diote ikuspen hobea egon dadin.

Konponketen gastuaren %80 arte hartuko du bere gain Aldundiak, baina kopuruak ezingo du 150.000 euro baino gehiago izan. Gainerakoa Udalak jarriko du.

**GOIERRI AUZOA GEROKO**

Alkateak adierazi zuen Goierri auzora dagoen bide sarrera ez konpontzea erabaki dutela, gero bidegorriaren proiektua datorrelako, eta ez dakitelako zelan geratuko den inguru hori. Bestalde, Gatzagainen ganaduarendako parrilla jartzeko asmoa zuen Aldundiak, baina alkateak aipatu zuen ez daukala inolako zentzurik orain jartzeak: "Arlaban gaineko plana egiten gabiltza, eta laster etorriko da. Hortaz, orain jarri, gero behar bada kendu behar izateko..."

**GAZTAINUZKETARAKO URA**

Udalaren beste arduretako bat Gaztainuzketako mendi etxeek duten ur arazoa da. Horren gainean jardun du azken hilabetean Rafael Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatuarekin, baina adierazi die Landagipuzkoa32 egitasmoko dirulaguntzak ura baserrietara eroateko direla. Udalak gura du Landa Garapenak banatzen dituen dirulaguntzen artean sartzea Gaztainuzketakoa, baina oraindik ez dute baiezkorik jaso.

Autobideko lanek lehortu zuten Gaztainuzketari ura ematen zion Lapikozuluetako iturburua eta geroztik ez dute nahikoa emari. Arazoa konpontzeko dirutza handiko lanak egin behar dituzte –600.000 euro inguru–, eta Gatzagako Udala ez da gai horri aurre egiteko.

## Transformadore berria hil honetan hasiko da lanean

Transformadorea aldatzeko lanak aurrera doaz eta joan zen astean jarri zuten argindar dorrea transformadore txabola berriaren alboan. Oraindik kableak lotzeko eta argindar hartuneak martxan jartzeko daude, baina lanok ez dira luze joango. Horretarako argindarra kenduko dute egun baten herrian, baina aurrez iragarriko diete gatzagarrei. Leintzargi enpresak transformadore berria martxan jartzen duenean –hil honetan bertan uste du Udalak– txabola zaharra bota egingo dute.



MIRIAN BITERI

> OSPAKIZUNA

## San Milixan jaiak gertatuta dituzte hilaren 16rako

Azaroaren 16an, domeka, ospatuko dituzte Gatzagan San Milixanak. Artisauei eskainitako jaia izaten da, eta dagoeneko XVI. Langintzen Feria antolatu dute. Goiz partean egingo dute jaia eta pilotalekuan egongo den feriarekin batera, gatz museoa ezagutzeko aukera eskainiko diete kanpotik datozen bisitariei.

Horrez gain hiru ekitaldi iragarri dituzte aurtengo ospakizunerako: xaboiak zelan egiten diren erakutsiko duten tailerra –batez ere umeendako–, euskal jantzien erakusketa Garro jauregian eta *Beira puztua* deritzon erakustaldia. Ekitaldi hauek guztiak ere domeka goizean izango dira (10:00-14:30).






Zuhaitz Ezpeleta, Espainiako Kopako txapeldun.



Reyes Azkoitia.



Fernando Zufiria.



Joseba Iñurrategi.



Maider Unda diploma eskuan duela itzuli zen Beijingo Olinpiar Jokoetatik; oso gertu izan zuen brontzea.

**DEBAGOIENA KIROL SARIAK** > HAUTAGAIAK

# Hauek dira Debagoiena Kirol Sarietan herritarrek sarituko dituzten hautagaiak

Abenduaren 20an hamalau sari banatuko dituzte, horietako bat herritarren saria

Herritarrek emango duten sarirako goiko bost hautagai horiek aukeratu dituzte antolatzaileek

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Abenduaren 20an banatuko dituzten Debagoieneko Kirol Sarietarako dagoeneko botoa eman ahal da. Debagoieneko herritarrek goiko bost hautagaien artean erabaki beharko dute, baina aukeraketa hori herritarren sarirako izango da, eta gainontzeko sarietarako ere proposamenak egin ahal izango dituzte.

Hala, herritarren sari horretan antolatzaileek 2008an kirol lorpen handiak izan dituzten bi kirolari –Ezpeleta eta Unda–, urte askotan zehar ibarreko kirolaren alde lan ezkutua egin duten hiru lagunekin batu dituzte: Reyes Azkoitia, Fernando Zufiria eta Joseba Iñurrategi. "Lagun horiekin batera beste jende askok merezi dituzte sari horiek, ea datozen urteotan saritu eta eurek egindako lana errekonozitzen dugun", adierazi zuen antolatzaile lanetan dabilen Asier Muxikak *Harmailatik* saioan, astelehenean.

Gogoratu, baina, guztira 14 sari banatuko dituztela abenduaren 20an, eta herritarrena sari horietako bat dela. Horrenbestez, hasi proposamenak egiten.

ZELAN EMAN BOTOA

### La Caixako bulegoetan eta Interneten

Herritarren sarirako bost lagun horietako bat aukeratu behar da, eta gainontzeko sarietarako ere proposamenak egin -proposamen horiek epaimahai batek baloratuko ditu. Zelan eman botoa? Bada, Debagoieneko La Caixako bulegoetan ondoko eskuorria aurkituko duzue, eta berau betez.

Eta, Internet bidez ere eman daiteke botoa *www.dks08.net* eta *www.goiena.net* webguneetan.




## Zuhaitz Ezpeleta

> Arrasate, 1977
> Mendiko lasterkaria

Zuhaitz Ezpeletak mendiko lasterketetan lortu ditu kirol lorpen garrantzitsuenak, baina horretan hasi aurretik Bedoñakoa Euskadiko duatloi eta triatloi txapelketetan aurrean ibiltzen zen. Korrika egiteko sekulako gaitasunekin, mendiko probetan hasi zen Ezpeleta. Hala, 2004an Zegama-Aizkorri proban ezusteko ederra eman zuen, Mario Polletiren atzetik bigarren helmugaratuta (4:08:46). Iaz ere podiumera igo zen proba horretan, eta aurten beste jauzi bat egin du, Espainiako Mendiko Kopa irabazita.

## Maider Unda

> Aramaio, 1977
> Borrokalaria

Bederatzi urte besterik ez zituela hasi zen Maider Unda borroka egiten Otxandion. Hasiera batean Sambo deritzan modalitatean jardun zuen, baina aurrera egiteko aukerarik ez, eta borroka librean hasi zen. Undak kirolaren bi aldeak ezagutu ditu: garaipen garrantzitsuak batetik, baina baita lesio larriak ere. Europa eta Mundu mailako hainbat txapelketan hartu du esku. Urtetan Espainiako txapelduna, 2001ean Mediterranear Jokoetan brontzea eskuratu zuen, eta aurten, Beijing-en eskura izan zuen domina hori.

## Joseba Iñurrategi

> Eskoriatza, 1945
> Eskoriatzako Pilota Elkartea

"Pilotan ez nintzen aparteko ezer, ez pentsa". Hitz horiekin laburbildu du Joseba Iñurrategik pilotari moduan egindako palmaresa: "Berandu hasi nintzen pilotan, 24 urterekin. Debagoieneko txapelketan sailkatzen zena -sasoi hartan *distrito* izenekoa- Gipuzkoakora sailkatzen zen, eta ni hirutan sailkatu nintzen bertara, baina hortik aurrera...".

Iñurrategik 34 urterekin utzi zion pilotan jokatzeari, eta 28 urte egin ditu Eskoriatzako taldean delegatu. Egun, benjamin eta infantil mailako pilotariekin dabil.

## Reyes Azkoitia

> Bergara, 1952
> Bergarako Pilota Elkartea

Reyes Azkoitiak gazte-gaztetatik jokatu izan du pilotan, eskolan zebilenetik: "Baina, emakumeendako ez zegoen txapelketarik, eta ezin lehiatu". Azkoitiak ere hogei urtetik gora egin ditu Bergarako pilota elkartean: "Gogoan dut Gabonetako Txapelketa antolatzen hasi ginenean pilotari gaztetxoak partidua galdu eta negar baten hasten zirela. Hori zen irabazi beharra hori! Gazteek ondo pasatzeko antolatzen genuen hura, eta negarrez amaitzen zuten. Oraingo gazteendako, zorionez, irabaztea ez da dena".

## Fernando Zufiria

> Arrasate, 1950
> Arrasate Atletiko Taldea

Fernando Zufiriak ere onartu du atletismoan ez zela nabarmentzen zen horietakoa: "Altuera jauzian 1,69 metroko marka izango nuen, baina orduan *rodillo* estiloarekin egiten genuen salto". Geroago etorri zen, 1968an, Dick Fosburyk altuera jauzira iraultza ekarri zuen saltoa, bizkarrez. Bergaran hiru urtez ibili eta gero, Alfonso Gorroñogoitiak animatuta Arrasateko taldera itzuli zen Zufiria, eta 1987an *Juventudes deportivas* alde batera utzi, eta Arrasate Atletiko Taldea sortu zuten. Egun atleta gaztetxoekin dabil.

**ATLETISMOA** > BEHOBIA-DONOSTIA

# Hamasei mila lasterkari domekan Behobiako irteera puntuan gertu

Martitzenean aurkeztu zuten aurtengo Behobia-Donostia proba, eta urtero moduan, aurten ere errekor guztiak hautsiko dituzte

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Fortunako ordezkarien esanetan, 16.300 lagun batuko dira domekan Behobiako irteera puntuan. Badirudi proba horrek ez duela mugarik, urtero-urtero hazi egiten delako zenbateko hori –iaz 14.600 lagun–, eta aurten ere hazi egingo da probara doazen debagoiendarren kopurua –iaz 450 lagun iritsi ziren helmugara–.

Lasterketari dagokionez, aurreko postuetan bi marka handiko ordezkariak ibiliko dira mokoka. Hau da, aurten Adidas etxeak babestuko du Behobia-Donostia, eta marka horrek bere ordezkari Julio Rey eramango du lasterketara. Aurten Nike etxea kanpoan geratu da, baina etxe horretako ordezkari, eta azken urteotako irabazle Chema Martinezek proban esku hartzeko asmoa erakutsi du.

**GUREKO ORDEZKARIAK**

Iazko lasterkari azkarrena Ritxar Fernandez izan zen (1:05:56), eta emakumezkotan Idoia Velez de Mendizabal (1:31:08) nagusitu zen. Joan den astean Soraluze-Bergara krosean ikusitakoaren arabera, ibarreko lagun askok egingo dute ordu eta hogei minutu baino gutxiagoko marka; iaz hogehi lagun baino gehiago izan ziren, eta sekulako marka da.




Ricardo de Goñi bergararra, iaz Behobia-Donostian. GOIENKARIA

KONTUTAN HARTZEKO

## Astelehenean, lasterketaren berri

Behobia-Donostiara joango diren ehunka lasterkari debagoiendarrak jarraitzeko GOITBko eta GOIENKARIAko lankideak izango dira han lanean. Hala, *Asteleheneko Goienkaria*-k lasterketaren gaineko elkarrizketa, kronika eta erretratuak batuko ditu, eta baita ibarreko korrikalarien sailkapen osoa ere.

Horrekin batera, 21:45ean hasita GOITBko Harmailatik kirol saioan domekako probaren gaineko laburpen zabala egingo dute. *www.goiena.net*-en ere jasoko duzue probaren berri, batez ere erretratuetan. Zuen argazkia bidali nahi izanez gero, *webmaster@goiena.com*.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Eibar
Zapatua. 18:30. Anoeta

**Gazteen euskal liga**
Bergara-Leioa
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

Aretxabaleta-Amorebieta
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Preferente maila**
Real Union-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Irun.

Hondarribia-Mondra
Zapatua. 15:30. Zaldupe.

Hernani-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Aita Mari.

**Lehen erregionala**
BTLS-Eibartarrak
Zapatua. 17:00. Ipintza.

Aretxabaleta-Antzuola
Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Urola
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Lazkao-Bergara
Zapatua. 15:45. Arizti Handi.

**Bigarren erregionala**
Bergara-Urki
Zapatua. 19:00. Agorrosin.

**Ohorezko mailako gazteak**
Aloña Mendi-Zumaiako
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazteak**
Aretx.Arizmendi-Bergara
Domeka. 11:00. Ibarra.

Ilintxa-Mondra
Zapatua. 18:00. Legazpi.

**Ohorezko mailako kadet.**
Zarautz-Arrasate
Domeka. 17:30. AstiTxiki.

Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Zumaia.

Bergara-Aretxabaleta Ari.
Domeka. 12:00. Ipintza.

**Lehen mailako kadeteak**
Bergara-Arizmendi
Domeka. 17:00. Ipintza.

Aretxabaleta B-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Ibarra.

**Kadete txiki**
Touring-Arrasate
Zapatua. 12:30. Fanderia.

**Ohorezko mailako infanti.**
Aretx.Arizmendi-Bergara
Zapatua. 12:00. Ibarra.

**Infantil maila**
Aloña Mendi-Urki
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Elgoibar-Arrasate
Domeka. 13:00. Mintxeta.

**Infantil txikiak**
Zarautz-Arrasate
Zapatua. 11:30. AstiTxiki.

Bergara-Aretxa. Arizmendi
Zapatua. 10:15. Ipintza.

**Emakumezkoen liga**
Arizmendi-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Almen.

Aloña Mendi-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Azkoagain.

**Emakumezkoen F8 Kadet.**
Aloña Mendi-Intxaurdi
Zapatua. 16:15. Azkoagain.

### SASKIBALOIA

**Lehen nazional maila**
Zornotza-MU
Domeka. 12:00. Zornotzan.

**Senior gizonezkoak**
MU-Santo Tomas Lizeoa
Zapatua. 16:00. Musakola.

Coaatg-Aloña Mendi
Gaur. 20:00. Zubikoa.

Ganbara-Aloña Mendi B
Zapatua. 18:30. Andoain.

**Gazte mailako gizonezko.**
Easo A-Mondragon Unib.
Gaur. 19:30. Donostia.

Transbretaña-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Bergara.

**Gazte mailako emakume.**
Eskoriatza-Internacional
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

Oiartzun-Soraluce BKE
Domeka. 10:00. Oiartzun.

**Kadeteak gizonezkoak**
Hernani-MU Besaide
Zapatua. 16:15. Hernani.

MU-Colchones Atseden
Zapatua. 12:00. Musakola.

Aloña Mendi-Zast
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Kadeteak emakumez.**
Eskoriatza-Premank BKL
Zapatua. 16:00. Eskoriatz.

STL Egaña-Arizmendi Esk.
Zapatua. 09:00. Donostia.

Aloña Mendi-Mundaiz
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak**
Ford Mugarri Ar.-Suc.Agirre
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko gazteak**
Aiala-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Zarautz.

**Euskadiko Txapelketa, emakumezko kadeteak**
Aiala-Verkol Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Zarautz.

**Lehen territorial maila**
Soraluce BKE-Donibane
Domeka. 12:15. Labegaraiet.

**Big. territorial maila**
Arrasate-Amenabar
Zapatua. 17:30. Iturripe.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Arrasate Chap.-Usurbil
Domeka. 11:15. Iturripe.

Amenabar-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Zarautz.

**Gazte maila, emakumezkoak**
Citroen Chap.-La Salle
Domeka. 11:15. Legazpi.

**Kadete maila, gizonezkoak**
Arrate-Bergara
Zapatua. 16:30. Eibar.

Pulpo-Bergara Txiki
Zapatua. 16:30. Zumaia.

**Kadete maila, emakumezkoak**
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 12:30. Labegaraie.

### ERRUGBIA

**Pirinioetako Emakumezkoen Nazioarteko torneoa**
Euskadi-Katalunia
Zapatua. 18:00. Mojategi.



BERGARA
San Lorentzo
ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO
APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak
Eraikitzailea
INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea
GRUPO Ormak
Argibide eta salmenta
943 42 44 30
www.ormak.es
Apartamentuak
152.000€-tik aurrera
25.300.000 pta


KAMISETAK
SALGAI
www.danbaka.com
DANBAKA
III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
PACK BEREZIA
KAMISETA + DVD-CD
20
EURO
BAT
12
EURO
BI
22
EURO
HIRU
30
EURO
SALTOKIAK
GOIENAKO
EGOITZAK
ESPALOIA
KAFE ANTZOKIA


UDA GOIENEKO
OSTERA
2008 9.edizioa
Petti + Zura
DURANGO PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
Azaroak 14, barikua, 22:00etan.
Sarrera 6 € aurretik 8 € bertan.
antolatzailea
babesleak



**> MANU MUNIATEGI**
Pintorearen lanak ikusgai Bergarako Aroztegin **> 44**



**> JESUS ATXA**
Aretxabaletarraren bizitza, 'Bidegileak' bilduman batu dute **> 45**

**> NEREA ARREGI**
Arrasatearra da, 23 urte ditu, eta gimnasia egitea du gustuko. Hala, zaletasuna ofizio bihurtu du. Gimnasioa zabaldu berri du Mondragoen: Zigagym **> 50**



# Heldu da bost urteotako lanaren fruitua erakusteko ordua

Oñatiko Ganbara Txikik V. urteurren jaia ospatuko du bihar Santa Ana antzokian

Jai berezia izango da; orain arte egindako 'lan gogorra' herriari erakusteko eguna



**HAUR ABESBATZA** Oñatiko Ganbara Txikirentzat ospakizun eguna da biharkoa. GANBARA TXIKI

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatza 2004ko urrian sortu zen, helduen Ganbara abesbatzaren babespean. Taldearen sortzaile eta zuzendari Aitor Biainek berak onartzen duenez, "ez da ohikoa zerbait sortu eta bost urtera urteurren bat ospatzea, baina bost urteotan egindako lan gogorra herriari erakusteko ordua heldu dela uste dugu".

Urteurren jaia, hortaz, bihar hasiko da eta egitarau oparoa prestatu dute. Hau da, ez da kontzertu soil bat izango. Besteak beste, kontzertuan Ganbara abesbatzako helduen eta txikitxoenen taldeek parte hartuko dute, emanaldiarekin batera ikus-entzunezko muntaiak proiektatuko dituzte, eta bost urteotako errepasoa egiteko erakusketa bat jarriko dute Santa Ana antzokiaren sarreran.

**HAUR ABESBATZEN ZIKLOA**

Biharko ospakizunez gain, urteurren ospakizunak azaro osoan zehar luzatuko dira. Izan ere, Haur Abesbatzen Zikloa antolatu dute azaro osoan barrena.

Haur abesbatzen eskaintza, Biainek uste duenez, "kultur arloan ezberdina den eskaintza da" eta gaineratu du datozen hiru aste bukaeretan etorriko diren koroak –Kantika koroa, Donostiako Orfeoi Txiki abesbatza eta Orereta abesbatza– "Euskal Herriko puntakoak" direla. Hortaz, Euskal Herriko etorkizuneko ahotsik onenetarikoen topaketak izango dira, eta emanaldion lekuko izateko ordaindu beharreko bost euroak ez dira alperrik ordaindutakoak izango, ez horixe.

**BOST URTE ETA HAMAIKA LAN**

Oñatiko musika zaletasunak eta haur abesbatzen arloko hutsuneak bultzatuta sortu zen Ganbara Txiki abesbatza, orain bost urte. Bost urte eskas pasa diren arren, hamaika kontzertu eta lan plazaratu dituzte. Proiektu emankor honen sortzaile eta gidari izan den Aitor Biainek, baina, Arace-li Guridi piano jolearen "ezinbesteko" laguntza izan du urteotan.

Lehen kontzertua 2004ko abenduan eman zuten; Biainen hitzetan, "erabat aberasgarria" izan zena. Lehenengo aldiaren *izotza* apurtu ostean hainbat emanaldi eskaini dituzte. Euskal Herri osoan zehar ibili dira; besteak beste, Donostia, Urretxu, Agurain, Gasteiz, Bilbo, Donibane Garazi eta Bergaran izan dira. Eta, bestalde, Estatu espainiarrean ere abestu izan dute: iaz Bartzelona eta Kantabrian izan ziren eta aurten Madril ezagutu dute.

Proiektuen artean honako hauek aipa daitezke: *Horra Mari* (2005) eta *Alami* (2006) ipuin musikalak eta Josu Elberdinek koroarentzat propio idatzi zuen *Jolasean* musikala, iazko abenduan estreinatu zena.

**DISKOA, ABENDUAN KALEAN**

Bilduma lana da *Munduari Begiratzeko*. Abenduan kaleratuko dute; 18 kantuz osatua eta estudio ezberdinetan grabatutako CDa izango da.

## Haur Abesbatza Zikloa azaroan

**BIHAR**
**Ganbara Txiki abesbatzaren V. urteurren jaia.** Bost urteen errepasoa egingo dute, eta Ganbara Abesbatzak eta Ganbara Txikitxoak parte hartuko dute.

**AZAROAK 15, ZAPATUA**
**Leioako Kantika abesbatzaren kontzertua.** Basilio Astulezek zuzentzen duen koroa ezberdina da: ahotsa denetariko kolore eta dantzekin nahasten dute.

**AZAROAK 23, DOMEKA**
**Donostiako Orfeoi Txiki abesbatzaren emanaldia.** Donostiako Orfeoi entzutetsuak 1988an sortu zuen gaztetxoen abesbatza, abeslari harrobia sortzeko asmoz. Egun Esteban Urtzelai eta Isabel Mantecon dira zuzendariak.

**AZAROAK 29, ZAPATUA**
**Orereta abesbatzaren kontzertua.** Imanol Elizasuk zuzentzen dituen neska mutikoek ere maila altua erakutsi dute. Eurak itxiko dute Haur Abesbatzen zikloa.

**Kontzertu guztiak Oñatiko Santa Ana antzokian izango dira, 19:00etatik aurrera. Sarrerak 5 eurotan daude salgai, Kultur Etxean.**

V. URTEURREN JAIAREN EGITARAUA

## Originaltasunez betetako jaia antolatu du Ganbara Txiki abesbatzak

Biharko urteurren jaia berezia izatea da Biainen helburua. Kontzertua 19:00etan hasiko da, baina ordubete lehenagotik izango da zer ikusi Santa Ana antzokian. Izan ere, antzokiaren sarreran erakusketa bat jarriko dute, argazki, egunkari-zati eta kontzertu ezberdinetako irudiekin. Kontzertu ostean ere ordubetez egongo da zabalik erakusketa.

Kontzertuari dagokionez, bost urteotan bizitakoen errepasoa egingo du abesbatza gazteak. Hala, kronologikoki baino, bost urteotako bidaia gaika azaldu dute. Esate baterako: *Zer da Ganbara Txiki proiektua?* galderari erantzuteko Imanol Lartzabalen *Mendian Gora* -kantu berezia oso taldearentzat-abestia interpretatuko dute. Edo *Bidaiak* gaia jorratzeko Katalunian ikasi zituzten Josep Vila i Casañas-en *Papallona* eta *Peix Martell* kantuak abestuko dituzte. Aurkezpen originala izango denik ezin ukatu.

Ganbara Txikirekin lanean jarraitzeko asmoa agertu du Biainek. Horretaz gain, haur abesbatzen mugimenduari bultzada bat ematea ere bada helburua.

Manu Muniategiandikoetxea > Artista

# "Etxera erakusketa normal bat ekarri nahi nuen; ez dut lortu"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

**Artea nahiaren eta ezinaren arteko borroka moduan ikusten du Manu Muniategiandikoetxeak (Bergara, 1966). Bere lanek ez dute asetzen, "oso gaizki eroaten" da eurekin. Uda lasaia pasa du, aurtengo udaberrian Koldo Mitxelenan egindako erakusketan "hustu" ostean. Aroztegin bertan, hots, etxean, zabalduko du *Nahiaren eta Ezinaren* erakusketa, gaur. Aurreratu digunez, ikuslea "astintzera" dator.**



Ispiluaren –ispilua da erakusketaren oinarria– isladak lurrari begira dagoen neska bat irudikatzen du, ohiko eran begiratuz abstrakzioa nagusi den lekuan. XABIER URTZELAI

**Erakusketa zergatik deitu duzu *Nahiaren eta Ezinaren*?**

Erakusketei izenburua jartzeko nire egoerari erreparatzen diot, erakusketa zabaltzean zein une artistikoan nagoen. *Nahiaren eta ezinaren* Xabier Leteren *Xalbadorren heriotza* kantutik dator.

**Zer da, bada, nahi baina lortu ezin duzuna?**

Ez da ezer zehatza. Abestian inspiratu naiz jendearentzat oso berezia den kantua delako.

Baina nahia eta ezina nik artea ikusteko dudan ikuspuntuarekin lotuta dago. Zerbait ikusten dut, hunkitu eta dena egiten naiz, baina ez naiz sekula heltzen, ez naiz inoiz asetzen.

**Gaurkoa al da Bergarara ekarri duzun zure lehenengo bakarkako erakusketa?**

1986an ere erakutsi nuen, Kultur Etxean. Karreran nengoen, bigarren mailan eta ilusio handiz hartu nuen; pentsa, margolan guztiak markoan ipini nituen. Orduan informalismoa egiten nuen [mantxez osatzen diren abstrakzio lanak], baina deskalabrua izan zen, eta urtetan izan nintzen zorretan. Lagun bik lan bana erosi zidaten, besterik ez. Jendeak "bueno, ondo..." esaten zidan. Jendearen gustua alde batekoa dela uste dut.

**Alde batekoa?**

Bai, jendea ohitura batekoa da. Margolari asko egon dira eta jendeak badaki, baina artista zehatz horietaz soilik daki. Nik uste dut Aroztegi moduko aretoetan antolatzen diren erakusketek didaktikoagoak izan beharko zirela, eta albo batera utzi norberaren atsegintasuna bilatzen dituztenak. Jendeak badaki honelako erakusketak egiten direla, baina etxera ekarri behar dira.

**Zein da ikuslean sorrarazi nahi duzun erantzuna?**

Ikuslea astindu nahi dut. Ez dut erakusketa ikusi eta "ze polita!" den entzun nahi. Ohiko erakusketa bat ekartzea hobe legoke, denon gustukoa izatea eta etxera pozik joatea. Baina ez naiz horretara etorri.

**Badu xarma berezirik jaio eta bizi izan ziren kale berean erakusketa jartzeak?**

Etxean erakustea ez zait batere gustatzen, hainbat gauza nahasten dira-eta. Kanpoan ez zara Manu, ez zara inor, artista soila zara. Zure lana bakarrik neurtzen dute, ez zaituzte-eta ezagutzen. Etxera nator eta zirko antzerako bat bezala natorrela dirudi: "ea honek zer egiten duen". Hasieran zerbait normala egitea nahi nuen, jendea ez larregi harritzeko. Baina ezin izan dut; ez dakit-eta gauza normalak egiten.

**"Ikuslea astindu nahi dut. Ez dut jendeak 'zein polita' den esatea nahi, ez naiz horretara etorri"**

**"Ez zait etxean erakustea gustatzen. Kanpoan hobe, nire lanak bakarrik neurtzen dituzte-eta"**

**Zein harrera espero duzu bergararren partetik?**

Kritika asko. Ez didate unean bertan esango, baina gerora, jaietan-edo, ziur *aizkorakada* sartuko didatela (barreak).

**Zer ekarriko duzu Aroztegira?**

Lan asko egin ditut azken urteetan. Obra larregi dauzkadala esango nuke. Estudioan ia ez dut lekurik: nahiaren eta ezinaren adibide garbia. Normalean, gainera, oso gauza handiak egiten ditut, handian ondo sentitzen naiz. Erakusketa honetako obra nagusia ispilua izango da, eta horrekin batera, horma gisa egingo duten bi koadro handiak eta kaxa gorria. Ikus-entzunezko bat ere proiektatuko da, musikarekin batera.

**Zer esan nahi du kaxa gorriak? Zergatik ekarri duzu?**

Urtetan zehar traba izan da estudioan, akatsa bailitzan. Lanean nenbilenean, batetik bestera, ostikadak ematen nizkion askotan; ea zerbait gertatzen zitzaion. Aurrekoan, kaxari begira, ispilu gainean joan behar zela etorri zitzaidan burura, eta hor doa. Kaxa gorriak geometriaren bidea agortu zaidala esan nahi du. Orain bide berriak bilatzen nabil.

**Nola doa urtea erakusketei dagokienez? Datorren urterako ba al duzu zerbait?**

Koldo Mitxelenako erakusketaren ostean uda lasaia pasa dut. Oraingoz, datorren udaberrian Madrilen erakusketa garrantzitsu bat daukadala aurrera dezaket.

**Heldu da krisia artera?**

Datorren urtea oso gogorra izango da. Hala ere, aurre egingo diogula deritzot; lanean jarraitzea da irtenbidea.

AROZTEGI

## Aretoa bere erara egokitu du artistak

Muniategiandikoetxeak Aroztegi aretoan "gauza larregi" daudela dio. Hau da, beste aretoak "neutroagoak" omen dira. Hala, bere gustura egokitu du aretoa, eta besteak beste, "aretoa erabat baldintzatzen duen atea" erakusteko lekutik kanpo utzi du.

Gainera, artistak betidanik gustuko izan duen funtzioa eman die bere koadro erraldoiei: horma edo holtz tolesgarri funtzioa, alegia.

'ARTEA IKASBIDE' EKIMENEKO IRAKASLE

## Aretxabaletako Kurtzebarri ikastolako haurrekin oso gustura ibili zen iaz

Iaz Aretxabaletako Kurtzebarri ikastolan irakasle moduan aritu zen Artea Ikasbide ekimenaren barruan. Zazpi urte daramatza ekimen honetan parte hartzen eta, hasteko, egonkortasun ekonomikoa eskaini diola azaldu du. Izan ere, artearen munduan, umorea galdu barik, gorabehera ekonomikoak baino "*beherabehera* asko eta noizean behin gora" egiten dela dio artista bergararrak. Kurtzebarriko haurrekin "oso ondo" ibili zen artista bergararra. Haurrekin tratatzeak, azaldu du, "nire mundutik irtetera behartu nau, nire lainotik errealitatera jaistera". "Haurrekin", dio Muniategiandikoetxeak, "hizkuntza moldatzen ikasi dut, eta hori oso aberasgarria izan da niretzat".

Bestalde, artistaren *lainoa* zahartu ahala desegiten joaten dela deritzo. Eta zahartzaroa, bere ustez, "atzean begiak irteten direnean dator, hau da, atzera begira hasten zarenean".

**LITERATURA** > IDAZLE ESKOLA

# 'Idazleak irakurle' mintegiak antolatu ditu Idazle Eskolak

Liburuei buruzko iritzi-trukea bultzatzea da helburuetariko bat

Narrazioak eta historiak euskal literaturan zuen presentziaz hausnartu nahi dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
*Idazleak Irakurle* ekimena ipini du abian Idazle Eskolak. Mintegi hauen helburuak hauk dira: besteen liburuekin pentsatuz idazten ikastea; liburuei buruzko iritzi-trukea bultzatzea; mintegietara gonbidatutako idazleek proposatutako gaiekiko burutapenak sortzea; idazleek euren irakurleak ezagutzea; eta hausnarketa bideak proposatzea idazleek irakurtzen dituzten liburuen eta liburuak irakurtzeko moldeen gainean.

Zazpi idazle izango dira, bakoitza liburu batekin: Mariasun Landa eta *Festa aldameneko gelan*; Jerardo Elortza eta *Gorrotoa lege*; Joxemari Iturralde eta *Hyde Park-eko hizlaria*; Jokin Muñoz eta *Antzararen bidea*; Laura Mintegi eta *Ecce homo*; Juan Mari Irigoien eta *Bestea da mundua*; eta Juan Kruz Igerabide eta *Hauts bihurtu zineten*. Parte hartzaileek liburu horiek irakurtzeko konpromisoa hartzeaz gain, gonbidatu baten liburuaren eta lanaren gaineko aurkezpena eta txostena ere egin beharko dituzte, egileak edo liburuak sortu dien jakin-mina azalduz. Txostenok *www.idazten.com* webgunean argitaratuko dira. Bestalde, foroa irekiko dute irakurritako liburuen gaineko iritziak eta proposatutako gaien gaineko burutapenak jasotzeko.

**HISTORIA NARRAZIOETAN**

Nobela historikoak azken urteotan izan duen gorakada delaeta aurtengo saioetan euskal literaturan narrazioek eta historiak duten presentziaren gaineko hausnarleta egin nahi dute. Idazleek euren obrei buruz berba egingo dute, baina Jerardo Elortzak, Jon Etxaide euskal nobelagintza historikoaren aitzindaria ekarriko du gogora abenduaren 13an. Egun horretan, Vicente Huizik hitzaldia emango du 09:00etatik 11:00etara bitartean *Historia eta fikzioa* gai hartuta.

Saioak azaroaren 29an hasiko dira eta maiatzera bitartean hilabeteko azken zapatuan (abenduaren 13an salbu) idazle bat izango dute gonbidatu. Bergaran, Uned-en, izango dira jardunaldiak 11:30etik 13:30era.

Izena emateko azken eguna azaroaren 15a da eta Uned-era edo Asmoz fundaziora jo behar dute interesatuek.




Josu Jimenez ipuin kontalari nafarrak Oñatiko Haur Liburutegian egingo du emanaldia GOIENKARIA

**LITERATURA** > IPUIN KONTAKETA

# Kamishibai teknika erabilita, ipuinak kontatu dituzte Oñatin

Kamishibai berbak paperezko antzerkia esan nahi du eta narratzaileak ipuina kontatu ahala irudiak antzeztoki txiki batean pasatzen ditu

I.A. > OÑATI
Oñatiko Udal Liburutegiak Kamishibai ipuin saioa antolatu du gaurko, azaroaren 7rako. Saioa 7 eta 10 urte bitarteko umeendako izango da 18:00etan Haur Liburutegian eta, ikus-entzule kopurua mugatua izanik, gonbidapen guztiak agortu egin direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Ipuin kontaketarako teknika japoniar hau nahiko berria da gurean. Arrasaten, Santa Marinako liburutegian erabili zuten orain dela gutxi eta orain oñatiarrek izango dute aukera.

**TEKNIKA BERRIA**

"Kamishibai ipuinak kontatzeko teknika narratibo japoniarra da. Kamishibai hitzak paperezko antzerkia esan nahi du. Hortaz, narratzaile batek ipuina kontatu ahala paperezko orriak, irudiekin, pasatzen ditu antzoki txiki batean. Oso erakargarria da, eta kontatu bitartean umeek zein helduek istorioa ikus dezakete", azaldu digu Josu Jimenez ipuin kontalari nafarrak.

Antzoki txiki horri butai deitzen zaio eta Oñatiko liburutegian horrelako bat badaukaten arren, Josu Jimenezek Japoniatik ekarritako materiala erabiliko ditu: bai ipuinak eta baita butaia ere. "Ipuinak Japonian sortuak eta hemen euskaratuak dira, eta nik nahiago ditut, mugimendu asko eskaintzen dutelako eta horrek istorioari tentsioa emateko aukera ematen duelako", dio Josu Jimenezek.

Oñatin eskainiko ditu Japoniako herri ipuinak eta modernoagoak. Tartean, kontatuko ditu ipuinak jendearen parte-hartzea eskatzen dutenak ere.

Jimenezek Reiko Furuno japoniarrarekin izan zuen Kamishibairen berri eta Ikaj (International International Kamishibai Association of Japa) taldeko kide da, Kamishibai teknika mundura zabaltzea helburu duena.



Jesus Atxa Agirre. GOIENKARIA

**EUSKARA** > 'BIDEGILEAK' BILDUMA

# Jesus Atxa aretxabaletarraren bizitza, 'Bidegileak' bilduman

Euskararen alde jardundako norbanako esanguratsuen bizimodua ezagutzera ematea da helburua, ondorengoek euren berri jakiteko

I.A. > BERGARA
*Bidegileak* bildumak euskararen alde jardundako norbanakoak ditu aztergai eta dagoeneko 208 bidegileren bizitza jaso du. 1987an hasi zuten *Bidegileak* proiektua.

Euskaltzaleen bizitza aztertu ez ezik, eurak omendu nahi ditu, ondorengo belaunaldiek euren berri izan dezaten. Horretarako, euskaltegi, liburutegi eta kultur etxeetara zabaltzen dute.

51. eta 52. aleak kaleratu berri dituzte eta 52. alean, euskararen bultzadan garrantzitsuak izan diren lau lagunen bizitza jaso dute, tartean Jesus Atxa Agirrerena, Iñaki Murua Uriak idatzia.

**DURANGOKO AZOKA ETA IKASTOLAK**

Jesus Atxa Agirre 1920an jaio zen Aretxabaletan eta 2007an Iruñean hil zen. Urteetan euskararekin lotutako hainbat arlotan jardun zuen: Durangoko azokaren hastapenetan; euskarazko aldizkari, liburu, film eta haurrentzako ipuinak argitaratzen; eta hainbat ikastolen sorreran, besteak beste.

Euskaltzaindiak 1967ko abuztuaren 25ean euskaltzain urgazle izendatu zuen eta euskaltzain ohorezko, 1998an.

Bildumak haurtzaroa eta prestakuntza-garaia, urratutako bideak eta ekintzak zein idazkiak eta egindako lanen balorazioa jasotzen ditu.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai San Andresen, Bañez Doktorea kalean. Berrikuntzak behar ditu. 162.273 euro. Deiut 629 10 41 31 telefonora.

BERGARA

**Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin.**

**610 73 65 40**

**Azpeitia.** Loiolabiden etxe ederra salgai. 3 gela eta egongela handia, 2 balkoi, bi komun eta sukaldea trasteroarekin. Igogailua eta berogailua ditu. Garaje plaza bat dauka eta teilatuan terraza komunitarioa ere bai. Deitu 658 74 49 02 telefonora. Ainararengatik galdetu.

**Baiona.** Baionan San Leon auzoan 40 m2ko egoitza-terraza: 12m2 hegoalde - sukaldea - haize egokitua - igogailua -3. eta azken solairua - sotoa - aparkalekua kanpoan - Tel 00-33-(0)624582152

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 metro koadro. Guztiz berriztua eta jantzia, bizitzen jartzeko. 152.000 euro. Prezio negoziagarria eta ordaintzeko erraztasunak. Harremanetareako deitu ondorengo telefono zenbaki honetara: Deitu 635 70 49 74 telefono zenbakira.

**Bilbo.** Alde zaharreko metrotik 7 minutura, ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trastelekua eta garaje plaza 1 (alokairuan). Deitu 94 15 67 49 telefonora.

**Donostia.** Duque de Mandas, Tabakaleraren parean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena berritua. Berogailua, igogailua. 2 balkoi kalera. Eguzkitsua. 395.000€ Deitu 650 72 16 30 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Etxea salgai Elgoibarren, Pedro Muguruza etorbidean 75 metro karratukoa. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna, despentsa, balkoia, bista onak, oso argitsua eta igogailuarekin. Berriztatzeko. Deitu 628 15 95 33 telefono zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Etxarriko zentroan etxebizitza salgai. Egongela, 3 logela, 2 komun, trastelekua eta garajea. Salneurria: etxebizitza eta garajea 156.000 euro (etxebizitza bakarrik: 150.000 euro) Deitu 609 71 60 23 telefono zenbakira.

**Ezkarai.** Bi logela, berogailua, igogailua, garaje itxia eta urbanizazioko igerilekua. Jantzia. Valdezkaraitik 10 kilometrora. Deitu 650 60 12 14 telefono zenbakira.

**Ikaztegieta.** Etxebizitza salgai Ikaztegietan. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailu eta bi balkoi ederrekin. Deitu iluntzetan 628 69 88 07 eta 666 61 57 66 telefono zenbakietara.

**Lakuntza.** Babes ofizialeko etxebizitza Lakuntzan. Babes ofizialeko etxebizitza salgai. 90 metro karratu. 3 gela, 2 bainu gela, trastelekua eta garajea. Guztiz jantzita. Interesatuek hots egin 618 08 21 14 telefonora.

**Oñati.** 116 metro koadroko duplexa salgai erdigunean. Lau logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Prezioa adosteko. Deitu 635 71 41 39 telefono zenbakira.

**Oñati.** 79 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezioa adosteko. Deitu 635 71 41 39 telefonora.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. Deitu 680 44 95 55 telefono zenbakira.

**Tolosa.** Voith-Gorostidi eremuko lehenengo fasean, 2 logela, 2 komun, terraza zabala, sukaldea, sala, garajea eta trasteroa. 300.000 € (BEZ barne). Negoziatzeko prest, interesatuek deitu 657 70 05 68 zenbakira.

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU<br>102. EROSI<br>103. ERRENTAN EMAN<br>104. ERRENTAN HARTU<br>105. ETXEAK OSATU<br>106. BESTELAKOAK | 301. SALDU<br>302. EROSI<br>303. ERRENTAN EMAN<br>304. ERRENTAN HARTU<br>305. BESTELAKOAK | 501. JASO<br>502. EMAN<br>503. BESTELAKOAK | 701. SALDU<br>702. EROSI<br>703. EMAN<br>704. BESTELAKOAK | 901. AGURRAK<br>902. HARREMANAK<br>903. DEIAK<br>904. BESTELAKOAK |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| 201. SALDU<br>202. EROSI<br>203. ERRENTAN EMAN<br>204. ERRENTAN HARTU<br>205. BESTELAKOAK | 401. ESKAINTZAK<br>402. ESKAERAK<br>403. BESTELAKOAK | 601. SALDU<br>602. EROSI<br>603. ALOKATU<br>603. KONPONDU<br>604. BESTELAKOAK | 801. SALDU<br>802. EROSI<br>803. EMAN<br>804. HARTU<br>805. TRUKATU<br>806. GALDU<br>807. AURKITU<br>808. BESTELAKOAK | |

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** 70 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ibarran. Bi logela. Garaje itxiarekin. Deitu 656 73 13 21 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Oso ekonomikoa. Hiru logela eta egongela. Bikote edo ikasleentzat egokia. Jose Angel eta Laura. Deitu 615 74 32 79 edo 696 79 43 88 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran, ikasleentzat. Deitu 646 81 03 35 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan urtarriletik aurrera unibertsitate ondoan. Hiru logela. Berogailuarekin. Deitu 653 72 55 85 edo 620 31 33 72 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berogailu zentrala dauka. Igogailua. Deitu 605 77 51 71 telefonora.

**Oñati.** 100 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 645 71 98 84.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta estudioa. Jantzia. 680 97 06 31.

**Andoain.** 2 logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz eraberritua, bikote batentzat aproposa. Igogailua, trastelekua. 70m karratu, 2 logela, sukaldea eta egongela bat eginik eta komuna. Guztiz eraberritua. Azaroaren 1etik aurrera erabilgarri. Oso argitsua. Deiut 650 41 24 15 telefonora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Altsasu.** Bi neska pisu bila dabiltza Altsasun edo inguruko herrietan. 699 40 37 24 edo 636 54 41 97.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 659 35 09 30

**Eskoriatza.** Etxebizitza hartuko nuke errentan azarotik aurrera. 610 89 76 64 edo 665 30 70 94.

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Deitu 666 21 88 95 edo 943 77 07 01 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza txiki bat hartuko nuke errentan. 605 73 90 03.

**Arrasate.** Logela edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Mutil arduratsua naiz, lan finkoarekin. Deitu 943 77 07 01 edo 656 66 49 75 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Berogailudun eta telefono lineadun etxebizitza hartuko nuke errentan. 686 52 15 98.

**Bergara.** Etxe bat errentan hartu gura dut, Bergarako edozein zonatan. Deitu 650 62 12 94 edo 943 08 22 60 telefono zenbakietara. Reina.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 658 28 90 86 telefonora.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Antzuolan bada hobeto. Presazkoa da. 617 88 20 93.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 659 35 09 30.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 607 59 18 49.

**Arrasate.** Mutil batek logela hartu nahi du errentan. 645 72 25 24.

**Arrasate.** Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela. Wi-fia. Eguzkitsua. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Arrasate.** Ferrerias kalean 135 metro koadroko etxea osatzeko kide bila. 4 logela, 2 komun, sukalde hornitua eta saloia. Gasezko kalefakzioa. Hilabetean 187,50 euro (gehi gastuak). Deitu 658 70 01 05 edo 652 71 79 19 telefonora.

**Bergara.** Gela bat ematen da errentan Bolun, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68.

**Bergara.** Gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. 627 75 81 94.

**Bergara.** Mutil gazteak gela behar du. 664 07 78 03.

**Unibertsitateko** irakasleak Arrasaten edo inguruan logela hartuko luke errentan abendutik uztailera bitartean. 615 79 49 51.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Zestoa.** Ikusi eta erabaki. Garajeak planta bikoitza dauka eta lokala garaje azpian dago kokatua. Lokalak 32 metro koadro dauzka eta garajeak 18. Prezioa: 30.000 €. 629 70 81 56 telefonora deitu edo posta: *iribarrena.8@hotmail.com*. Lanerako, autoa eta gauzak gordetzeko aproposa.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garajea errentan ematen da erdigunean. Deitu 630 46 36 71 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Arimazubi plazan. Deitu 635 73 75 17 telefonora.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. 669 63 93 29.

**Donostia.** Garajea alokatzen da, San Inazio elizaren atzeko aldean eta Zurriolako hondartzatik oso gertu. Deitu 670 26 02 51 telefono zenbakira.

BERGARAKO UDALA

**Bergarako Udala laboralen funtzionarioen plantilan bete gabe dauden lau udaltzain plaza hornitzeko eta lan-poltsa bat osatzera doa oposizio bidez.**

**Lehiakideen baldintzak:**
**Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak**
**a) 18 urte beteta izatea.**
**b) Eskola Graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokide den tituluaren jabe izatea.**

**Instantziak**
**Instantziak aurkezteko epea 2008ko azaroaren 19an bukatuko da.**

**Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta *www.bergara.net* webgunean.**

***Bergara, 2008ko azaroaren 5a***
***ALKATEAK***

BERGARAKO UDALA

**EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO ENPRESA BATEK KOMERTZIALA BEHAR DU DEBARROAN**

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, Gizarte Seguruntza barne.
- Soldata interesgarria, finkoaz eta komisioz osatua.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da:
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Debarroan bertan edo inguruan bizitzea.
- Debarroako inguruak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali
gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA

# 3/ LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

**Mutriku - Ondarroa.** 363 metro karratuko lokal industriala alokatzen da Mijoa industrialdean. Bulegoa, 2 komun, argi instalazioa eta aire instalazioa prest. Pezioa 975 euro hilean. 94 6832600.

## 304. HARTU

**Txabola.** Kaixo, Azpeitia inguruan txabola edo borda bat alokatu nahi nuke animaliak jartzeko, txakurra, oiloa ... Diruaz aparte beste tratu baterako ere prest egongo nintzateke, txabola konpondu, basoa garbitu edo beste edozer gauza, interesatuak idatzi mezu bat *artxulo@hotmail.com* e-postara edo deitu: 663 90 67 93 telefono zenbakira. Eskerrik asko.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aramaio.** Aramaion aerobikeko monitorea behar da ikasturte osorako, astelehen, asteazken eta ostegunetan 19:00etatik 20:00etara. 665 72 62 83. Eider

**BERGARA**

**Hileta zerbitzuetarako langilea behar da. CV-a aurkeztu astearte-ostegunak 09:30-11:30 Amillaga 39, Bergara**

**Bergara.** Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 55 26 edo 695 78 06 60

**Donostia.** Neska euskalduna behar da umeak ikastolara laguntzeko eta etxeko lanak egiteko, goiz eta arratsaldez, amaran. 630 20 63 66.

## 402. ESKAERAK

**Altsasua.** Arratsaldez lan egiteko prest. Altsasun edozein lan eginen nuke: etxeko lanak, zaintza, plantxa... Interesatuek hots egin 660 22 09 17 telefonora (Fatima).

**Arrasate.** Emakume euskalduna 18:00etatik aurrera edozein lan egiteko prest. Deitu 650 06 01 35 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakumea prest garbiketa lanak egiteko. 628-23 50 55

**Bergara.** Erizain laguntzaile ikasten dabilen neska bat eskaintzen da, haurrak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia. Deitu 618-12 07 44 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eguerdia bitartean. Deitu 616-12 56 29 telefono zenbakira.

**Debagoiean.** Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Bertan lo egiteko bada, hobeto. Deitu 688-68 06 96 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 661-06 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea goizetan lan egiteko gertu. Edozein lan mota: garbitasunak edo zaintza. 699-09 46 26

**Debagoiena.** Erizaintzako teknikari laguntzailea pertsona nagusiak, umeak eta gaixoak zaintzeko gertu. Deitu 943 76 53 43 edo 629 75 00 30 zenbakietara.

**Debagoiena.** Mutila gertu egun osoz lan egiteko. Deitu 666-80 99 58 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Garbitasun lanak: etxebizitzak edo atariak. 669 12 70 98

**Donostia.** Donostiako 37 urteko neska bat arratsaldez umeak zaintzeko prest Deitu 667348521 telefono zenbakira.

**Donostia.** Donostian, garbiketan, plantxan nahiz haur edo helduak zainduz gustura egingo nuke lan. Urte askotako esperientzia. Gisa honetako eskaintzarik baduzu, eskertuko nizuke mezua bidali edo deituko bazenit. Deitu 660 02 85 52 telefono zenbakira.

**Donostialdea.** 37 urteko neska arratsaldez umeak zaintzeko prest. Deitu 667 34 85 21 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Neska gaztea nagusiak edo umeak orduka zaintzeko eskaintzen da, edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 689 20 26 18 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Neska gaztea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da (atariak, etxeak...) edo etxeko lanak egiteko. Deitu 696 77 04 80 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. 16:00etatik aurrera. Deitu 639 24 00 38 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea umeak zaintzeko prest 08:00etatik 09:00etara, eskolara eramateko. Deitu 696 30 85 46 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea lanerako prest, nagusiak zainduz. Esperientzia. Deitu 943 53 16 08 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Zerbitzari lanak egiteko edota nagusiak zaintzeko prest. 617 05 68 28.

**Elgoibar.** Banatzaile edo kamioilari lanetarako prest. Deitu 634 49 14 08 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Neska umeak zaintzeko prest. Deitu 659 32 07 74 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Neska nagusiak, umeak zaindu edo garbiketak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez. Deitu 680 25 05 27 zenbakira.

**Elgoibar.** Neska garbiketak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Deitu 649 21 29 44 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketak egiteko edo tabernan lan egiteko prest. Deitu 638 33 88 16 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. Gauez. Deitu 699 81 38 26 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez. Deitu 943 74 32 51 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakumea lanerako prest. Gida-baimena eta autoarekin. Deitu 669 15 41 43 telefono zenbakira.

**Goierri.** Etxebizitzen aurrealdeak konpontzen ditugu, tabikeak, azulejoak... Kalitatezko lana ziurtatua. Aurrekontua eskatzeko, deitu: 650 39 43 61 eta 618 26 62 93

**Goierri.** Umeak zaintzen, adinekoak zaintzen, edo garbitzen lan egingo nuke. Deitu: 649 07 31 33.

**Goierri.** Adinekoak zaintzen, etxebizitzak, etxe atariak, bulegoak... garbitzen lan egingo nuke. Autoa daukat eta bidaia ezberdinak egiteko aukera. Goizez deitu 687 79 55 57 zenbakira.

**Lasarte Oria.** 23 urteko neska euskaldun eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko eskaintzen da, goizez eta arratsaldez. Kontaktuan jarri nahi izanez gero, deitu telefono honetara: 646 38 32 90. Eskerrik asko.

**Lasarte Oria.** 23 urteko neska, publizitatea edo egunkariak/astekariak banatzeko eskaintzen da, goizez eta arratsaldez lan egiteko prest. 646 38 32 90. Eskerrik asko.

**Lasarte-Oria.** 20 urteko neska euskaldun esperientziduna astean zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo litzateke, kontaktuan jarri nahi izanez gero telefono honetara deitu: 618 01 93 09. Eskerrik asko.

**Lasarte-Oria.** Neska gaztea arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Irakaskuntzan esperientzia. Deitu 659 73 01 33 telefono zenbakira.

**Pasaia.** Autonomoa eskaintzen da astean 2 edo3 egunetarako. Esperientzia handia lorazaintzan kamioi kartetarekin eta furgotarekin aukeran. Informazio gehiago *lorazain@ozu.es* edo 679 60 04 44 telefonoan.

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. 627 65 34 33.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailarako eskola partikularrak hartuko nituzke. Deitu 669 61 52 99 telefonora.

**Bergara.** DBH1eko ikasleari eskola partikularrak emateko gertu dagoen norbait behar da. Deitu 943 76 21 79 edo 658 70 73 17 telefono zenbakietara.

**Irakaslea.** 1. batxilergoko ikasle bati matematika eta ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar dut. Deitu 627 34 92 27 telefonora.

## 502. EMAN

**Arrasate.** Gizarte hezkuntzan diplomatutako neska euskalduna naiz eta lehen hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut Arrasaten. Esperientzia daukat lan honetan. Deitu 680 90 63 04 telefono zenbakira.

**Donostia.** Magisteritzako ikaslea lehen hezkuntzako haurrei klase partikularrak emateko prest. Donostia edo Irun inguruan. Julen. Deitu 622 240 219 telefonora.

**Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dudan neska bat naiz eta eskola partikularrak emateko prest nago. LH eta DBHko 1. eta 2. mailetan. Deitu 666 38 57 97 zenbakira.

**Lasarte-Oria.** Lasarte. Neska euskalduna lehen hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia. 659 73 01 33.

**Orio.** LH-DBHko ikasleei etxekolanak egiten laguntzeko edo klase partikularrak emateko eskaintzen naiz Orio inguruan (Orio-Zarautz-Usurbil-Donostia). Ingelesean eta euskaran lagun dezaket (EGA prestatzen adibidez). Klaseak etxean bertan edo desplazatuz eman ditzaket. Ordua 10 €. 677 17 19 44.

**Tolosa.** Neska euskalduna lehen hezkuntzako klase

**Saltide**
**Higiezinen zerbitzua**
Bizkaia kalea, 6 - 20800 ZARAUTZ
Tel.: 943-01 07 00 / 665-718 596

**ZARAUTZ.** Ekialdea. 4 logela eta trastelekua. Gela guztiak kanpora begira. Eguzkitsua. 52.000.000 pezeta.
**ZARAUTZ.** Erdialdean. Hondartzatik hurbil. 3 logela, bainugela eta komuna. Egoera onean. 54.000.000 pezeta.
**ZARAUTZ.** Zelai Ondon. 3 logela eta trastelekua. Igogailua du. Eguzkitsua. 53.000.000 pezeta.
**ZARAUTZ.** Garaje irekia salgai udaletxeko enparantzan.
**ZUMAIA.** Jadarre auzoan. 2 logela. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Ordaintzeko erraztasunak. 36.600.000 pezeta.
**BERGARA.** San Lorentzo auzoan. Eraikin berria. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 220.000 €-tik aurrera.

EGUZKI
G. INMOBILIARIA
Tel.: 943-86 22 65 - ZUMAIA

**ZUMAIA**
3 logela, 2 bainugela eta igogailua. 52.000.000 pezeta.
**ZUMAIA**
3 logela eta bainugela. Berritua. 43.000.000 pezeta.
**ZUMAIA**
2 logela. Oso polita. 38.000.000 pezeta.

**OKADOS** inmobiliaria
Zumardi pas. 3 behea - Tel.: 943-39 46 77
San Martin 62 behea - Tel.: 943-44 44 80
www.buscacasas.com

**AIETE.** Oso polita eta eguzkitsua. Balkoiak eta garajea. 450.800 €.
**AIETE.** 3 logelako etxebizitza. 2 bainugela, egongela eta erabilpen anitzeko gunea. Terraza. Bista ederrak. 871.000 €.
**ERDIALDEA.** Kanpoaldera. Eraikin eraberritua. 90 m2. Egongela, 3 logela, 2 bainugela. Igogailua. 931.200 €.
**INTXAURRONDO.** 75 m2. Oso polita eta eguzkitsua. Egongela handia. Sukalde eta balkoia. 3 logela. Bainugela. Bistak. 359.000€.
**INTXAURRONDO-MARRUTXIPI.** 75 m2. Egongela. Sukaldea. Bainugela eta 3 logela. Terraza handia. Bistak. 360.600€.
**BIDEBIETA-GAIZTARRO.** Dena kanpoaldera, terrazetara. Egongela, 4 logela, 2 bainugela. Igogailua.
**HERRERA.** Eraikin berria, 3 logela, 2 bainugela. Altu eta argitsua. Bistak. Igogailua. Aparkaleku komunitarioa. 435.500 €.
**PASAI SAN PEDRO-TORRE-ATZE.** Etxebizitza berriak, garajearkin. Kaiaren parean.
**HERNANI.** Apartamentu berria. 40 m2. Egongela, logela 1, bainugela eta sukaldea. 192.325 €.
**RIAS BAIXAS.** San Vicente do Grove. Harrizko etxe berritua, lur sailekin. Hondartzaz inguraturik. Garajea bi autorentzat.
**HENDAIA-URRUÑA.** Inguru bikaina. 300 m2-ko txaleta. 4,7 hektareako terrenoa.

**ANZABAL** etxe agentzia
Santiago, 15 - behea
ELIZONDO (BAZTAN)
Tel.: 948- 58 08 04
Faxa: 948 581459
anzabal@anzabal.com

**BAZTAN-ORONOZ MUGAIRI:** Etxe bifamiliakoak lur eremuarekin.
**BAZTAN-ANIZ:** 2.000 m2-ko lur eraikigarria.
**BAZTAN-ELIZONDO:** Bigarren eskuko etxebizitza eta apartamentuak.
**BAZTAN-ELIZONDO:** Etxe familiabakarrak bere jardinarekin.
**BAZTAN-ELBETE:** Eraikin berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai.
**BAZTAN-ARIZKUN:** Etxe familiabakarrak bere lur eremuarekin.
**BAZTAN-ARRAIOZ:** Eraiki berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai
**BAZTAN:** Bordak berritzeko salgai.
**ZUGARRAMURDI:** Baserria 50.000 m2-ko lurrarekin.
**IGANTZI:** Eraikin berriko etxea eta lurra.
**SUNBILLA:** Baserri berritua 7.000 m2-rekin.
**ZUBIETA:** Hiru solairuko baserria, berritzeko.
**DONIBANE GARAZI:** 3 kilometrora baserria, bi borda eta lurra.
**BAIGORRI:** Etxea bere lurrarekin.

LAZKAO
INMOBILIARIA
365 API
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao
943-88 37 39



**LAZKAO**
Azken etxebizitzak,
Orobione, San Prudentzio
180.000 €-tik hasita
www.lamylazkao.com

**E.I.U. Inmobiliaria**
ENTORNOS EIU INMOBILIARIOS URBANISTICOS
Patxiku kalea, 5
20800 Zarautz
Tel.: 943-13 27 27

**GETARIA.** Etxe atxikia. 4 urteko etxe atxikia. 200 m2 lau solairutan. 4 logela, 4 bainugela, sukaldea eta egongela, 2 terraza, txokoa eta garaje bikoitza. Oso eguzkitsua eta bista ederrak ditu. Aukera polita.
**ZARAUTZ.** Euromar. 60 m2-ko etxebizitza itsasorako bistekin. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Zona komunitarioan igerilekua, frontoia eta tenisa ditu.
**ORIO.** Eraiki berriak, 70 m2 eta 80 m2, trastelekua eta garaje itxia. 270.455 €-tik aurrera.

ARAMBURU
Administración de Fincas y Gestión inmobiliaria
Etxe Administrakelak eta higiezinen gestioa
943-651713
677-460916

**SALGAI. Etxe handia lur sailarekin,** 4.000 m2, guztiz berritua, Alkizan.
**SALGAI.** Etxebizitza, SOLDADU kalean, sartzeko moduan, Tolosan (231.400€ / 38,5 MIL).
**SALGAI. Etxebizitza,** KALE NAGUSIAn, 1 igogailuarekin sartzeko moduan, eta bestea berritzeko eta igogailurik gabe, Tolosan (193.000€ / 32 MIL. NEGOZIA DAITEZKE)
**SALGAI. Etxebizitza,** MARTIN JOSE IRAOLA kalean Tolosan.
**SALGAI. Etxebizitza,** SAN IGNAZIO auzoan, sartzeko moduan, Ibarran (211.000€ / 35 MIL).
**SALGAI. Etxebizitza,** IZASKUN AUZOAN, Tolosa (234.400€ / 39 MIL).
**SALGAI. Etxebizitza,** guztiz berritua, Amasan.
**SALGAI. Etxebizitza,** berritzeko, Legorretan.
**SALGAI. Lokala,** Euskal Herria kalean, Ibarran.
**SALGAI. Garajeak,** San Frantzisko eta Amarotzen Tolosan, eta Idoiagan Ibarran.
**SALTZEKO EDO ALOKATZEKO. Lokala,** tximiniarekin, erdialdean Lasarten.
**ALOKATZEKO. Etxebizitza,** Iurre auzoan, eta San Franziskon.
**ALOKATZEKO. Garajeak,** San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxiler Zaldibian.
**ALOKATZEKO.** Pabiloi industriala, Leaburuko bidean, Ibarran.

BEGIRISTAIN
INMOBILIARIA
943-42 82 82 • www.begiristain.com

**IGELDO.** Behealdea. Banakako etxea 1.200 m2-ko lursailean. Leku lasaia. Ikuspegi zabalak. F00683





**OIARTZUN.** 300 m2-ko banakako etxea, bi solairutan banatuta. Terrazak, karrerapea eta 1.000 m2-ko loratégia. Dotorea eta leku onean kokatua. F00700

**ERDIGUNEA.** Egongela, sukaldea-jangela, 4 logela eta 3 bainugela. Terraza. Ikuspegi zabalak. Garaje itxia. Trastelekua. Igerilekua eta pilotalekua. F00686





**ANTIGUOA.** Matia kalea. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Barneko patiora begira. 217.000 euro. 801857

**IGELDO.** 90 m2. Egongela-tximiniarekin, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Balkoia eta terraza, itsaso alderako ikuspegiekin. Oso egoera onean. Lursaila, elkartea eta aparkalekua komunitatean. 397.000 euro.F00670





**ERRENTERIA.** Txaleta. Etxebizitza independentea. Egongela, jangela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Galeria. 450 m2-ko lorategi pribatua. Garaje itxia eta erantsiak beheko solairuan. F00664

**ASTIGARRAGA.** Erdigunean. 170 m2. Egongela-jangela tximiniarekin, sukaldea-jangela, 3-4 logela eta 3 bainugela. Terraza. Guztia kanpora begira. Oso egoera onean. Garaje itxia eta trastelekua. F00610





**GABIRIA.** Apartamentu dotorea, eraikuntza berriko eraikinean. Egongela-sukaldea, logela eta bainugela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Terraza eta berdegune komunak. F00699

partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia. 659 73 01 33.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Opel Astra 1.7 salgai.** Opel Astra 1.7 salgai, 100 zaldi, sport. Urte eta erdiko kotxea. Etxeko garantiarekin. 29.000 km. Beltza; oso ondo zaindua; extra askorekin. 13.000 euro. Deitu 635 750 471.

ORBEGOZO Autoak
BMW 645 CI
BERRIZ ESTREINATZEKO
48.600 €
943-15 18 57

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. 678 72 75 72.

**Txakurkumeak.** Artzakur edo mastin arrazako txakurkumeak salgai. Deitu 647 41 93 63 telefono zenbakira.

### 702. EROSI

**Basurde** ar helduak erosiko nituzke. Deitu 678 72 75 72 telefonora.

### 703. EMAN

**Katakumea.** Sei hilabeteko baserriko katakume emea opari. Deitu 943 76 21 71 telefonora.

**Katakumeak** oparitzen ditut. Zurixkak eta begi urdinekin. 943 78 05 13.

**Txakurkumea** opari egiten da, arraza txikikoa. Etxerako osoa egokia. Deitu 605 75 42 65 telefonora.

**Katakumeak opari.** Katakumeak emango nituzke doan. Deitu: 943-693663 / 649-589179 / 943-015074 / 943-018150

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Artzain eta arratoi-txakur arteko nahasketa. 3 hilabete. 645706821.

### 704. BESTELAKOAK

**Katakume polit baten bila.** Hilabete gutxitako katakume polit bat hartu edo erosiko genuke. Deitu telefono zenbaki honetaera: 943-027438.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**'Mobil home'-a** salgai Santo Domingo de la Calzadako kanpinean. 635 73 78 72.

**Altzariak.** Zuzendari bulegorako bigarren eskuko altzariak salgai. 656 70 25 91.

**Argazki kamera** salgai. Olympus 790 SW. 7.1 M, 3xZOpt, Shock+Waterproof, FaceDetection...Berri-berria eta garantiarekin. 200 euro. 660 43 64 29.

**Hozkailua.** Balay etxeko hozkailu eta garbigailua salgai. Deitu 650 62 12 94 telefonora.

**Bergara.** Labe eramangarri berri-berria daukat salgai. Josune. Deitu 634 45 30 97 telefonora.

**Bikiendako aulkia** saltzen dut. Oso ondo zainduta. Maxicosi eta eurirako plastiko eta guzti. Urdin iluna. 350 euro guztira. Deitu 626 17 51 08 telefono zenbakira.

**Bizikleta** estatikoa salgai. Romester Clasic 100 Magnetic. Berria. 100 euro. Deitu 606 28 81 19 telefono zenbakira.

**Bozgorailua.** Egurrezko altzariarekin. Baxuak eta altuak. 15". 200 euro. Deitu 696 37 91 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emaztegai soinekoa saltzen dut. Egoera onean. 42-44 neurrikoa. Handi edo txiki daiteke. 700 euro. Zapatak eta zetazko xala opari. 636 83 85 32.

**Debagoiena.** Motorren eta autoen gaineko aldizkariak saltzen ditut. Asier. Deitu 617 17 15 88 telefonora.

**Entziklopedia salgai.** Auñamendiren 'Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco'. 30 liburu inguru. Prezio onean. Deitu 686 20 03 31 telefonora.

**Errepideko bizikleta.** Giant TCR. Neurria: M. Campagnollo Veloce taldea. Campagnollo Scirocco gurpilak. Triatloiko akoplea. Kilometrokontagailua. Beste plater joko bat eta botak oparitzen ditut. Ez erabiltzeagatik saltzeko asmoa. 600 euro. Deitu 645 00 81 41 telefono zenbakira.

**Eskiak.** Fischer markako eta 1,70 neurriko eskiak salgai. 120 euro. Deitu 669 83 60 53 telefonora.

**Eskiatzeko botak.** 41-42 zenbakiko eskiatzeko botak salgai. Behin erabiliak. 90 euro. Deitu 669 83 60 53 telefono zenbakira.

**Eskiatzeko botak.** Atomic etxekoak. 37-38 zenbakia. Berogailurako instalazioarekin. Oso egoera onean, behin erabiliak. 100 euro. Astegunetan 22:15etik aurrera deitu. Deitu 667 94 52 12 telefono zenbakira.

**Eskoriatza.** Mendiolan 2007ko irailean botatako txikitu gabeko su-egurra salgai: pagoa, haritza, lizarra eta gaztainondoa. 17:00etatik aurrera. Oskar. Deitu 650 86 76 19 telefono zenbakira.

**Fijazioak.** Dynastar markako Look eskiatzeko fijazioak salgai. Emakumezkoendako bereziak. Oso egoera onean. 100 euro. Astegunetan 22:15etik aurrera deitu. Deitu 667 94 52 12 telefono zenbakira.

**Gurpilak.** Elurretarako gurpilak salgai. Berriak. 195x65 R16 neurrikoak. Hagunak (llantak) barne. 300 euro. Ana. 636 43 88 47

**Hozkailua,** garbigailua eta zazpi erradiadore ditugu saltzeko. 669 28 20 64

**Umearentzako sila.** Jané Slalom Pro Umearentzako sila, kapazo eta kukoa (maxi cosia), saltzen ditut, egoera oso onean. Gris ilun kolorekoak. 400 €. 657 77 91 74

**Karabana.** 6 lagunentzako karabana salgai, Etxarri Aranazko kanpinean instalatuta. Guztiz egokitutakoa: hozkailu, sukalde, mikrouhin, telebista eta abarrekin. 609 54 88 59.

**Lehorgailua.** Arropa lehortzeko aparailu elektrikoa saltzen da. 670 85 85 41.

**Mendiko bizikleta** salgai. BH Coronas. Shimano Deore kanbioak. 24 abiadura. 285 euro. 943 79 59 34.

**Mendiko bizikleta** salgai. Trek Fuel 8. Suspentsio bikoitza. Egoera ezin hobean. XTR-XT osagarriekin. 1.500 euro. 626 61 82 66.

**Ordenagailua.** salgai, bigarren eskukoa. Hiru urte ditu. 150 euro. 943 08 18 13.

**Ordenagailuko jokoak.** Jatorrizko lau CD joku: Scooby Doo, Jurasic Park, "La leyenda del dragón" eta Spell Force. Dibertigarriak eta buruko estrategia lantzen dutenak. Egoera ezinhobean. Bakoitzak 6 euro eta denak 20 euro. 679 74 00 61.

**Samsum telebista.** 29 hazbeteko Samsum telebista berria saltzen dut. Garantiarekin. Prezio onean. 618 17 30 87

**Solariuma salgai.** Lanpara berriekin. Prezioa adosteko. 678 61 50 40

**Teleskopioa salgai.** Astrolon etxekoa. 402 potentzia. 656 78 64 64

**Trialeko bi bizikleta** saltzen dira. Monty markakoak. Ia berriak. Bakoitzak 250 euro. 943 79 54 21

**Tronpeta** salduko nuke. Egoera onean dago. Deitu 638 89 78 76 telefono zenbakira.

**Bizikleta estatikoa salgai.** Bizikleta estatikoa salgai. Romester clasic 100 magnetic. Berria. 100 euro. Deitu 606 28 81 19 telefono zenbakira.

**Lur zatia salgai** Azkaratetik Azkoitirako bidean. Lur zatia saltzen da. Azkaratetik Azkoitira bidean, pistaz ondo inguraturikoa, bi hektarea ingurukoa. 671-977 171

**Pianoa salgai.** Oso egoera oneko eta gutxi erabilitako pianoa saltzen dut. Deitu: 616- 493059.

### 802. EROSI

**Basalurrak** erosiko nituzke Bergaran. 669 17 09 51.

**Umeendako arropak.** Bigarren eskuko umeendako arropak erosiko nituzke. Saltzeko gertu dagoenak dei dezala ondoko telefonoetara. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

### 804. HARTU

**Sehaska** hartu edo erosiko nuke. Deitu 650 96 23 08 telefono zenbakira.

**Umearendako bizikleta** hartu edo erosiko nuke. Bi urteko umearentzat modukoa. Deitu 650 96 23 08 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Eskumuturrekoa** galdu nuen Aloñatik Oñatirako bidean. Urrezkoa. Marilo izena eta jaioteguna ditu idatzita. 688 63 25 59.

**Lepokoa.** Olarteko ikastolarako bidean zilarrezko katea galdu nuen, bi domina zituela. Horietako domina bat berreskuratu gura nuke, besterik ez bada. Umetxo itxura du, izen bat atzetik daukala. Mesedez, aurkitu baduzu deitu 626 17 51 08 telefono zenbakira.

**Telefono mugikorra** galdu nuen Oñatin. Nokia 6500 modeloa. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara. 943 71 80 85.

**Mendiko zamarra galdu dut Iruran.** Grifone markako mendiko zamarra beltza galdu nuen 2008ko urriaren 6an Iruran. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu: 620-201429.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Mutil** bat naiz, Arrasatekoa, 38 urtekoa, eta beste mutil batekin, ahal bada ni baino gazteagoa, harremanak izan nahi nituzke. Deiut 665 75 58 74 telefono zenbakira.

### 904. BESTELAKOAK

**Abeslaria.** Rock abeslaria talde bila dabil. Interesatuak deitu 657 02 15 96 telefono zenbakira.

**Azpeitia-Donostia.** Azpeitian bizi naiz eta Donostian (Zuatzun) egiten dut lan. Autoa konpartitu nahiko nuke gastuak gutxitze aldera (auto propioa dut). Nire ordutegia goizeko 08:00-08:30etatik 17:30-18:00etara da. Harremanetarako zenbakia: 637-113909

**Azpeitia-Zamudio.** Autoz egunero Azpeititik Zamudiora (teknologi parkera) joaten garen lagun talde bat gara, batenbat autoa konpartitzeko interesatua balego jarri gurekin kontaktuan.

**Sasi-musika.** Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informaziogehiago: *sasimusika.blogspot.com*

**Donostia alde zaharreko joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? etorri gure entsaioetara eta proba egin!edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Informazio gehiago nahi izan ezkero idatzi mezu bat *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com* e-postara.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 m² + 42 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Lorentzo. Berritua. Prezio ona.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Ozaeta 70 m². Oso ondo.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Oñati:
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Moyua. 75 m². Oso aukera ona.

inmobiliaria Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Eguzkitsua. 36.200.000.
**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. 70m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 53.990.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza (60m2). Berritua. 45.400.000.
**AMARA.** Madrid hiribidea. 70m2. Igogailua. Terraza. Negoziatu daiteke. 49.500.000.
**AMARA.** Katalina Erauso. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Oso polita. Balkoia. 69.000.000.
**ALDE ZAHARRA.** Kaia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 44.500.000.
**GROS.** Zabaleta kalea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. 72.500.000.
**GROS.** Kolon pasealekua. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Sartzeko moduan. 38.300.000.
**GROS.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 45.000.000.
**BUENAVISTA.** 65m2. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Polita. 34.900.000.
**ALTZA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Lorategia. Txokoa. 36.500.000.
**INTXAURRONDO.** 2 solairuko etxea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 56.800.000.
**INTXAURRONDO.** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. Berritua. 48.500.000.
**EGIA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Berritua. Lorategia. 39.500.000.
**EGIA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 38.000.000.
**LEZO.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berritua. Balkoia. Igogailua. 39.500.000.
**LEZO.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. Kanpora begira. 36.500.000.
**ERRENTERIA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 32.300.000.
**LASARTE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 37.500.000.
**BASERRI ETXEAK.** Lezo, Zumaia, Hendaia, Lekunberri. 46.800.000tik gora.

ALOKAIRUAN

**HENDAIA.** Lursailak dituen etxea. Garajea. Hondartzatik gertu. 1.100 €.
**BERA-BERA.** 4 logela, egongela handia, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. 1.300 €.
**TRINTXERPE.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 575 €.
**MARTUTENE.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 850 €.

itesa
SERVICIOS INMOBILIARIOS
ERRENTERIA - LEZO
Altzate Berri
ETXEBIZITZA ONENAK IBAI ONDOAN
KALITATE BEREZIA
INBERTSIO GARRANTSITSUA ABALAKIN
ERRAZTASUN HANDIENAK


Informazioa eta salmenta:
SAN MARTZIAL, 8 - 1.a • DONOSTIA
943 423 600
www.itesa.es
INGRESOS EN CUENTA AVAL (LEY 57/68)

Kortajarena
etxe agentzia
Zure konfidantzazko etxe agentzia
• Errenterian Biteri kalean eraiki berria
• Pasaian Gure Zumardian eraiki berria
Bizkaia pasealekua 24
(baleazaleak izk.)
Tel.: 943-47 17 67
API:274
www.kortajarena.com



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



BERMEA 2 URTE
1000 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA F-2810**
Orain 325 € FAGOR
Lehen: 430 €



BERMEA 2 URTE
1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA 3F-1610**
Orain 230 € FAGOR
Lehen: 335 €



BERMEA 2 URTE
1200 b/min
7 Kg
A Sailkapen energetikoa
**GARBIGAILUA ALF-1127**
Orain 280 € aspes
Lehen: 365 €



BERMEA 2 URTE
A Sailkapen energetikoa
**ONTZI-GARBIGAILUA 2LF-013S**
Orain 300 € FAGOR
Lehen: 385 €



BERMEA 2 URTE
185 x 60 x 60
A+ Sailkapen energetikoa
**HOZKAILUA 3FC- 67NFXD**
Orain 570 € FAGOR
Lehen: 675 €



BERMEA 2 URTE
185 x 60 x 60
A Sailkapen energetikoa
**HOZKAILUA AFC- 185**
Orain 320 € aspes
Lehen: 405 €



BERMEA 2 URTE
144 x 55 x 60
A Sailkapen energetikoa
**HOZKAILUA AFD- 144**
Orain 205 € aspes
Lehen: 290 €




BERMEA 2 URTE
A+ Sailkapen energetikoa FAGOR

| | | |
|---|---|---|
| CFS-112 (850 X 1125 X 600) | Orain: 345 € | Lehen: 450 € |
| CFS-126 (850 X 1260 X 600) | Orain: 380 € | Lehen: 485 € |
| CFS-156 (850 X 1560 X 600) | Orain: 425 € | Lehen: 530 € |

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK




Toys R Us · Loteria Nº 20 · Kalezar · Medical Optica · La Rebotica · Howards Storage World · Wok · Hydra · Swarovski · Aqua · Viajes Marsans · Viajes Iberia · perfumerias if · Javier Duque · Krunch · Ilusiones · lenzaria · Eroski · kidy · froh · Conexion · Gold · Natuzzi · Cosmetic Land · Bermudez

**Nerea Arregi** > Kirolzalea eta gimnasio berri bateko arduraduna

# "Gimnasioa oso leku egokia da bestelako ekintzak urte osoan zehar prestatzeko"

Kirola maite du Nerea Arregik. Kirola, bere osotasunean. Arrasatekoa baino, Zigarrolakoa dela dio; eta baita kirola egitera amak bultzatu zuela. Izan ere, arregitarren etxean guraso zein seme alabek kirola maiz egiten dute. Lagun batek gimnasio bat irekitzea proposatu zion eta ez zuen bitan pentsatu. Biek zabaldu dute Zigagym; eta nola ez, astoa erabiliz irudikatu dute proiektua.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Kirolari lotutako bizitza da Nerea Arregirena (Arrasate, 1985). 14 urte bete zituenetik doa gimnasiora, eta txikitako zaletasuna ikasketetara ere bideratu zuen. Izan ere, Tafyd ikasi zuen eta ikastaro ezberdinetako tituluen jabe ere bada –spinning, pilates, sorosle eta muskulazio ikastaroak. Hala, orain heldu zaio bere zaletasuna eta ikasketak ogibide bihurtzeko aukera: proiektua Zigagym deitzen da, bazkide batekin batera zabaldu duen gimnasio berria.**

**Nork bultzatu zintuen kirola egitera?**

Ama izan zen kirola egitera *behartu* ninduena. Une hartan ezer ikasten ez nenbilenez amak gimnasioa probatzeko *aholkatu* zidan. Gainera, etxean denok gara kirol zaleak eta horrek, nola ez, lagundu egiten du.

**Zein kirol egiten hasi zinen?**

Hasieran, muskulazioa praktikatzen hasi nintzen eta geroxeago igeriketa probatu nuen. Egun, korrika egitea dut gustuko eta zenbait lasterketatan hartu dut parte dagoeneko. Besteak beste, aurten Donibane-Hondarribia eta Bergara Soraluze maratoi erdietan izan naiz. Korrika egitearena orain dela gutxi sortu zaidan zaletasuna da, eta horretan etxean dagoen zaletasunak [bere anaiak korrika egiteko ohitura handia dauka] eragina izan du.

Bestalde, mendia ere oso gustuko dut. Maldan gora ibiltzen naizenean, baina, ez daukat korrika egiteko ohiturarik. Eta korrika egiten badut, lasai ibiltzen naiz.

**Kirolari lotuta bizitza osoa. Zer eman dizu kirola egiteak?**

Deskonektatzeko balio izaten dit, gehienbat. Eta baita, noski, norberaren gorputzarekin gustura sentitzeko ere balio du. Aurrerantzean ere kirolari lotuta jarraitzea da nire asmoa.

**Kirolarekin ezkonduta jarraitzeko zer hobeto norberaren gimnasioa zabaltzea baino. Nondik dator Zigagym zabaltzearen ideia?**

Orain nire bazkide denak proposatu zidan proiektuan berarekin batera sartzea. Proposatu, eta ez nuen bitan pentsatu; bitan pentsatuko banu beste baten bila hasi edo nik neuk ez nuelako onartuko. Egia esan, egun batetik bestera hartutako erabakia izan zen.










JOKIN BEREZIARTUA

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Tafid eta pilates, spinning, sorosle eta muskulazio ikastaroetako tituluak. **Zaletasunak:** Kirola, irakurtzea eta lagunekin egotea. **Gorrotatzen duzun zeozer:** Faltsukeria. **Film bat:** *El Exorcista*, beldurrezko filmak ditut gustuko. **Liburu bat:** *Maleficio*, Cliff McNishen-ena. **Musikari bat:** Fermin Muguruza. **Bidaiatzeko leku bat:** Eguzkitsua den edozein txoko. **Bizi izan duzun garairik onena:** Institutuko garaiak. **Gimnasiotik gehien gustatzen zaizun jarduera:** Spinning-a.

**Jarri diozuen izenarekin lortuko duzue kaleko jendea erakartzea?**

Baietz uste dut. Orain dela hiru aste eskas zabaldu genuen eta auzoko ezagunez gain, kaleko jendea ere hasi da etortzen.

Zigarrolakoa naizenez, izena aproposa iruditzen zait; baina, are aproposagoa eta esanguratsuagoa da gure irudia [gimnasia egiten ari den astoa]: astoarekin, edonora!

**Baduzu esperientziarik? Lehenago izan zara beste gimnasioren batean lanean?**

Bai, hainbat lekutan izan naiz. Bergarako Agorrosin kiroldegian, Arrasateko kiroldegian eta Aretxabaletako Zainduz enpresan ibili naiz lanean, besteak beste.

**Zer du ona gimnasio batek herritarrei begira?**

Neguan, adibidez, eguraldiak eragindako nagikeriak kentzeko balio du, aterpea dela-eta. Bestalde, beste ekintza batzuk prestatzeko jarduera ezin egokiagoa da. Adibide bat jartzearren: *snow* egitea nahi duenak urte osoan zehar prestakuntza egin dezake.

**Zergatik azken urteetako gimnasioen gorakada?**

Jendea gero eta kezkatuago dago norbere gorputzarekin. Gainera, gero eta mediku gehiagok aholkatzen dute gimnasioa errehabilitaziorako, edo bestela ere.

**Honelako proiektuetan hasierak ez dira errazak izaten. Zela doakizue zuei?**

Arazo nagusiak urak eman dizkigu, hoditerietan isuriak batez ere. Bestalde, bezeroei-eta dagokienez, nahiko ondo doa kontua.

**Zein abantaila ekarriko dizkizu gimnasio propioa izateak?**

Orain arte besteentzat ibili naiz lanean, alde batetik bestera. Gimnasio propioarekin etxetik gertu nago eta besteei ondo joan zaie; ea guri ondo doakigun...

**Arrasateko kiroldegiak ere zuen zerbitzu berak eskaintzen ditu, eta zuengandik oso gertu, gainera. Nola egingo diezue aurre?**

Orain hasi da Aukea guk eskaintzen ditugun ikastaro berak eskaintzen, orain arte egin ez den ate irekien jardunaldia ere egin zuten... Egia da, ez digu onik egin. Gu, baina, gertuko tratua ematen saiatuko gara.



Aitor Furundarena, martitzenean *Ilunpean* saioan. IKER BARANDIARAN

# Hauspoz elkarteko Aitor Furundarena, 'Ilunpean' saioan

### Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko presidentea dator 'Ilunpean' saiora

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Martitzenean izango da Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko presidente Aitor Furundarena *Ilunpean* saioan. Goierriko musikariak, Euskal Herrian, Parisen eta Danimarkan egin zituen akordeoi ikasketak. Egun, musikaren arloan hainbat alderdi lantzen dihardu; Donostiako Musikeneko akordeoi irakaslea izateaz gain, Furundarenak konposizio musikalak ere egiten ditu. Esaterako, ETBko *Sikofonia*, *Sorginen Laratza* eta *Euskaraokea* saioetako sintoniak berak eginikoak dira. Horretaz gain, Furunda, Patxiko kale eta Faltriqueira taldeetako kide da eta Amaia Zubiriarekin ere egin izan ditu akordeoi jotzaile lanak.

**'Ilunpean'**
> Martitzena, 21:45
> Egubakoitza, 18:00

## Zartzuelako sarreren zozketa

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Zarzuelarako lau sarrera zozkatuko dituzte datorren astean. Bestalde, Kaliforniako desertuko Brant Bjork and The Bros eta Eibarko Cobra taldeek kontzertua egingo dute azaroaren 16an 3.60an; harako sarrerak ere badituzte; baita ere Kukubiltxoren *Haritzaren azalera zehatza* antzezlanerako eta masaje saioa ere zozkatuko dute: *irratia@goiena.com*.

**Zozketa**
> Egubakoitza, 11:30etik 12:00etara.



GOIENKARIA

## Zientziaren astea aitzaki, saio berezia Goiena Telebistan

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza astea ospatzeko hainbat jarduera antolatu dituzte Garaia Berrikuntza Gunean. Ekintza horien helburua zientzia, teknologia eta berrikuntza gizarteratzea da. Zientziaren astea aitzaki, *Berbaire* saioa bertatik, Garaia Berrikuntza Gunetik, eskainiko dute.

**'Berbaire'** > Eguena, 21:45. > Zapatua, 19:30

### telebegi

**Edu Mendibil**
> goiena.net/blogak/edu

## Albistegi 'amerikanoak'

Aurrekoan irakurri nuenez, hemengo telebistako albistegiek gero eta antz handiagoa daukate AEBetan egiten direnekin. Obamaren eta McCainen arteko kanpaina amaigabeari (11 hilabete!) eskaini dioten arreta ikusita, ez dago dudarik.

Baina ez, informazioaren hutsalkeriaz ziharduten hainbat adituk. Irudi deigarriak dira AEBetako albistegien ardatza: Arkansaseko tifoia; Britney Spearsen edo Paris Hiltonen azken agerraldi txoroa; edo poliziak gaizkile bati egindako jazarpen zinematografikoa, helikopterotik filmatuta. Botere politikoa kaosaren eragilea baino ez da, besterik ez ia.

Estilo horren jarraitzaileak dira *gure* albistegi asko eta magazinekin bereiztea ez da erraza. Bukatu da Obamaren eta McCainen arteko konbatea. Ea non inbertitzen dituzten orain han uxatutako dolarrak, zein bide hartzen duten ustez informatzea helburu duten albistegiek.

### arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
ElkarrizketakLorategiaren
gelltokiaZozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

### astea GOITBn

**Egubakoitza, 7**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Danbaka: Ni neu/Scam.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 8**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Perretxikoen mundua.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 9**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Perretxikoen mundua.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 10**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Arte irekia.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikuskizuna.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: Ni neu/Scam.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik. Behobia-Donostia
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 11**
**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Rissoto.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Lord Wich
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Aitor Furundarena
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 12**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Perretxikoen mundua.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 13**
**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak
**13:45** Perretxikoen mundua.
**14:15** Eltze beroa: Artxo-haziguruinak.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Adi Holden.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea: Josu Iuziarte.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.




**Pedro Garitano** bergararra eta **Carmen Uriarte** arrasatearra 1958ko azaroaren 8an ezkondu ziren Arrasaten. Urrezko ezteiak, bihar, zapatua, ospatuko dituzte familia artean. 50 urte elkarrekin bete dituzuen honetan, zorionak, bikote, anai-arrebe eta koinatu-koinaten partetik.




**Miel Angel Guridi** eta **Belen Guridi** 1983 ko urriaren 29an ezkondu ziren Oñatiko Agustinoetako elizan. Egun berezi hau bazkari eder batekin ospatuko dute bihar, azaroaren 8an. Zorionak, pareja, familixa danan partetik eta holaxe jarraittu ezazuela beste urte askuan! Muxu asko etxeko danon partetik!



Elgetako **Naroa Sarasketa** eta Lezamako **Kimetz Zabala** zapatuan, azaroaren 8an, Durangon ezkonduko dira. Ondo pasa ezkontza egun berezi hori eta gozatu dezazuela hirurok ezkon-bidaian. Zorionak eta muxu handi-handi bana, *tortolitos*, etxeko guztien partetik.



**Iban Dominguez** eta **Sonia Moro** oñatiarrak bihar, azaroaren 8an, ezkonduko dira San Lorentzoko ermitan. Ondoren, Zelai-Zabal jatetxean egingo dute bazkaria eta ezkon-bidaian Argentinara joango dira. Lehengusuen eta familiakoen partetik, zorionak eta muxu bana, bikote!



Eskoriatzako Mendiola auzoan bizi diren **Josetxo Atxaga** (Aretxabaleta) eta **Ane Arrese** (Mendiola) Eskoriatzan ezkonduko dira zapatuan, azaroaren 8an. Ondoren Mendiolara joango dira bazkaltzera. Familia guztiaren partetik, eta bereziki Enaitzen partetik, zorionak bikote eta ondo-ondo pasatu eguna.



**Rosa** (Leintz Gatzaga) eta **Guillermo** (Aretxabaleta) joan den urriaren 25ean ezkondu ziren Leintz Gatzagako udaletxean. Senitartekoekin bazkari eta parranda egin ondoren, eztei-bidaia gozoa egin dute, epel-epeletan. Etxeko guztion partetik, zorionak eta muxu bana, bikote!

## bono fotoa



## Nola du izena eliza honek?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

SUPER AMARA

Super Amarak emandako
60 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..........................................
..........................................
IZEN-DEITURAK ..........................................
..........................................
TELEFONOA..........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarako **Joseba Carnicero**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Elgetako kultur etxean.**

## hildakoak

- **Nicanor Alvarez Segovia.** Arrasaten, urriaren 30ean. 74 urte.
- **Jose Luis Zarrandikoetxea Pegaita.** Arrasaten, urriaren 30ean. 77 urte.
- **Leonor Urionabarrenetxea Gerrikabeitia.** Antzuolan, urriak 30. 93 urte.
- **Juan de la Concepcion Pedrosa.** Arrasaten, urriaren 31n. 77 urte.
- **Ramon Osinaga Leibar.** Aretxabaletan, azaroaren 1ean. 61 urte.
- **Candelas Salinero Hernandez.** Bergaran, azaroaren 1ean. 84 urte.
- **Antonio Davila Algaba.** Arrasaten, azaroaren 3an. 61 urte.
- **Elias Plazaola Goronaeta.** Oñatin, azaroaren 5ean. 83 urte.

URTEURRENA

## Jacinto Ciarsoro Alberdi



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 9an,
12:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maria Arrieta Muruamendiaraz

Francisco Olalderen alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan,
azaroaren 9an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.
–
*Eskerrik asko ama eman diguzun guztiagatik;*
*izateko era, sentitzeko era, maitatzeko era.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko alaben, suhinen eta iloben izenean.

URTEURRENA

## Jesus Mari Elkoro Aranberri



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 9an,
12:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Conchita Azkarate Madina

Jose Ayalaren alarguna



Bigarren urteurreneko meza
eguenean, azaroaren 13an,
19:00etan
Arrasateko San Joan Bataiatzailea parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko bere lagunen izenean.

URTEURRENA

## Dionisia Arriolabengoa Mendizabal

Cornelio Gaminderen alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 9an,
12:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Sotera Gorrotxategi Etxebarria

Segundo Beitiaren alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 9an,
12:00etan
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Emilio Garcia San Martin



Lehen urteurreneko meza domekan,
azaroaren 9an,
12:00etan
Aramaioko San Martin elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Emilio Garcia San Martin



*Alaitasunaren iturritik*
*edan genuen elkarrekin*
*oroimenean izango zara*
*zu beti gurekin*

Etxekoak.
Aramaion, 2008ko azaroaren 7an.


# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.
**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)**




OROIGARRIA

## Candelas Salinero Hernandez

Santos Brizen alarguna

Bergaran hil zen 2008ko azaroaren 1ean, 84 urte zituela.



*Beti izango zaitugu bihotzean*

Zure senideak.
Bergaran, 2008ko azaroaren 7an.


Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Azaroak 7-13

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



OÑATI

**> Deadstring Brothers eta Norman, zuzenean Gaztemaniak kontzertuan**

Deadstring Brothers (AEB) taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:00etan. Detroiteko talde horrek *Silver Mountain* delako diskoa aurkeztuko du. Eibarko eta Ondarroako Norman taldeak irekiko du gaua.

## Musika



ARRASATE

**> Ana Moura fado abeslariak kontzertua egingo du bihar, zapatua**

Gaur egungo fado musikari onenetarikoen artean dute Ana Moura portugaldarra. *Para alem da saudade* delako diskoa da orain azkeneko bere lana. Bihar, zapatua, abestuko du Amaia antzokian, 20:00etan; sarrera, 10 euro.

## Musika



BERGARA

**> 'Infer' diskoa aurkeztuko du zuzenean Belceblues taldeak gaur, egubakoitza**

Bergarako Belceblues euskarazko soul eta blues taldeak *Infer*, bere lehenengo diskoa, aurkeztuko du gaur, egubakoitza, San Martin plazako Galway's taberna irlandarrean egingo duen kontzertu baten. Gauerdian hasiko da emanaldia.

## Musika

ELGETA

**> Deficiencia Mental, Alexok, The Sugarballs eta Destroy**

Kontzertua antolatu dute gaztetxean: Azkoititik etorriko dira Deficiencia Mental, Alexok eta Sugarballs taldeak, eta Zumaiatik, Destroy.

Bihar, zapatua, gaztetxean.

## Bestelakoak

BERGARA

**> Munduan barrena tandemean ibili zirenen esperientziak**

*Tandemean Hego Ameriketan barrena* delako ikus-entzunezkoa egingo dute Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe senar-emazteek. 45 minutuko emanaldia da, euskaraz eta gaztelaniaz.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.

BERGARA

**> Zetaren ibilbidearen gaineko ikus-entzunezkoa**

Iñaki Kaperotxipiren eskutik, *Zetaren ibilbidea* delako ikus-entzunezkoa egongo da datorren eguenean. Kutxak lagundutako ekintza da.

Eguenean, hilak 13, Zabalotegi aretoan, 19:00etan.

ARRASATE

**> II. Historia eta Zinema jardunaldietako film emanaldia**

Arizmendi ikastolak antolatutako Historia eta Zinema bigarren jardunaldietako azkeneko filma emango dute martitzenean: *Sin novedad en el Alcázar* (Augusto Genina, 1940). Gero, Santiago de Compostelako Unibertsitateko irakasle Xose Manoel Nuñez Seixas-ek hitzaldia egingo du.

Azaroaren 11, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.

## Antzerkia

OÑATI

**> Teknika berri batekin kontatuko dituzte ipuinak**

Kamishibai ipuin saioa antolatu du Oñatiko liburutegiak gaurko, egubakoitza. Debagoienean lehenengo aldiz erabiliko da teknika japoniar hori.

Joan den astean hasi ziren gonbidapenak banatzen. 30 umerendako lekua dago. Argibideak, liburutegian.

Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE

**> Umorezko bakarrizketa egongo da Iamai kafetegian**

TVEko *El rey de la comedia* saioan finalista izan zen Mari La Vikinga aktoreak umorezko bakarrizketa egingo du.

Gaur, egubakoitza, Iamain, gauerdian.

BERGARA

**> 'Ogiyik karri etzun semia' delako antzezlana**

Jardun euskara elkarteak antolatuta, *Ogiyik ekarri etzun semia* delako antzezlana egingo dute, Zabalotegi aretoaren inaugurazio egitarauaren barruan. Komedia horretan, ama baten eta unibertsitatean ikasle den semearen arteko harremana kontatzen zaigu, txikitan emandako hezkuntzaren eta gaur egungo bizimoduaren arteko aldea erakutsiz.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

ARETXABALETA

**> Umeendako magia ikuskizuna egongo da bihar, zapatua**

Txorroborro magoak magia ikuskizuna egingo du etxeko txikienendako. Sarrerak 5 eurotan salduko dituzte.

Bihar, kultura etxean, 17:00etan.

ARETXABALETA

**> Antzezlana egingo dute Oñatiko erretiratu elkartekoek**

Oñatiko Pake-Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Nos vamos de vacaciones* delako umorezko antzezlana egingo du. Sarrera 10 euro da.

Gaur, egubakoitza, kultur etxean, 22:00etan.

OÑATI

**> Umeendako 'Mambru' antzezlana egingo du Markeliñek**

Umeei zuzendutako *Mambru* delako antzezlana egingo du Markeliñe taldeak. Gerraren inguruko antzezlana da. Mambru neskatxoa baserri baten bizi da. Halako baten, gudari bat ezagutzen du. Jolas egiten dute, baina Mambru tiroz joko dute.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 18:00etan.

PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Baserriko produktuen azoka egingo dute zapatuan

Arrasateko hamar baserritarrek eta Gatzagako Jakionek euren produktuak erakutsiko dituzte bihar, zapatua. Barazkiak, kontserbak, babarrunak, odolosteak, fruitu lehorrak, ogia, gazta, pastelak… erakutsiko dituzte. Gainera, udal azokan urteak eman dituzten 70 urtetik gorako lau emakume omenduko dituzte. Azkenik, *Zazpi astoren gainean* bertso saioa izango da, 12:00etan.

Bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara.



BERGARA

**> Helduendako eta umeendako ipuin kontaketak liburutegian**

*Irakurri* kanpainaren barruan, gaur, egubakoitza, Leire Iruin kontalariak ipuinak kontatuko dizkie 4-6 urte arteko umeei.

Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 17:45-18:30.

## Erakusketak

BERGARA

**> Manu Muniategiandikoetxeak erakusketa zabalduko du**

Manu Muniategiandikoetxea artista bergarararren margolan erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Azaro osoan egongo da ikusgai, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

Inaugurazioa gaur, egubakoitza, arratsaldean, Aroztegi aretoan.

ARRASATE

**> San Josepe harrobiaren ideien lehiaketako lanak, ikusgai**

San Josepe harrobi zaharra biziberritzeko ideien lehiaketara aurkeztutako lanak jendaurrean ipiniko dituzte Kulturaten.

Azaroaren 9a arte.

ARETXABALETA

**> Uraren inguruko erakusketa egongo da kultura etxean**

*Ura, bizi iturri* izenburuarekin, erakusketa dago Arkupe kultura etxean azaro osoan.

Bisita ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

## Lehiaketak

ARETXABALETA

**> Argazki lehiaketa antolatu du Begira dendak**

Argazki lehiaketa deitu du Aretxabaletako Begira argazki dendak. 16 urtetik gorako edozeinek parte har dezake, Aretxabaleta zure ikuspuntutik gaia islatzen duten argazkiekin. Oinarrien gaineko argibide gehiago emango dute dendan. Irabazleak 250 euro jasoko ditu.

Mugaeguna: abenduak 10.

BERGARA

**> Uberako jaien inguruko logotipo lehiaketa deitu dute**

Uberako jaietarako zapi bat aterako du jai batzordeak, eta horretarako logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu du Uberan jaio edo bizi direnendako, zein Uberan jaiotakoen seme-alaba eta bilobendako. *San Pauloak Uberan 2009* leloa agertu beharko da logotipoan. Estiloa eta bestelakoak libreak

dira. Zapia laranja kolorekoa izango da, eta logotipoa, kolore bakarrekoa.

Norberak lan bakarra aurkez dezake. Honako helbidera bidali behar dira: Logotipo lehiaketa; Jaolatza elkartea; Ubera; 20570 Bergara.

Irabazleak 100 euro eta zapia jasoko ditu.

Lanak entregatzeko mugaeguna abenduaren 7a izango da.

DEBAGOIENA

**> Komiki lehiaketa deitu du Tolosako Galtzaundi taldeak**

Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarrako Udalarekin elkarlanean, Ibarra Galtzakomik 2008 lehiaketa deitu du. Edozeinek parte har dezake, bakarka, eta bi kategoria daude: 18 urtetik beherakoak eta hortik gorakoak. Gaia librea izango da, eta ez dituzte onartuko eduki bortitz, sexista edo arrazistak dituzten komikiak edo intolerantzia bultzatzen dutenak. Lanak euskaraz aurkeztu beharko dira.

Komikiok honako helbidera bidali behar dira: Galtzaundi Euskara Taldea; Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa; Nafarroa etorbidea 6, behea; 20400 Tolosa. Mugaeguna azaroaren 26a da.

18 urtetik beherakoendako, 400 euro eta argitalpena, eta 200 euroko sariak daude; 18 urtetik gorakoendako, 600 euro eta argitalpena, eta 400 euroko sariak.

Argibideak: 943 65 50 04 telefono zenbakian / *kultura@galtzaundi.com* posta elektroniko helbidean / *www.galtzaundi.com* webgunean.

ARAMAIO

**> Orri-markagailu lehiaketa deitu du Zuiako Koadrilak**

Zuiako Koadrilak hirugarren urtez antolatu du orri-markagailu lehiaketa. Lanak folio edo kartoi mehe baten aurkeztu behar dira, eta denetariko materialak erabil daitezke, betiere, honako neurrian: 4,5 x 21 zentimetro. Lehiakide bakoitzak hiru lan aurkez ditzake, gehienez.

Orri-markagailuak kartazal baten aurkeztu behar dira, Zuiako Koadrilako herrietako liburutegietan, udaletxeetan edo Koadrilako bulegoetan.

Kategoria bakoitzeko hiru sari banatuko dituzte: 150, 100 eta 60 euro.

Argibide gehiago dago *www.cuadrillazuia.com* webgunean.

Mugaeguna: abenduak 5.

# Ospakizunak

ARRASATE

**> Gaztaina-jana egongo da datorren egubakoitzean plazan**

Arrasateko Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, gaztaina erre-jana egongo da datorren egubakoitzean. Herriko ume eta guraso guztiak daude ekintza horretara gonbidatuta.

Egubakoitzean, hilak 14, Arrasateko plazan, 17:00etan.

# Zinema



## Noches de tormenta **

**Zuzendaria:** George C. Wolfe.
**Aktoreak:** Richard Gere, Diane Lane, Christopher Meloni, Viola Davis.
AEB-Australia, 2008.
97 min. 13 urtetik gorakoendako.

Nicholas Sparks idazlea gaur egungo arrakastatsuenetariko bat da, kristau baloreez eta amodio erromantikoaz hitz egiten duten bere nobelei esker. Hollywood-ek, ideia eskasiak bultzatuta, nola ez, haren lan asko erabili ditu filmak egiteko, zorte hobe edo txarragoarekin. Horren adibide ezagunena da *El diario de Noa* delakoa. Film hark zituen akatsak alde batera, lorpen garrantzitsu bat egin zuen: film erromantikoak gustuko ez dituzten ikusleengana ere iristea.

Tamalez, ez du gauza bera lortzen *Noches de tormenta*-k. *El diario de Noa*-k zituen gehiegikeriek bazuten bere xarma, eta gustuz ikusten ziren, barkatu egiten zitzaizkion, filmari egia eta indarra zerielako. Hemen, gehiegikeriek ez dute inolako funtsik, ikuslea modu errazean harrapatu nahia izan ezik.

Filmeko protagonistak krisian dauden mediku bat (Richard Gere) eta banandu berri den emakume bat (Diane Lane) dira. Jatorrizko tituluak aipatzen duen Rodanthe Ipar Karolina estatuko herrixka xarmangarrian ezagutuko dute elkar, eta maitasuna sortuko da euren artean. Ekoizpen horrek bazituen aldeko gauza asko: istorioak zuku gehiago eman zezakeen, hamaika aldiz ikusi dugun erromantizekoa istorio bat baino gehiago emateko aukera zuen, maitasuna bizitzako une zail baten dauden bi pertsonaren artean sortzen denean gerta daitekeena konta zezakeen, topikoetan erori barik. Horrez gain, Gere eta Lane aktore onak dira, eta kimika ona dute, aurretik *Cotton Club* eta *Infiel* filmetan erakutsi duten bezala.

Azkenean, filma klitxe sorta baten geratzen da. Betiko amodiozko filmak, urrutitik igartzen diren une hunkigarriak… gustuko dituztenek beharbada gustura ikusiko dute, baina gehiago nahi duena ez da asebeteta geratuko.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE
### AMAIA ANTZOKIA

**Los girasoles ciegos**
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Hancock**
Domeka: 17:00.

**Thumbs up**
**Relojes de arena**
**La boda de Tuya**
Eguena: 20:30.

### ELGETA
### ESPALOIA

**Persépolis**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
### KULTURA ETXEA

**Los girasoles ciegos**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Rudy, el cerdito de carreras**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR
### UNZAGA

**Quemar después de leer**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:30.

### GASTEIZ
### GURIDI

**Misión en Mocland**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

**Una amistad inolvidable**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Red de mentiras**
17:30, 20:00, 22:30.

**El infierno vasco**
17:30, 20:00, 22:30.

**No me pidas que te bese porque te besaré**
Egubakoitza: 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 22:30.

**Los años desnudos**
16:25.

**High School Musical 3**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:30, 20:35, 22:40.

**Disaster movie**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

**Transsiberian**
20:15, 22:30.

**Quemar después de leer**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 18:30, 20:30, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Nosotros alimentamos al mundo**
18:00, 20:15, 22:30.

**Bella**
18:00, 20:15, 22:30.

**El niño con el pijama de rayas**
17:30.

**Cenizas del cielo**
18:00, 20:15, 22:30.

**Retorno a Brideshead**
17:30, 20:00, 22:30.

**Noches de tormenta**
20:00, 22:30.

**Los niños de Huang Shi**
17:30, 20:00.

**La boda de Rachel**
22:30.

**Sólo quiero caminar**
17:30, 20:00, 22:30.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**High School Musical 3**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Hermanos por pelotas**
12:15, 15:50, 17:55, 20:00.

**Che, el argentino**
19:30, 22:00, 00:30.

**Sólo quiero caminar**
20:00, 22:25, 00:45.

**Noches de tormenta**
20:25, 22:25, 00:25.

**Viaje al centro de la Tierra**
12:15, 16:10, 18:10.

**Transsiberian**
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

**Quemar después de leer**
12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Red de mentiras**
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

**El niño con el pijama de rayas**
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Una amistad inolvidable**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Max Payne**
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

**La conspiración del pánico**
22:00, 00:10.

**Camino**
19:40, 22:15.

**Wall-E**
12:15.

**Misión en Mocland**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

**El reino prohibido**
12:15, 16:05, 18:15.

**Un rockero de pelotas**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Mamma mia!**
12:15, 16:25.

**El espíritu del bosque**
12:15, 16:25.

**Disaster movie**
16:45, 18:45, 20:35, 22:35, 00:25.

**Space chimps**
12:15, 16:00, 17:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**El reino prohibido**
15:50, 18:05.

**High School Musical 3**
15:50, 16:30, 18:10, 19:30, 20:30, 22:30, 22:45, 01:00.

**El niño con el pijama de rayas**
16:30, 18:30, 20:25, 22:25.

**El gurú del buen rollo**
16:00.

**Transsiberian**
18:00, 20:20, 22:40.

**Noches de tormenta**
16:05, 18:10, 20:15.

**Max Payne**
20:25, 22:35.

**Los niños de Huang Shi**
16:15, 19:00, 22:15, 00:45.

**Diario de una ninfómana**
22:30, 00:45.

**Disaster movie**
16:05, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

**Red de mentiras**
17:00, 20:00, 22:00, 00:45.

**Reflejos**
16:00.

**Quemar después de leer**
16:10, 18:15, 20:20, 22:20, 00:30.

**Hermanos por pelotas**
16:00, 18:05, 20:10, 22:20, 00:30.

**Sólo quiero caminar**
19:00, 22:00, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



**Los girasoles ciegos** ***
Espainia, 2008. Zuzendaria: José Luis Cuerda. Aktoreak: Maribel Verdú, Javier Cámara, Raúl Arévalo. 98 min. 13 urtetik gorakoendako.
Ourense, 1940. Elenaren senarra, Ricardo, ezkutuan bizi da, jazarpen ideologikoarengatik. Salvador abadea frontetik bueltan dator, eta Elena ezagutuko du haren semearen bitartez. Alarguntzat jota, emakumearekin obsesionatuko da.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Sólo quiero caminar** ***
Espainia-Mexiko, 2008. Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.
Gloria, Aurora, Ana eta Paloma lapurreta egiten saiatu dira, baina gaizki irten zaie eta Aurora kartzelan dago.

**Bella**
AEB-Mexiko, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gómez Monteverde.
Nazioarteko futboleko izar baten eta New Yorken bizi den zerbitzari eder baten bizitzek bat egingo dute espero ez duten modu baten.

**Noches de tormenta** **
AEB-Australia, 2008. Zuzendaria: George C. Wolfe.
Adriennek, banandu berri den emakumeak, krisian dagoen mediku bat ezagutuko du.

**Camino** ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.
Benetako gertakizun baten oinarritutako filmak 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da.

**Los limoneros** ***
Alemania-Frantzia-Israel, 2008. Zuzendaria: Fran Riklis.
Salma alargun palestindarrak bizilagun berri bat du: Israelgo Defentsa ministroa.

**El nido vacío**
Espainia-Argentina-Frantzia, 2008. Zuzendaria: Daniel Burman.
Seme-alabek etxetik alde egiten dutenean bikote askori gertatzen zaienaz dihardu film horrek: alegia, bikoteak dituen ahultasunak agertzen direla.

**The women** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Diane English.
Mary Haines-ek, itxuraz, bizitza perfektua du: etxe eder bat, 12 urteko alaba pinpirina, Wall Street-en arrakasta duen senarra… Gainera, moda diseinatzailea da.

**Transsiberian** **
Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituania, 2008. Zuzendaria: Brad Anderson.
Transsiberian luxuzko trenean, bi bikotek elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Halako baten, ordea, Roy desagertu egiten da.

**nire aukera**



Iraia Agirrebalzategi
Ludotekako hezitzailea
Oñati

## "Asturiasera bidaiatuko nuke"

Asteburu gehienetan lagunekin egoten naiz. Noizean behin, eta eguraldi ona dagoenean, mendira joatea gustatzen zait edo buelta bat ematea kaletik. Zinemara ere joaten naiz, edo arratsalde pasa erosketak egitera. Aurreko asteburuan horixe bera egin nuen, bueltatxo bat eman kaletik eta zinemara joan.

Aukeratzerik izango banu, asteburu batean Asturias aldera joango nintzateke; baina, era berean, etxean lasai-lasai geratzeko plana ere atsegin dut; betiere, plan on batekin eta konpainia hobearekin gelditzekotan.

**Duela gutxi ireki duzue ludoteka. Zelan doa?**
Momentu honetan bi hezitzaile gaude, eta gustura gaude lanean eta jasotako erantzunarekin. Ezin dugu informazio gehiago eman, gaur hirugarren eguna da-eta.

**Zer egiten duzue ludotekan?**
Programa bat prestatzen dugu hilero gai desberdin bat jorratuz; azarokoa, adibidez, *Udazkena* deitzen da. Programa honen barruan, egunero ariketa desberdin bat proposatzen da. Umeek aukeratzen dute hau bete edo ez. Gainontzekoan jolas librea lantzen da.

**Ondo konpontzen zara umeekin?**
Bai, ondo konpontzen gara eta jatorrak dira. Batzuekin beste batzuekin baino pazientzia handiagoa behar da. Haurrak direla kontuan izanda, argi dago hori.

**Ludotekaz aparte, beste nonbait zaude lanean?**
Bai, horretaz aparte hezkuntzarekin lotutako beste lan batzuk egiten ditut.

**Ze zaletasun dituzu?**
Musika, kirola, irakurtzea, zinemara joatea, lagunekin egotea, kalean egotea… Lanetik irteten naizenean, batzuetan kirola egiten dut eta beste batzuetan etxera joaten naiz.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-11-07

# Oñatitik AEBetara begira

**OÑATITIK BOTOA** Sheila Fritzek eta haren bi seme-alabek postaz bidali zuten botoa, urriaren hasieran

**ITXAROPENA** "Osasuna eta Irakeko zein Afganistango egoera hobetzea dira Obamaren lehentasunak", dio Sheilak

**NEW JERSEYN** Mikel Erle oñatiarra Ulmarako dabil lanean, New Jerseyn; gertutik jarraitu ditu hauteskundeak

**A. BARRUSO/E. MENDIBIL** > OÑATI

Sheila Fritz dugu Debagoienean bizi den estatubatuarretako bat. Oñatin bizi da aspalditik eta gertutik jarraitu ditu bere jaioterrian izan berri diren hauteskundeak. Lehia luzea izan da Barack Obama demokrata eta John McCain errepublikarraren artekoa. Orain dela hamaika hilabete hasi zuten Etxe Zurirako kanpaina. Sheila Fritzek nagusiki hemengo komunikabideen bitartez jarraitu du kanpaina: "Egunkariek eta telebista kateek tarte zabala eskaini diote azken hilabeteotan eta Oñatitik bagenituen nahikoa datu bataren eta bestearen programen gainean". Nahiz eta Oñatin jaiotakoak izan, Sheilaren bi seme-alabek ere bazuten botoa emateko eskubidea. "Urriaren hasieran bidali genuen botoa, postaz", argitzen digu Sheilak.

Azaroko lehenbiziko astelehenaren ondorengo martitzenean izaten dira hauteskundeak AEBetan. Barack Obama izan da irabazlea oraingo honetan eta bera izango da Estatu Batuetako 44. presidentea. Urtarrilean zin egingo du presidente kargua. Itxaropen sasoia zabaldu da orain Estatu Batuetan eta mundu zabalean. Sheila Fritz ere iritzi berekoa da: "Ez du erraza izango egun batetik bestera sekulako aldaketak egiteko, baina osasun arloa eta Irakeko zein Afganistango egoera hobetzen ahaleginak egingo ditu, ziur. Gertatzen da Bushengandik jaso duen herentzia ez dela erraza...".

**LATINOAK ETA BELTZAK**

Mikel Erle oñatiarra, aldiz, Estatu Batuetan dabil, Ulmak New Jersey-n duen lantegian lanean. Obama ala McCainzalea den galdetzean, zera diosku: "Bien artean Obamarekin geratzen naiz, baina nahiago nuke hautagai gehiago egongo balira...". Martitzenean emaitzak nahiko azkar eman zituztela dio eta latinoen eta beltzen botoa erabakigarria gertatu dela: "Migrazio erreformaren alde egingo duelakoan, Obamari eman diote botoa".



**HANDIK ETA HEMENDIK** Sheila Fritz Oñatin bizi da aspaldidanik. Mikel Erle AEBetan dago lanean. MAIDER ARREGI / IKER BARANDIARAN

## ahobero

### "Entzungor egitea ahazten zaidan egunetan oso gaizki pasatzen dut"

**Ana Garcia Obregon** > Aktorea

Bera omen da entzungor egin behar duena gaizki pasa nahi ez badu behintzat. Baina bere atzetik harek zer esango edo haren ahotik zer entzungo ibiltzen diren kazetariek ere ez ikusiarena egingo balute, orduan bai pasako luke gaizki. Izan ere, bestela zeinek ezagutuko luke aktore, aurkezle, biologo edo dena delakoa?

## iturri onetik

### Hitzaldiak, antzerkia eta afaria Oñatiko Udal euskaltegiaren 25. urteurrenerako

Oñatiko Udal Euskaltegiaren 25. urteurrena dela-eta, ikasturterako ekintzak antolatu dituzte. Besteak beste, honako hitzaldiak: Jerardo Elortzak, *Oñatiarrak historian zehar* izenburupean; Jose Antonio Azpiazuk, *Oñati XVI. mendean* gai hartuta, eta Pruden Gartziak, *Lazarragaren esku-izkribuaz*. Ekainean, *Euskara sentziloaren manifestua* antzezlana izango da eta ikasturte amaieran, afaria.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Galdeketa

Bestea hutsean gelditu zen baina Eskoriatzakoa serio doa. Udalak herritarren iritzia jakin nahi du zaharren egoitzaren gainean eta prozesu eredugarria antolatu du.

Asteon, informazio orriak banatu dira eta prentsaurrekoa egin. Datorrenean, bi hitzaldi egongo dira, alde bakoitzak bere ikuspegia azaldu dezan. Hurrengoan, bi mahai-inguru antolatu dira, herritar nahiz elkarteek iritzia emateko aukera izan dezaten. Eta azaroan, lau egunez (19-20-21-22) bozketa egin ahal izango da Udaletxeko Pleno Aretoan. Udalak eta egoitzako patronatuak erabakitakoa berresteko konpromisoa hartu dute, parte hartzea esanguratsua baldin bada.

Zer esan? Ba leku askotan dela ohikoa galdeketa sistema. Eta inbidia galanta ematen dutela eskoriatzarrek!

## ai, ene!



### Hondartzan sofa gainean etzanda egoteko aukera

Hondartzarako eguraldirik ez du egin azkenaldian; etxean, sofan etzanda egotekoa, bai, ordea. Hona hemen biak batean, aukeran.

http://fotoscuriosas.net



Denentzat...

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

UNITED COLORS OF BENETTON.